

Zu hemen zaude. goiena



ELGETAK ERE, MENDI LASTERKETA

Ahuntzen lasterketa jokatu da domekan, lehen aldiz, Elgeta eta Intxorta artean; Oihana Kortazarrek ezin izango du parte hartu bere herrian, min hartuta dagoelako, baina antolaketa murgildu da / 46

Ibai Zabaleta, Iratxe Alonso, Oihana Kortazar eta Eleder Lozano, Intxortako gailurrean, eguaztenean. XABIER URZELAI




Uemaren neurketaren arabera, bost herritarretik hiruk euskaraz dihardute kalean / 4



KORRIKA 22 GEHIGARRIA / 23

ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko ordu bietan, hirurak izango dira.



SINADURAK

| | | | |
|--|--------------------------------|--|-----------------------|
| | RUFINA OLASAGASTI ZUBELDIA / 8 | | ITSASO ERRARTE / 21 |
| | RAMON UGALDE / 14 | | ANDER ETXEBERRIA / 56 |

Saleh Salek: "Felipe Gonzalez agintean izan zenean galdu genituen aukerak sahararrok" / 6



Energia dela kausa, pobretzen, gerraren eraginez

Elhuyarko Igor Leturia ikertzaileari elkarrizketa

2 MÓ 229€
BETAURREKO PROGRESIBO



BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE

Kontsultatu optikan konpainaren esaugarriak.



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multipopticas.com

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

Elikagaiak eta industria, grebak kaltetuenen artean

Martitzena ezkerro geratuta dago Arcelor Mittalen Bergarako lantegia. Gainerako industria enpresetan ere, material faltak eraginda, produkzioan "moldaketak" egin behar izan dituztela aitortu dute. Elikagai freskoen sektorean hasiak dira hornidura falta igartzten

Jone Olabarria ARRASATE

Garraiolarien grebak ekonomian izango duen eragina "grebaren beraren iraupenak" zehaztuko duen arren, "bereziki elikagai freskoen industrian" kalteak eragingo dituela aitortu du MUko Enpresagintza Fakultateko Ekonomia irakasle Gotzon Aldamak. Oraindik egoera "ez dela larria" aitortu dute jaki-dendetan, baina hasiak dira ondorioak nabaritzen.

Esnea eta olioak, falta nagusia

Oñatiko San Miguel elikagai kooperatibaren galdetuta, "bereziki", esnea eta olioak falta zaizkie, eta "etengabe etiketak aldatzen" dabiltza: "Egunetik egunera aldatzen da egoera. Aste honetan zerbait falta bazaigu, datorren astean izugarritzko igoerarekin etortzen da, ez da zentimo batzuetako kontua izaten". Herritarrak "beldurrez" igartzten dituzte: "Hornidura falta izango dela pentsatuta, askok bikoitza edo hirukoitza erosten dute". Bide beretik supermerkatu handietan ere, esnearen eta ekilore-olioaren apaletan igarri dira falta nagusiak azken egunetan.

Produktu freskoari dagokionez, Bergarako Cruz Hermanos fruitategian, momentuz, "egoera onean" daudela diote: "Ez dugu



Esnearen apalak ia hutsik asteen, Debagoieneko supermerkatu batean. GOIENA

hornidura faltarik izan. Almeriatik datozen produktuen prezioa asko igo da, eta datorren asterako lekak eta laranjak falta ahal izatearen beldurrez gaude".

Industria, geratuta?

Adegik helarazitako datuen arabera, Gipuzkoako enpresen %92,5 kaltetu ditu garraiolarien grebak, batez ere, hornitzeko eta banatzeko zailtasunengatik. Patronalaren aurreikuspenekin, astebetean edo gutxiagoan enpresen %22k jarduera geratu beharko lukete; % 27k industrian.

Bailarara etorrita, martitzena ezkerro Arcelor Mittalen Bergarako lantegia geratuta dago, "egoera konpondu arte". Jakinarazi dutenez, ezin dute Olaberriako lantegitik materiala jaso, eta, aldi berean, ezin da ekoiztatzea banatu.

Debagoieneko bestelako industria enpresetan galdetuta, oraingoz, "normal" lanean ari direla diote gehienek, nahiz eta zenbaitek aitortu duten material falta dela-eta produkzioan eta lan-jardunetan "moldaketak" egin behar izan dituztela.

EKINTZAILAZA GARAIA



Garaia Parke Teknologikoan egindako formakuntza saioak. G.P.T.

Garaia Parke Teknologikoa, kardio-babestutako gunea

Pandemiaren ostean, pertsonengan fokua jartzen jarraitzen dute, segurtasunean eta ongizatean sakontzen

J.O. ARRASATE

Rene Robert 84 urteko argazkilaria Suitzar famatua Parisko kaleetan erori eta 9 orduz lurrean izan zen, inork kasurik egin gabe, bertan hilik gelditu zen arte. Kasuak sortutako hausnarketen artean, desfibriladorearen erabilera treratzeko beharra azaleratu zen.

Hogei lagun formatu dituzte

Garaia Parke Teknologikoko Kardio-babestutako Guneak desfibriladorearen erabilera treratu dituen pertsona komunitate bat sortu du, errealitate birtualaren laguntzarekin. Horri esker, Debagoienean eta Garaian, bat-bateko bihotz larrialdi baten aurrean laguntzeko gai diren hogei pertsona gehiago daude.

Heriotza kausa nagusia

Urtero, gaixotasun kardiobaskularren ondorioz 30.000 pertso-

na hiltzen dira Espainian. Gaur egun, gaixotasun kardiobaskularrak dira heriotza-kausa nagusia, eta biziraupen tasa, batez beste, %10koa da. EAEko larrialdi zerbitzuek hilero 70 kasu artatzen dituzte ospitaleetatik kanpo, baina gogorazai dute bat-bateko bihotz-heriotza gehienak ospitale-inguruetatik kanpo gertatzen direla.

Gizartea hobetzeko lanean

"Gure inguruko gizarteari egoera zehatz baten aurrean ezagutza eta trerakuntza eskaintzearekin munduaren zati txiki batean eragiten gabilta. Pertsona horiek ikasi dutena, dauden tokian daudela, erabili ahal izango dute beste pertsona batzuekin".

Hain zuzen, taldean lan egiten eta bizitzen, bakarka betetzen ez diren gabezia horiei erantzuna eman nahi zaie.

LANBIDE HEZIKETA PUBLIKOA DEBAGOIENEAN ATE IREKIAK

Etorkizuna zure esku

Fp ikasLAN Gipuzkoa

ARETXABALETAN:

Martxoaren 29an eta maiatzaren 4an, 18:00etan



ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk. • 20660 ARETXABALETAK
☎ 943 79 79 00 / Whatsapp: 688 811 489
la@aretxabaleta.com
www.ale-aretxabaleta.eus

BERGARAN:

Apirilaren 5ean eta 28an,
10:30ean, 12:30ean, 16:00etan eta 18:00etan



Miguel Altuna LHII Bergara
Agirrebidea, 2 • 20570 BERGARA
☎ 943 899 270 / 943 899 271
info@maltuna.eus
www.maltuna.eus

OÑATIN:

Maiatzaren 10ean, 18:00etan
Maiatzaren 14an, 11:00etan



Oñati Institutua
Larraña auzoa, 18 • 20560 OÑATI
☎ 943 899 300
info@onati.net
www.onati.net

2022 - 2023 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA AURKI

Jone Olabarria ARRASATE

Eguazten arratsaldean sinutako hitzarmenaren bitartez, bi milioi euroko ekarpen ekonomiko egingo dio Fagor Taldeak, Gizabidea Fundazioaren bidez, Mondragon Unibertsitateko Hirekin egitasmoari. Fagor Taldeko eta Gizabideako lehendakaria den Joxean Alustizak eta MUko Goi Eskola Politeknikoko lehendakari Juan Mari Palenciak itxiztako akordioarekin, hezkuntzaren, ezagutzaren, ikerkuntzaren eta ekintzailetasunaren bidean "beste urrats bat" egin gura izan dute: "Etorkizunean inbertitzen ari garenean ziurtasunetik, komunitatea aberasten eta ahalduz dardugugu, besteren artean, Mondragon Unibertsitatea sustatzen ari den proiektu interesgarri eta berri-zaile hau finantzatzuz".

Industria eraldaketan, "gako"

Hain zuzen ere, Uribarriko Gautxori gunean eraikiko duten Hirekin gunera bideratuko da ekarpena. Guneak industria digital, deskarbonizatu eta zirkularerako "topagune bat" izatea du helburu.

Bi milioi euro jasoko ditu Hirekin egitasmoak

Gizabidea fundazioaren bidez Fagor taldeak bi milioi euro bideratuko ditu Mondragon Unibertsitatearen hezkuntza proiektura. Uribarri auzoko Gautxori gunean eraikitzen hasiak diren berrikuntza zentroak bailarako industriaren eraldaketa du helburu



MGEPEko lehendakari Juan Mari Palencia eta Fagor taldeko lehendakari Joxean Alustiza. T.M.

Palenciaren esanetan, "industria iraunkorrean oinarritutako ekonomia lehiakorrago beharrezkoa den trantsizio teknologiko-energetikoan" lagunduko du egitasmoak: "Lagungarria izango da Debagoienak lurralde ekintzaile teknologiko gisa bere posizionamendua hobetu dezan. Horretarako, dibertsifikazio egitasmoen ideiaz eta garapena, ekintzailetza eta industrial zein teknologikoan sakonduko du".

Gizabidearen misioarekin bat

Bere aldetik, proiektuak Gizabidea fundazioaren misioari erantzuten diola zehaztu du

Alustizak: "Egitasmoak bailaren eraldaketa sozioekonomikoa bultzatu gura du hezkuntzaren, ikerketaren eta ekintzailetzaren bitartez".

Izan ere, Hirekin egitasmoaren baitako industria-gune degradatu baten errekupeazioak, "berrikuntza eta ekintzailetzara bideratutako espazio anitzak" aurrekusten ditu. Tartean dira espazio industrial bereizgarria -altuerak eta base sismikoak eraginda-, tailer eremuak eta simulazio gelak.

Hezkuntzarekin konpromisoa

Azken urteetako tendentziarekin jarraituz, "hezkuntza-ondarea zaintzen eta egitasmo berriak babesten" jarraitu gura duela azaldu du Fagor taldeak.

Hain zuzen, Alustizak adierazi zuen azken 40 urteetan 28 milioi euro bideratu dituztela, Gizabidea Fundazioaren bidez, bailarako hezkuntza eragile kooperatiboen azpiegitura beharren finantzaketara. Gogorarazi dute MGEPEren (MU), Huheziren (MU) eta Arizmendi ikastolaren eraikin gehien jabe dela Gizabidea Fundazioa.



Abbadia Saria 2021

Euskararen normalizazioaren alde egindako lanagatik.

ZUEI ESKER












fagoredertiangroup



COPRECI



MONDRAGON ASSEMBLY



galbaian



Bost herritarretik hiru, euskaraz kalean

Uemako udalerrietan %61,5koa da euskararen kale erabilera; neurketaren parte izan dira Antzuola, Aramaio, Bergara, Elgeta eta Oñati, eta ondorio nagusien bidetik, bailaran ere gazteak eta emakumeak dira euskara gehien erabiltzen dutenak

Jon Irizar Aranguren DEBAGOIENA
Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (Uema) eta Sozio-lingustika Klusterrak *Hizkuntzen erabilerearen kale neurketa* ikerketaren txostena argitaratu dute astean. Uemako 85 udalerritan –93k osatzen dute erakundea– eta mankomunitateko kide ez diren Tolosaldeko sei herritan egin dute azterketa. Orotara, 227.900 solaskide behatu dituzte.

%61,5

"Aurreko neurketaren oso antzekoak dira erabilera datu orokorrak", Aritz Abaroa Uemako lehendakariaren hitzetan. %61,5koa 2017koaren balio bera



Aramaioko emakumeen historia ezagutzen bisita gidatuaren une bat. ARANTZAZU EZKIBEL

den arren, arnasguneetan –%80tik gorako ezagutza– %3ren bueltan egin du behera erabilera, eta %1,1 gora, aldiz, %60 eta %80 arteko ezagutza duten herrietakoak.

Gazteak eta emakumeak

Horrez gain, badira nabarmendu beharreko bi aldagai: gazteak eta emakumeak. Haur –2-14 urte– eta gazteei –15-24 urte– entzuten zaie euskara gehien, %75,7ri eta %65,6ri, hurrenez hurren. Oza-ozta igarotzen dute herritar erdien langa heldu nagusiek –40-64 urte–: %50,1. Ezagutza aintzat hartu beharreko faktorea den arren, Abaroaren ondorioa argia da: "Adinean gora egin ahala, jaitzi egiten da euskarazko jarduna".

Sexuei dagokienez, emakumezkoen %61,7k darabilte euskara, gizonezkoek baino %1,4 gehiago. Adin-taldeka, baina, aldatu egiten dira arrakalak: "Belaunaldi gazteetan dago diferentziarik handiena".

Aramaio, euskaldunena

Aramaio, Bergara eta Elgetako datuak argitaratu zituen Uemak

–udalen eskariz, "ikerketa berezia" egin dute Antzuolan eta Oñatin–. %73,8ko erabilerekin, Aramaio da herri euskaldunena. Haurren –%89,5– eta emakumeen –%76,7– balioetatik hasita, irakurketa orokorraren bide-orri nagusiak betetzen dira.

Bestelakoa da egoera Bergaran eta Elgetan. Bergaran %47,7koa da erabilera; herritar erdia baino gehiago erdaraz aritu arren, "gaitasunarekin alderatuta, ez da erabilera baxua", Estepan Plazaola Bergarako Udaleko Euskara zerbitzuburuaren esanetan. Aipatzekoa da sexuen arteko desberdintasuna: euskara gehiago entzuten da emakumezkoen ahotan –%50,5– gizonezkoenentan baino –%43,6–.

Elgetan, aldiz, lau puntu jaitzi da erabilera –%57,9–, eta Ane Bilbao Kultura eta Euskara zinegotziaren hitzetan, "kaleko hizkuntza paisaian ere nabaritzen da". Adierazgarriena, baina, gazteen datua da: %36,5 soilik mintzo dira euskaraz. Hala ere, eta txostenean berariaz jasota, "gazteen lagina alderaketak egiteko behar bestekoa" ez dela adierazi du Bilboak.

goieskola
debagoieneko euskal eskola publikoa

GOXOTASUNEZ ERAIKITAKO KALITATEZKO ESKOLA

BATXILERGOAK

Guztion eskola, guztion artean

MATRIKULAZIOA MARTXOAK 28 - APIRILAK 8

- Zientzia eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Arte Plastikoak
- Orokorra

Ateak Zabalik
Martxoak 30, 18:00



www.arrasatebhi.hezkuntza.net
943 89 94 78

- Zientzia eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Orokorra



www.ipintzabhi.hezkuntza.net
943 89 94 44

- Zientzia eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak


Ateak Zabalik
Martxoak 31, 18:00



www.onati.net
943 89 92 98

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

| | Positiboak aste honetan | Positiboak aurreko astean | Positibo metatuak | Positiboak biztanleekiko | Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko |
|-------------------|-------------------------|---------------------------|-------------------|--------------------------|--|
| Arrasate | 36 | 26 | 8.639 | %39,51 | 280 |
| Bergara | 20 | 16 | 5.464 | %37,47 | 239 |
| Oñati | 14 | 9 | 4.577 | %40,05 | 200 |
| Aretxabaleta | 8 | 5 | 2.614 | %36,78 | 183 |
| Eskoriatza | 6 | 3 | 1.563 | %37,84 | 219 |
| Antzuola | 2 | 1 | 831 | %39,93 | 137 |
| Aramaio | 1 | 5 | 558 | %38,32 | 405 |
| Elgeta | 0 | 1 | 304 | %26,64 | 88 |
| Gatzaga | 0 | 0 | 73 | %34,60 | 0 |
| DEBAGOIENA | 87 | 66 | 24.623 | %38,47 | 239 |

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

87 positibo berriekin, goranzko joera hartu du berriz Debagoienak

Astelehenean berrogeialdiak arinduko diren arren, eremu gorrira itzuli dira Aretxabaleta eta Oñati

Jon Irizar Aranguren DEBAGOIENA Hego Euskal Herriko goranzko bilakaera apalera batu da Debagoiena astean. Azken zazpi egunetan 87 positibo atzeman dira -66 izan ziren aurrekoan-, eta intzidentzia-tasa 31 puntuan

igo da; zehazki, 198tik 239ra. Hala, Gatzaga, Elgeta eta Antzuola daude soilik eremu gorritik kanpo. Ospitaleetako presioa egonkortu egin da; bi ospitaleratu zeuden atzo Debagoieneko Ospitalean.

Berrogeialdirik ez Espainiako Osasun Publikoko Batzordeak hala erabakita, positibo eman baina sintoma arinak dituzten herritarrek ez dute berrogeialdirik egin beharko astelehenetik aurrera.



**ERRESERBA EGIN
ERRIOXAN**

Informazio gehiago



La Rioja
lariojaturismo.com

"Potentzien interesak daude gatazken atzean"

SALEH SALEK DEBAGOIENENKO SAHARAR KOLEKTIBOAREN BOZERAMAILEA

Sahararen autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko mobilizazioak egin dira asteen; baita Arrasaten ere. Espainiako Gobernuaren jarrerak hauspotu ditu protestok

Uxue Igarza Loiola ARRASATE

Espainiako Gobernuak babestu egin du Marokoren asmoa: Mendebaldeko Sahara Marokoko eremu autonomo bihurtzea, alegia. Hala adierazi dio Pedro Sanchez presidenteak Mohamed VI.a erregeari, Marokok berak argitaratu duen gutunean. **Nola hartu duzue berria Debagoieneko sahararrek?**

Ez da ezer aldatu; lehenagotik ere bagenekien zein zen Gobernuaren iritzia. Halere, egia da gutuna argitaratu izana lorpen moduko bat dela guretzat. Frogatu da arrazoa genuela, eta jendarteak ikusi egin du.

Hortaz, sorpresarik ez?

Felipe Gonzalezek jarrera bera zuen. 1976an, bera izan zen kanpalekuak bisitatu zituen lehen politikaria; zin egin zuen lagundu egingo zigula, baina gero, gobernatzera iritsi zenean, Marokoko errege Hassan II.aren lagun egin zen. Ondoren, Zapatero iritsi zen, eta 2007an, Marokorekin aliatu zen. Are gehiago: Latinoamerikako herrialde batzuek babesa kendu zioten Saharako errepublikari, Zapaterori esker. Orain, Sanchezen txanda izan da, eta Marokok traizioa egin dio. Bistaratu egin da azken 50 urteetako jarrera. **Zergatik egin du hori Marokok?**

Espainiako Gobernuaren baitan krisia sortzeko; lurralde-segurtasuna esaten zaio. Sanchezen aliatuek eta botoa eman dioten gehienek ez zuten horren berri. Ildo horretatik, azaldu behar da administratiboki Espainia dela Sahararen arduraduna, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) aurrean. Hala, Espainiak esaten badu ados dagoela Mendebaldeko Sahara Marokoko komunitate bat izatearekin, arazoari garrantzia kenduko zaio nazioartean. Duela bi hilabete, Sanchezek gutuna bidali zion NBERi, Espainiak Sahararen gaineko erantzukizunik



Saleh Salek, Arrasateko Biteri plazan. U.I.

ez duela esanez. Legearen arabera, baina, ezin du hori egin; ezin die erantzukizunei ukorik egin. Gainera, mezu horrek argi geratzen da NBEk eskatzen duen autodeterminazio eskubidea defendatzeari utzi nahi diola Espainiak. Marokok, bien bitartean, presioa egiten jarraitzen du; ekintzak nahi ditu bere helburua lortzeko.

Zein botere du Marokok Espainiako Gobernuarekiko?

Marokoko erregea espantsionista da, eta dena nahi du; baita momentu honetan Espai-

niarenak diren lurraldeak ere: Ceuta, Melilla, Kanariar Uharteak, Andaluzia... Lur horiek aldarrikatzen jarraitzen du. Botere handia du Marokok, eta Espainia saiatzen da harreman ona izaten; gutuna horren adibide da. Baina, esan bezala, gutuna argitaratuta, traizioa egin dio Marokoko Mohamed VI.ak Sanchezzi.

Sahararentzat zein ondorio ekarriko ditu gutunak?

Praktikan, bat ere ez. Espainiaren politikek ez gaituzte inoiz babestu. Beste gauza bat pen-

tsatuko nuke gutun hori Mauritaniak, Aljeriak, Malik edota Libiak bidaliko balute. Horiek bizilagunak eta aliatuak dira; Espainia, ez.

Bistakoa da nazioarteko politikari erreparatzen ari zaretela...

Gatazka guztien zergatiei erantzuteko, nazioarteko politikaren testuingurutik abiatu behar dugu; funtsezkoa da errealitatea ulertzeko. 1991n, Sobietar Batasuna erori zen; 2001ean, dorre bikiena eta Irakeko inbasioa gertatu ziren; 2011n, Udaberri Arabiarrak; eta 2022an, Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra. Munduko politika aldiro aldatzen doa, handien interesen mesederako. Agintariak badakite boterearen mendira igoz gero, jaisi egin beharko direla ondoren, baina, hala ere, gailurrean ahalik eta denbora gehien egoteko, gerrak sortzen dituzte. Hori ari da geratzen orain.

Nola bizi duzu Ukrainako gatazka?

Giza eskubideak errespetatu behar direla diote politikari guztiek, elkartasuna adierazi behar dugula... Konturatu behar dugu gerrak interes politiko eta ekonomikoen ondorioz sortzen dituztela, eta herriak ordaintzen dituela kalte guztiak. Ukrainako gatazkari lotuta, Putini egozten zaio erru guztia, eta zehaztu nahiko nuke Putinek Ukrainan egiten ari denaren errua duela, jakina, baina harago ere joan behar dugula gauzak ulertzeko. Inor gogoratzen al da Kubako misilek? Gerra Hotzera bueltatzen ari gara, eta Afrikako iparraldean sumatu da hori. AEBek dena nahi dute, eta Errusia hasia zen Afrikako zenbait herrialderi armekin eta logistikarekin laguntzen. Momentu honetan, Ukrainara itzulita, alde guztietatik izan dira kaltetuak ukrainarrak. Errusiak bere baldintzak jarri ditu, eta Europak eta NATOk ere bai; eta herritarrak, bitartean, ihes egiten edo hiltzen ari dira. Berriz diot: gatazka guztien atzean, potentzia handien interesak daude. **Ez dirudi itxaropentsu zaudenik...** Sahararrok aukerak galdu genituen Felipe Gonzalezen legealdian; ez balitz hamalau urtez agintean egon, agian, orain bestelakoa izango zen egoera. Halere, borrokan jarraituko dugu; hala egin dugu azken bost hamarkadetan. Gure herriaren autodeterminaziorako eskubidea defendatuko dugu beti.

Egun osoko egitaraua, kulturaren inguruan hausnarketa egiteko

Deba bailarako Kontseilu Sozialistak *Guda zelaia* izeneko kultura eta arte ekoizpenaren inguruko jardunaldia egingo du zapatuan, Arrasaten.

Asmoa "kulturari dagozkion proposamenak jasotzea" da, besteak beste, eta horretarako egun osoko egitaraua antolatuta dute: 11:00etan, *Kultura proletarioa eta sozialista* mahai ingurua; 12:30ean, argazki erakusketa; 15:00etan, bertso bazkaria; eta ondoren, rap erakustaldia –Tata, Mutiko, Fane, Doce C eta Densoren eskutik– eta kontzertuak –J Martina, Ezpalak eta DJak–.

Greba egiten ari dira gaur adinekoen egoitzetako langileak

LAB eta ELA sindikatuek babestuta, Gipuzkoako adinekoen egoitzetako langileek greba egin dute gaur. Sindikatu bakoitzak bere aldetik egin du deialdia, eta ELAk atzorako ere deitu zituen lanuzteak. Bestetik, elkarretaratzea egingo dute langileek, 11:00etan, Lan Harremanen Kontseiluan.

"Lan baldintzak hobetzea" eta "prekariatate egoera bukatzea" izan dira eskaera nagusiak. "Aldundiak eta patronalak jarrera aldatu arte, ez dugu gure borroka baztertuko", azaldu dute bi sindikatuek.

Ikasle Abertzaleen grebak eragina izan du Debagoienean ere

Ikasle Abertzaleek atzorako deitutako greba egunak eragina izan zuen eskualdean ere. Antolakundearen arabera, Debagoieneko sei ikastetxetan egin zuten greba eta "150 lagunetik gora mobilizatu ziren eskualdetik hiriburuetara". Lau hiriburuetan egin zituzten manifestazioak, *Hezkuntza erreformak gelditu* lelopean. Gasteizen 34 ikasle atxilotu zituen Ertzaintzak, fakultateetan piketeak eta hainbat kalte material egitea egotzita. Atxilotuetako bat bergararra izanik, elkarretaratzea egin zuten Bergaran arratsaldean.

Mobilizazioak aste honetan

Debagoieneko sahararren kolektiboko kideek elkarretaratzeak egin zituzten martitzenean eta eguaztenean, Arrasaten.

Azaldu zuten 1991tik ari direla "konponbide bat adostu nahian", baina Marokoren ordezkariak –eta baita Espainia eta Frantziakoak ere– "oztopoak" jarri dituztela bide horretan: "Ez zaizkie aski azken urteetako etengabeko torturak, erailketak, atxiloketa arbitrarioak eta muntaia polizia. Ezta beldurra eta debekuak ezartzea ere, edota hizkuntza, bandera eta nortasuna isilaraztea. Beraiantzat ez da nahikoa minez jositako 2.700 kilometroko harresia eraikitzea". Bukatzeko, adierazi zuten Saharako herriak "bere burua ordezkatzeko eskubidea" duela, eta "hitzetatik ekintzetara pasatzeko unea" iritsi dela.

æek
22.korrika
**ZUZENEAN
ZURE
ESKUKO
TELEFONOAN**

APIRILAREN 1EAN, EGUBAKOITZA, 11:15ETIK AURRERA

DEBAGOIENA, KILOMETROZ KILOMETRO



goiena

Zu hemen zaude.



ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI ZUBELDIA

Laneko hizkuntza bazterketa

50 langiletik gorako enpresek emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasun planak onartuta edukitzeko garaia heldu dela azaldu da komunikabideetan. 572 dira Gipuzkoan hau eginda beharko luketen enpresak, baina 60k bakarrik erregistratu dute plana.

Komunikabideetan plan hauek langileen ordezkariekin onarpena beharrezko dutela diote, baina, aldi berean, azken urteotan egindako aurrerapausoak horrelako planei baino gehiago, mobilizazioei esker lortu direla agertzen da analisisietan.

Nahiz eta oraindik zeregin handia izan aurretik, mugimendu feministak lantegietan genero arteko diskriminazioari aurre egiteko berdintasun planak martxan jartzea lortu du.

Horrelakorik ez dago hizkuntza kontuetan.

EUSKARA PLANAREN NEGOZIAZIOA LANBIDE ARTEKO AKORDIOAREN BITARTEZ ARAUTZEA

Ez da onargarria hizkuntza alorreko bazterketari aurre egiteko planak enpresa mailan negoziatzeko proposamenari Eusko Legebiltzarrak uko egitea. 50 langiletik gorako enpresetan, langile ordezkariek edo enpresariak eskatuta

euskara planaren negoziazioa Lanbide Arteko Akordioaren bitartez arautzea proposatu dute ELAk, LABek eta Kontseiluak. Baina proposamenak jasotako ezezkia ez dator bat Legebiltzar baten egitekoarekin edo patronalak enpresa ereduari buruz egiten dituen adierazpenekin, justiziaz euskaldunoi ere berdintasun maila bat zor baitzaigu.

Nabarmena da hezkuntza sistemak euskaraz gaitutako gazteek guztiz erdalduna den lan munduarekin egiten dutela topo. Beste alor batean mugimendu feministak lortutakoak euskaldunen – euskal hiztunak – bazterketa honi aurre egiteko bide bat erakusten du.

Mugimendu feministaren bidea jarraituz, mobilizazio zabal bat beharrezkoa da lan mundua euskaraz izatea lortuko bada. Arrasaten bide honetan pausoak eman daitezke AEDk martxan jarritako ekimen berriarekin harremanetan jarritz.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Azken dejada

AITZOL ATUTXA 'TTAP'-EN ARGITARATUA

Helburu bat jartzen dute askok, beste batzuk buru gabe ari diren bitartean. Baina nora iritsi nahi dugu? Zer da bizitza? Zertara etorri gara? Zein da gure betebeharra? Guztiok dugu etorrera oso antzekoa, guztiok amesten dugu maitasun istorio baten hasiera batekin, guztiok amesten dugu lehen aldi horrekin eta kirolean debut zirraragarri batekin.

Baina zer gertatzen da bukaerarekin? Nork pentsatzen du horretan? Inork ez dugu bukaerarik nahi eta, beharbada, horregatik ez dugu inolako bukaerarik irudikatzen.

Bada, oraingo honetan, nik egin dut ariketa hori, eta uste dut nire kirol ibilbideko bukaera irudikatu dudala. Ez diot adimenari lan handirik eman, ez dut begiak ixtearen ariketa egin beharrik izan. Begiak oso irekita eta hunkituta nituen. Dagoeneko guztiok jakingo duzue zertaz ari naizen; Oinatz Bengoetxearen pilota profesionaleko azken partidaz ari naiz. Bere kirol ibilbidea goraiatzekoa izan da, bere palmaresa oso gutxiren esku eta unerik zailenetan aurrera ateratzeko indar hori oso gutxiren esku. Hala ere, horiek guztiak eta beste asko ez dira izan nahikoa, enpresaren ustez, 20 urte profesionaletan irauteko. Argi dago beraiek ez

dutela Oinatz askorik maite; herriak, ordea, asko maite du, zerbait ondo egin duen seinale.

Jada ikusi ditut Oinatzek jokatu dituen dozena erdi bat jaialdi on, jakinekora zen, eta ziur nago pilotazaleek ez dutela hutsik egingo. Enpresak uda honetan aukera galanta utzi du alde egiten.

Azken partida hartan oroigarri asko jaso zituen, asko eta asko jada ahaztuko zitzaizkion. Baina bere pilotari lagun eta lankideen tropela banan-banan kantxan agurtzen pilotalekuak eztanda egiten zuen bitartean, sekula ez duena ahaztuko bere azken *dejada* izan zen. Pilota erreboteko zuloan utzi zuen, eta inork ez du hori erantzuko.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza,
Edurne Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Berrero herri gogoa berreskuratzea dugu xede"

AMALUR ALVAREZ GURE ESKUKO BOZERAMAILEA

Maidar Arregi ARRASATE
Pirinioetako bidea ekimena aurkeztu berri du Gure Eskuk Arrasaten. Uztailaren 2an euskaldunek eta kataluniarrek elkarlanean 300 gailur baino gehiago argizatzea da erronka. Debagoiendarrek egingo dituzten tontorrak Argintzu, Buztanzei, Iduzkimendi eta Artzamendi dira. Gure Eskuko bozeramaile Amalur Alvarezek "konexioa eta lankidetzatza" berreskuratzea ere badutela xede dio.

Autodeterminazioaren aldeko erronka handia da.

Nazioarteko komunitateari mezu argia bidali nahi diogu *Pirinioetako bidea* ekimenaren bitartez.

Katalanok eta euskaldunok gure etorkizun politikoa erabaki nahi dugula; libreki eta mugarik gabe, alegia. Gure borondatea entzutea nahi dugu soilik.

Erabakitzeak ez duela gatazka edo arazoa sortzen argi daukagu. Gure erabakiak eta



Amalur Alvarez, Gure Eskuko bozeramaile. MAIDAR ARREGI

bide demokratikoak blokeatzen dituzten estatuek dutela arazoa deritzogu.

Askotariko planak eta 300 gailur argiztatuko dira.

Gure Eskuk sare zabala dauka eta mobilizazio honek espazio

geografiko zabala hartzen du. Gailurrak eskualdeka banatu ditugu, eta herriz herriko taldeek lan propioa egiten dihardute. Asmoa litzateke norberari dagokion gailurrera igo eta argizatzea. Horren

inguruan plan ezberdinak sortzen hasiak dira, gainera. Batzuek joan-etorria egingo dute, beste batzuek egun osoko zein asteburuko plana egingo dute; badira galiziarrekin eta katalanekin elkartuko direnak eta plan bereziak egingo dituztenak. Gure bidea argi dugula eta tresnak eta borondate aldarrikatzea dugu xede.

Indarrak batuta errazagoa da bidea?

Gaitasun handiagoa izango dugu nazioarteari aipatutako mezua helarazteko.

Katalanekin eta galiziarrekin elkarlanean urratsa egitea ezinbestekoa da. Izan ere, Estatuan ekimen herritar eta sozial demokratizatzailea eta bakezalea aurrera ateratzea beharrezkoa da.

Burujabetzarako bidean salto kualitatibo eta kuantitatibo emango da.

Gure zortzimilakoa gure etorkizun politikoa erabakitzean dago. Horretarako, burujabetza prozesu propioa eraiki behar dugu eta mobilizazio honek horretarako ere balioko du. Ez kanpora begira soilik, baita barrura begira ere. Berrero konpromisoa bildu eta indarrak batu herri gogoa berreskuratzeke eta etorriko

diren urratsak egiteko. Hori ere badu-eta helburu ekimen honek.

Erabakitzeke eskubidearen alde herritarra aktibatu behar dela diozu, beraz.

Urte hauetan Gure Eskuk oinarri sozial zabala eta anitza lortu du. Erabakitzeke eskubidearen beharrak babes zabala dauka. Beste kontu bat da azken urteotan bizitako egoera sozialak ez lagundu izana behar horren aldeko aktibazioan. Beste mugimendu askok ere kaltetu ditugu, eta bagabiltza, pixkanaka, martxa hartzen eta aurkezpenak egiten herriz herri. Geroz eta herritar gehiago ari dela mobilizaziora batzen ere ikusi dugu.

Krisi garaian neurri zentralizatzaileek kolokan jartzen dute erabakitzeke eskubidea?

Guk uste dugu ezetz. Munduak eginga du autodeterminazioaren aldeko apustua. Muga eta lurraldeei dagozkien gatazkei gerrarekin eta sufrimendurekin ematen zaie irtenbidea eta Gure Eskuk beti esan du ezin direla mugak indarrez inposatu eta bide demokratikoak behar direla gai hauez eztabaidatzeko. Herritarren borondateari entzun egin behar zaio.

ITURRI ONETIK

Ateak itxiko ditu Oñatiko Pikupe elkarteak

Martxoaren 31n itxiko dute Lezesarri auzoan dagoen Pikupe elkarte gastronomikoa. 1977ko uztailaren 31n zabaldu zuten. Hamar bat urtean elkarte moduan erabiltzea zen hasierako asmoa, eta 45 urte egin ditu; urteurrena bete aurretik itxiko dute, baina. Azken asteotan egin dituzte agur-otordu bat baino gehiago. Txantxiku Txoko eta Pago Uso elkarteak, adibidez, zaharragoak dira, baina herriko lehenengotakoa izan zen Pikupe. Gaur egun, 36 bazkide ditu.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-03-29

Mikel Landa onena Gorlako Igoeran

Mikel Landa (Naturgas Energia) txirrindulariak irabazi zuen Gorlako Igoera 2009an. Esprintean Caja Ruraleko Garikoitz Bravori gailendu zitzaion. 129 txirrindulari atera ziren San Martin plazako irteeratik, baina 64 heldu ziren Gorla gaineko helmugara. Atzetik etorrita azken kilometroan lortu zuen murgiarrek garaipena –gaur egun, Barhain taldean dihardu gorenean–. Domekan jokatu da Gorlako Igoera.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Downen sindromea sarean ezagutarazten

Martxoaren 21ean, joan den astelehenean, izan zen Downen Sindromearen Nazioarteko Eguna:

@ernir: "Eskerririk asko, Atzegi, Down Sindromea duten pertsonen zahartzarora eta Alzheimerren inguruan dagoen ezjakintasuna azaleratzeagatik".

@mberistain: "Ez izan beldurrik Down sindromea dutenekiko".

@atzegi: "Mila esker denoi Down Sindromea duten pertsonen errealitatea gehiago ezagutarazteagatik".

@gurgogureak: "Gaur, Down Sindromearen egunean, ezberdintasunean berdinak".

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ARRASATE

Industria eta teknologia sektore iraunkorrago baten garapenera bideratuta dagoen ikerketa taldea da Mondragon Goi Eskola Politeknikoko IMO (Innovation-Management-Organization). Dorleta Ibarra da taldeko kidea da, berrikuntza espezialitate-eremuko ikertzailea.

IMO industria sektore iraunkorrago baten garapenera bideratutako ikerketa taldea da. Zein da zuen egitekoa?

Gure ikerketa taldeak hiru p-ak biltzen ditu: Profit, Planet eta People. Alegia, ekonomikoa, ingurumenekoa eta soziala. Gure helburua da enpresei jarduera ekonomiko lehiakorrek garatzen laguntzea, karbono gutxiko ekonomiaren ildotik, kalitatezko enpleguekin eta inplikaturako pertsonekin. Hori lortzeko, lau espezialitate eremutan oinarritzen gara: Berrikuntza, Unibertsitate-ekintzailea; Pertsonen Kudeaketa Estrategikoa eta Ekonomia Zirkularra. Gure ikerketa, bereziki, enpresetara bideratuta dago, industrialak izan edo ez.

Hain justu ere, Debagoiena 2030 ekimenarekin ere badiharduzue lanean. Zein da zuen egitekoa elkarlan horretan?

Berrikuntzaren kudeaketan dugun esperientziagatik – metodologiak, prozesuak, teknikak, tresnak...–, Debagoiena 2030 ekimenak martxan dituen prozesuetan eta lan-ildoetan babesa ematen ari gara. Hain justu ere, D2030ek ikusten zuen teknika eta erreminten bitartez lan-prozesuak egituratu beharra. Azken finean, zelan lerrokatu proiektuak Debagoiena 2030en helburuekin, nola ikasketak jaso...

Zer eskaini diezaiokeuzue elkarri?

IMOtik ezagutza, ezagutza sortzeko gaitasuna, gure orientazio praktikoa eta ezagutza praktikara – metodologiak, prozesua, tresnak, dinamikak– eramateko gaitasuna eskaini diezaiokegu D2030i, baita beste eragile batzuekin interlokuziorako gaitasuna

"Enpresen rola gakoa da Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko, baina badira zailtasunak"

DORLETA IBARRA MGEP-KO IMO IKERKETA TALDEKO KIDEA

Berrikuntza kudeaketan duten esperientziatik, lan-prozesuetan bidelagun du D2030 ekimenak IMO (Berrikuntza-Kudeaketa-Antolakuntza) ikerketa taldea



Dorleta Ibarra, Mondragon Unibertsitatearen Arrasateko Campusean. D.I

eta sareak sortzeko gaitasuna ere. Bestetik, D2030ek gure ingurunearen eraldaketan parte hartzeko aukera ematen digu guri, eraldaketa ekimen aurreratu eta erreal baten parte izatea eta egitasmo

honetatik ikasi eta ondorioak ateratzeko aukera, ezagutza, ikerketa eta transferentzia gehiago sortu ahal izateko, besteak beste. **Zein uste duzu dela D2030ek egin diezaiokeen ekarpena**

eskualdeko ehun industrialaren bilakaerari?

Gaur egun ditugun erronkak oso konplexuak dira eta hauei erantzuna emateko aldaketa isolatuak ez dira nahikoa. Azkenean, eragileen, enpresen, kooperatiben, administrazio publikoaren, hezkuntza sistemaren, eragile sozialen... arteko lankidetzak funtsezkoa izango da ezarri ditugun Garapen Jasangarriko Helburuak betetzeko. Ez hori bakarrik, berrikuntzaren ikuspegi sistemikoa ere gako izango baita; alegia, ekimenen arteko sinergiak identifikatzea eta indartzea, emaitza sozial, ekonomiko eta ekologikoak biderkatu eta lurralde osora hedatze aldera. Hor ikusten dugu Debagoiena 2030 ekimenak lagun dezakeela. Azken finean, lankidetzan oinarritutako berrikuntza-ekosistema ireki bat antolatzen laguntzen dabilta, eta, nolabait, hor pentsatzen dugu egin diezaiokeela ekarpena industriaren bilakaerari.

Zeintzuk uste duzu direla Debagoieneko industriak sektore iraunkorrago izatea lortze bidean dituen zailtasun eta balio handienak?

Argi dago Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko enpresen inplikazioa beharrezkoa dela; azkenean, eragile publikoetatik bakarrik traxzionatuz ez da-eta lortuko. Hor ikusten dugu enpresen

rola gakoa izango dela, baina badituela zailtasunak. Enpresek, askotan, epe ertain-luzerako proiektuei ekiteko zailtasunak izan ditzakete, euren erronkak askotan epe laburrekoak dira eta. Ez hori bakarrik, gure esperientziatik ikusten baitugu enpresa txikien kasuan badagoela mekanismo praktikoen falta bat. Balioei dagokienez, esango nuke bailaran badaudela partekatutako balioak, badagoela gizartearen eta enpresen dinamika ekintzaile bat eta badagoela baita ere lurraldearekin konprometitutako eragile sare bat.

Industria eraldaketa justuaren bidean, zein erantzukizun du unibertsitateak? Nondik egin dezake ekarpena?

Mondragon Unibertsitatearen misioa gizartea eraldatzea da, irakaskuntzaren, prestakuntzaren, ezagutza sortzearen eta transferentziaren bitartez. Hala, gure ardurak dira, besteak beste, ezagutzak sortzen eta transmititzen jarraitzea, gizartearen eraldaketan eragile izango diren pertsonak prestatzea edo lankidetzan lan egiten jarraitzea eta lankidetzak bultzatzea.

MGEPk Hirekin proiektua jarriko du martxan, eta hor bultzatzaile da D2030. Zertan da?

Hirekin-ekin, hain beharrezkoa den industria iraunkor eta justu baterako trantsizioa bultzatuko da enpresen, ekintzaileen, ikertzaileen eta ikasleen lankidetzaren bitartez.

"D2030EK GURE INGURUNEAREN ERALDAKETAN PARTE HARTZEKO AUKERA EMATEN DIGU"

"DEBAGOIENEAN BADAGO LURRALDEAREKIN KONPROMETITUTAKO ERAGILE SARE BAT"



Telebista



Profesionalekin

Euskaraz

Komunikazio Campusa 2022

Sare sozialak



Podcastak

Kamera aurrekoak

Fotokazetaritza



Noiz: 1. txanda, uztailaren 4tik 8ra. 2. txanda, uztailaren 11tik 15era. **Taldeak:** gehienez ere, 15 lagun.

Non: Mondragon Unibertsitateko Komunikazio Campusean, Aretxabaletan, eta Goienan, Arrasaten.

Ordutegia: 09:00-13:30 (ordu erdiko atsedenaldiarekin).

Norendako: DBH-4ko eta batxilergoko 1. mailako gazteak. **Izen ematea:** Martxoaren 18tik ekainaren 17ra. **Prezioa:** 125 euro.

IZEN EMATEA ZABALIK: www.labur.eus/komunikaziocampusa



Master-eskolak adituen eskutik:

Alex Padilla Sare sozialetan aditua. **Ainhoa Vitoria** Komunikatzailea eta Gazteako irrati esataria.

Xabier Urzelai Goienako kazetaritza-argazkigintza aditua.

Informazio gehiago:    600 02 27 20  komunikaziocampusa@mondragon.edu

ANTOLATZAILEAK:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA


Mondragon
Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea



Anima zaitetz eta eman izena!

"Pieza artistikoek islatzen dute gizarte baten izaera"

ALMENDRA SHEIRA CASTILLO, 'RURRU MI PANOCHIA' ARTISTA

'Tlazoltéotl, plazeraren eta pasioaren jainkosa' erakusketa egingo du Emakume Txokoan martxoaren 31tik apirilaren 7ra, baita tailerrak ere, apirilaren 1ean eta 2an


Eneko Azurmendi ARRASATE

Rurru Mi Panochia ezizenez da ezaguna Almendra Sheira Castillo (Mexiko Hiria, 1989). Bi tailer egingo ditu: lehena, librea; eta bigarrena, Emakume Migra-tuen Topaguneko saioa. Biak, 16:00etatik 18:00etara. Tailerretan parte hartzeko izena eman behar da Emakume Txokoan.

Tazolteotl. Plazeraren eta pasioaren jainkosa. Nor zen?

Bere izenaren jatorria bi hitz hauetatik dator: *tlazolli* (zikinkeria) eta *teotl* (jainkotasun). Urratzaileei gaixotasunak ekartzen dizkie, sendagaiekin osatu; urratze sexualak eginarazi; absoltitu; bizitza eman, baina suntsitu, era berean; zoramena eta heriotza ekarri. Metaforiko-ki, gorozkiz elikatzen zen, ondoren kaka egin eta zikinkeria energia positibo transmutatzeko, kosmosaren funtzionamenduan eta orekan laguntzeko.

Mesoamerikan, ze sinbolismo dute jainkosek?



Almendra Sheira Castillo, *Rurru Mipanochia*. A.S.C

Energiaren edo jainkoaren araber. Oro har, azpimunduarekin erlazionatutako entitateak dira, baina baita bizidunak ere. Bizitza eta heriotza haien esentzian dago implizituki. Dualtasunarena, energia dualena, pentsamen-

du mesoamerikarrari atxikitako kontzeptua da.

Ikuspuntu mitologikotik, nola tratatu izan da sexualitatea han?

Hori eskulturetan, grafikoetan, mitoetan, erritualetan eta jaietan ikus daiteke. Pieza artistikoetan

gizarte jakin baten ideia nagusiak islatzen dira. Sexualitatearen bitartez jakintza transmititzen da, eta gorputzaren gaineko araudiak islatu. Zibilizazioaren arabera, adibidez, iturri batzuek diote mexikar kultura askoz kontserbatzaileagoa zela, era irekian homosexuala izatea zigortuta baitzegoen. Hala ere, erritualetan baimenduta zeuden, adibidez, bi gizonen arteko sexu harremanak. Halaber, adulterioa baino hobeto ikusita zegoen bi gizonen arteko sexu harremana. Emakumeei dagokienez, ez dut askorik aurkitu izan. Edozelan ere, kultura huasteca, mixteco/zapoteka edota maia askoz ere permisiboagoa zen sexualitatearen inguruan. Heterosexualak ez ziren sexu harremanak ez ziren zigortzen. Halere, kultura guztiek egiten zuten sexualitate moderatu baten alde, komunitatearen eta kosmosaren ongizatea bermatzeko. *Ahuanime*-ek, sexu langileek, rol inportantea zuten komunitate horietan.

Feminismoak ze leku zuen hor?

Antropologo batzuen esanetan, kasu batzuetan, botere publiko berdinzalearen zantzuak daude. Harremanak osagarritasunean oinarritzen zituzten eta kasu batzuetan, gainera, bi *genero* baino gehiago onartzen zituzten. Emakumeek hezkuntzarako sarbidea zuten eta bortxaketa heriotzarekin zigortzen zuten. Dena den, ezin gara erromantiko jarri iraganarekin, baizik eta begi

kritikoeekin ikusi behar dugu, ulertzen saiatzeko, gure oraina eraikitzeko eta etorkizuna bererreraikitzeko.

Nola txertatzen duzu jakintza hori gaurkotasunean?

Saiatzen naiz ezagutza sinbolikoaren esanahi zabala berreskuratzen maila plastikoan eta mitologikoan, adierazpen artistikoaren bitartez gaurkotasunean berrirakurketak sortzeko.

Zurea deseraikitze eta deskolonizazio ariketa bat dela diozu. Zergatik?

Kolonizazioak behartu gaituelako historia gabeko herria izate-ra, gure ezagutzak, ekarpenak, ohiturak eta izaki bizidun gisa daukagun estatusa ukatuz. Arraza eta generoa erabiltzen dira menderatutako gizartea arrazializatu eta generizatzeke. Breny Mendozak zera zioen: "Kolonizazioak baldintza historikoak sortu ditu emakume indigena eta afrikarrek gal ditzaten euren gizartean gizonezkoekin zituzten harreman berdinzaleak eta gizonen menpe gera daitezzen; are gehiago, gizon kolonizatuen menpe. Izan ere, genero menpekotasuna gizon kolonizatuek ezarri zuten, haien gizarteetan nolabaiteko kontrola mantentzeko".

"SAIATZEN NAIZ EZAGUTZA SINBOLIKOAREN ESANAHI ZABALA BERRESKURATZEN"

Agurne Juldain da Arrasateko jeltzaleen lehendakari berria

Arrasateko Uri Buru Batzarrak lehen aldiz du emakume bat presidente karguan, aho batez aukeratu eta gero

E.A. ARRASATE

Otsailean, Arrasateko Euzko Alderdi Jeltzaleak bere Uri Buru Batzarra berri zuten eta lehen aldiz emakume bat aukeratu zuten asanblada nagusiak lehendakari gisa; aho batez, gainera: Agurne Juldain Alcalde. Atzo, eguena, aurkeztu zuten, Monterron parkean, Maria Ubarretxena alkatea han zela.

Juldain Arrasaten jaio zen, 1979ko uztailaren 9an. Psikologian lizentziaduna da, eta 3 urteko alaba dauka. Egun, Sarea Fundazioak kudeatzen duen eta



Agurne Juldain. GOIENA

Caritasen proiektua den Bidean Heziketa Zentroan lan egiten du, bertako arduradun. "Ilusioz hartzen dut erronka berri hau. Arrasate atsegin, eroso eta jasangarri baten alde lan egitera nator", azaldu du.

Arrasateko EAJk "etorkizunerako apustua indartu" nahi du presidente berriaren eskutik, eta "gertutik" jarraituko dute Entzunez Eraiki EAJ-PNVk abian jarri duen entzuketako aktiboko prozesua, "euskal gizartearen eskutik Euskadiren etorkizunerako proiektua eraikitzena begira". EAJren helburua da euskal gizarteko elkarte sare zabalarekin eta erreferente nagusiekin sistematikoki elkartzea, ideologia politikoaz aparte, "Euskadiko proiektu hau egiten laguntzeko prest egon nahi duen ororekin".

Garagartzako ortuetan konpost gunea egokituko dute

Garagartzako Baratze Ekologikoen Batzordeak eskatuta, eta Arrasateko Udaleko Zerbitzu Teknikoak proposatuta, Udalak Garagartzako auzoko baratzeetarako konposta egiteko gunea bat egokituko du. Lehenik, lurzorua berdinduko dute, eta ondoren egingo dute bi ate izango dituen estruktura. "40 metro kubiko konpost sartzea dago aurreikusia. Hala, ortuetako erabiltzaileek konposta urtean zehar eduki ahal dute erabilgarri eta beharrezkoa dutenean erabili dezakete", diote Udal Gobernutik.

Garagartzako ortuak 2009an ireki zituzten. Egun, 84 baratze daude, 83 erabiltzaileentzako eta bat Udalaren jardunerako.

Emakume artisauen eta ekoizleen azoka egingo dute zapatuan

Martxoaren 8ko egitarauaren baitan, biharkoa da hurrengo hitzordua: Emakume Txokoak eta Berdintasun Sailak antolatutako emakume artisauen eta ekoizleen azoka, hain zuzen. Bi urteko geldialdiaren ondoren, Arrasateko eta inguruko herrietako emakume artisauetara eta ekoizleei osatuko dute azoka. Hogei postu egongo dira. Hamalau emakume artisauenak izango dira –poltsak, zilargintza, bitxiak, arropa eta abar–. Horiekin batera, sei postu izango dira bertako produktuak –gazta, ogia, marmeladak...– eta askotariko herrialdeetako elikagaiak eskainiko dituztenak –Venezuela, Maroko eta abar–.

334 alegazio aurkeztuta, "lanean segitzeko prest"

Eragin Arrasatek "konponbideak" eskatzen jarraitzen du TAO sistema ezarri zenetik; aste honetan, Placi Garcia bozeramaileak 334 kexa, iradokizun, proposamen eta abar aurkeztu ditu BAZen. "Borrokan jarraituko dugu, ez gara geldirik geratuko", azaldu du

Eneko Azurmendi ARRASATE

Eragin Arrasate plataformako ordezkariak azaldu dutenez, 334 kexa, iradokizun, proposamen eta abar aurkeztu zituzten martitzenean BAZen. Gaineratu zuten, martxoaren 10eko osoko bilkuraz gerotik batu dituzte guztiak, herriko taberna, denda eta erretiratuen etxeetan. "Aparkalekuekin arazo handia daukagu herrian eta TAOk ez du hori konpontzen. Konponbideak behar ditugu. TAO sistema hau onartezina da. Indargabetu dezatela edo, bestela, sistema aproposago bat jarri", azaldu du Placi Garcia bozeramaileak. "Merkatariak, ostalariak, guztiak

ari dira kexaka. Erdigunean ezin da aparkatu ordaindu gabe eta erdiguneak bizia galdu du horren ondorioz".

334 alegazio horiek sailkatu egingo dituztela nabarmendu dute plataformako kideek, eta sakonago aztertu, indar gehiago egin ahal izateko. "Borrokan jarraituko dugu, ez gara geldirik geratuko".

"Ez diote herriari jakinarazi"

Aurrez, Podemos Arrasateko zinegotzi Eva Abuinek salatu zuen Udal Gobernuak ez zuela "ohikoa den prozedura" erabili eta ez ziola herriari jakinarazi alegazio epea zabalik zegoela

martitzenera arte, martxoaren 22ra arte. "Gobernuak alegazioen epe laburra justifikatzeko esaten du udal ordenantzaren inguruko proposamenak bildu dituela eta Udalak dagoeneko datuak dauzkala", zioen Abuinek.

Hori dela eta, bi eskaera egin ditu alderdi moreak: "Batetik, alkateari eskatzen diogu erabaki honen inguruan herritarrei azalpenak emateko; bestetik, Gobernuari eskatzen diogu alegazioak aurkezteko epea luzatzeko". Era berean, Podemos Arrasate errekurso bat aurkeztea aztertzen ari da, "ez delako herritarrek alegazioak egiteko eskubidea bermatu".

Udaltzaingoak bi ibilgailu hibrido berri ditu patruilatzen

Arrasateko Udalak, "udalerriko energia eraginkortasuna hobetzeko eta kutsadura murrizteko asmoz", patruilatzen bi ibilgailu hibrido berri erosi ditu Udaltzaingorentzat. "Mugikortasun jasangarria sustatzeko helburuarekin, hamar urtetik gorako bi diesel ibilgailu ordeztuko dira *Hyundai i-Data* 7 ibilgailu hibridoekin".



Bi ibilgailu berriak. UDALA

Uriben aire kalitatea aztertzeke neurgailua ezarri gura dute

Arrasateko Udalak Eusko Jaurlaritzari Garaia esparruaren sarrerako biribilgunean neurgailua jartzeko eskaera egin dio. "Uribe eta Uribarri auzoen kutsadura egoera aztertzen lagundu dezake neurgailuak, datuen jarraipena egiteko aukera eskainiz", adierazi du Udal Gobernuak. Uribe eta Uribarri kaleen inguruko bizilagunen

eta erabiltzaileen iradokizunen harira etorri da eskaera. "Eusko Jaurlaritzak neurgailua ezartzea erabakiko balu -airearen kalitatearen azterketa Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da-, Udalak bere gain hartuko lituzke ezarriko diren instalazioek sor ditzaketen urbanizazio lanak: lurra prestatzea, instalazio elektrikoa, saneamendua eta abar".

EAEn dauden 53 neurgailuetako bat Arrasaten dago, eta Debagoieneko bakarra da.

aurrekontu parte hartzaileak
2021-2022

PROIEKTUAK

bozkatu

www.arrasate.eus
500.000€



Arrasatek proposatu eta erabakil

| | |
|---|----------|
| 1. Pumptrack-a San Kristobalen: bizikleta eta patineteentzako zirkuitua | 125.000€ |
| 2. Aramaio errekaren ondoko bidegorria argiztatu (Alecopefik Markuletera) | 120.000€ |
| 3. Gipuzkoa etorbideko zebra-bideak argiztatu eta egokitu | 115.000€ |
| 4. Skate parkea Uribarrin | 100.000€ |
| 5. Arrasaten euskararen memoria jasotzeko proiektua | 65.000€ |
| 6. Bizikleteentzako aparkaleku seguruak | 60.000€ |
| 7. Komun publikoak jarri Itxaropena eta Nao Santiagoko haur parkeetan | 60.000€ |
| 8. Santa Barbara parkea hobetu: eserlekuak eta zakarrontziak beritu | 50.000€ |
| 9. Arrasateko Udal arbuioaren digitalizazio proiektua | 50.000€ |
| 10. Calistenia parkea San Josepen: aire librean soinketa egiteko gunea | 41.500€ |
| 11. Zigarrolako balkola aisialdirako egokitzea | 40.000€ |
| 12. Zebra-bideen ikusmena hobetzeko aparkalekuak egokitu | 25.000€ |
| 13. Arrasateko emakumeen historiaren ikerketa lana | 24.000€ |
| 14. Ergineko txakurren gunean jolasteko elementuak jarri | 18.000€ |
| 15. Idazketa talleres, hiltzaldia, bisita gidatuak: herriko kultura eskaintza zabaldu | 7.600€ |
| 16. Kautxuzko topeak jarri Gipuzkoa etorbideko aparkalekuetan | 1.800€ |



NOLA BOZKATU?

Online: www.arrasate.eus/partaidetza

Aurrez aurre: BAZ, Kulturate, Etxaluze eta Kirolegia.

Nahi beste proiektu baloratu irizpide hauen arabera:



Asko gustatzen zait



Gustatzen zait



Ez nau asetzen



Ez nuke egingo



NOIZ?

Martxoaren 25etik apirilaren 10era



NORK?

Arrasaten errolatuta dauden 10 urtetik gorako arrasatear guztiak (2012an jaioetakoak barne). NAN ez duten adin txikikoek BAZen presentzialki eta edozein dokumentu identifikagarri aurkeztuta (liburutegiko txartela, kirol txartela, familia, liburua...).

www.arrasate.eus



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONERACIÓN



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazioen Foru de Gipuzkoa



Gaizka Eraña (EH Bildu), Anuska Ezkurra (EAJ-PNV) eta Aritz Murua (PSE-EE), BAZen. E.A.

Hamasei proiektu daude aukeran bozketa fasean

243 proposamen aurkeztu zituzten arrasatearrek aurrekontu parte-hartzaileetako lehen fasean eta, ostean, herritar boluntario talde batek eta udal teknikariek hamasei proiektu hobetsi dituzte, horien bideragarritasuna lehenetsiz; bozketa fasea hasi da

Eneko Azurmendi ARRASATE

Iazko azaroan abiatutako *Zeuk erabaki* prozesua bukaerako fasera iristen ari da. Atzo, egue-na, aurkeztu zituzten bozketa fasearen xehetasunak Anuska Ezkurra zinegotziak (EAJ-PNV), Gaizka Eraña (EH Bildu) eta Aritz Murua (PSE-EE).

Lehen fasean, 243 proposamen aurkeztu zituzten arrasatearrek, eta gero, bigarren fasea garatu dute, azterketa fasea. Boluntarioz osatutako talde batek gaika banatu eta aztertu ditu proposamenak, eta horietatik hautatutakoak teknikoki xehatu dituzte udal teknikariek, horien bideragarritasuna bermatzeko.

Askotarikoak dira proiektuak

Modu horretan, hamasei proiektu aukeratu dituzte azken fase-rako. Honako hauek dira proiektuak: *pumptrack*-a San Kristobalen, bizikleta eta patineteentzako zirkuitua; Aramaio errekararen ondoko bidegorria argiztatu –Alecoptek Markuletera–; Gipuzkoa

etorbideko zebra-bideak argiztatu eta egokitu; Uribarrin skate parkea; Arrasaten euskararen memoria jasotzeko proiektua; bizikletentzako aparkaleku seguruak; komun publikoak jarri Itxaropena eta Nao Santiagoko haur parkeetan; Santa Barbara parkea hobetu, eserlekuak eta zakarrontziak berrituz; Arrasateko udal artxiboaren digitalizazio proiektua; *calistenia* parkea San Josepen, aire librean soinketa egiteko gunea jarritz; Zigarrolako balkoia aisiialdirako egokitu; zebra-bideen ikusmena hobetzeko aparkalekuak egokitu; Arrasateko emakumeen historiaren ikerketa lana; Erguingo txakurren gunean jolasteko elementuak jarri; idazketa tailerrak,

APIRILAREN 10ERA ARTE BOZKATU DAITEKE ETA HAINBAT BIDE JARRI DITUZTE HORRETARAKO

hitzaldiak eta bisita gidatuak egin, herriko kultura eskaintza zabaltzeko; kautxuzko topeak jarri Gipuzkoa etorbideko aparkalekuetan.

Bozketa fasea martxan da

Gaur, egubakoitza, hasi eta apirilaren 10era arte iraungo du bozketa faseak, eta horretarako bi bide ireki dituzte: *arrasate.eus/partaidetza* webgunean edo aurrez aurre, BAZen, Kulturaten, Etxaluzen eta kiroldegian.

Arrasaten erroldatuta dauden 10 urtetik gorako herritar guztiek bozkatu ahal izango dute –2012an jaiotakoak barne–. Nortasun agiririk ez duten adin txikikoek nahikoa izango dute BAZen dokumentu identifikagarri bat aurkeztuta –liburutegiko txartela, kirol txartela, familia liburu...–.

Proiektu bakoitzak aurrekontu bat du, eta hainbat izan daitezke aukeratuak. Izan ere, Udalak 500.000 euro bideratuko ditu horietara, bi urtean.

NIRE USTEZ



RAMON UGALDE

Kieveko erregimena

Ukraina barruko gerra 2014an hasi zen. Ez nion kasu handirik egiten, baina Ibai Trebiñoren eta Mikel Arregiren dokumentala hor zegoen gauzak argitzen laguntzeko. Ez dut kritikatu Kieveko erregimenak Errusiako esku-hartzeari fronte egiteko gisa ezkutuak erabiltzea, edo korridore humanitarioen aurkako tiroketak egitea edo setiatutako hirietatik ihes egiten saiatzen direnei dirua kobratzea, edo ospitale eta eskoletan postu militarrek ezartzea, ezta oposizio alderdiak debekatzea eta, are gutxiago, trafikoko posteetan andre ijitoak lotzea, aurpegia berdez pintatu ondoren.

Eta Errusiako esku-hartzea hasi baino lehenago Donbassen aurkako bonbardaketak, edo Transkarpatiako hungariarren zerrenda beltzak eta beste etnien aurkako programak eta horrelakoak ere ez. Niri han ez zait ezer galdu. Hori guztia salatzen ez dut ezer egin, baina Kieveko erregimenari txaloak ematen ere ez naiz hasiko. Ze bilakaera izango dute gure inguruko errusiarfobok?

Altamirako jaietarako egitaraua prest daukate dagoeneko

Apirilaren 1ean eta 2an ospatuko dituzte Altamira auzoko jaiak, pandemia aurreko ohiko jarduerekin. Gaur, egubakoitza, iluntzean berotuko dituzte motorrak eta bihar egun osoan zehar hainbat ekitaldi egongo dira: tortilla txapelketa, haurrentzako jolas eta tailerrak, auzo bazkaria, auzotar jaioberriei omenaldiak, kronoigoera, igel jolasa, musika girotua eta su artifizialak dira Altamirako jai batzordeak hurrengo asteko ostiral eta zapatarako antolatuko dituen ekintza nabarmenetako batzuk. Bazkarirako tiketak hilaren 28ra arte egongo dira sagai, albaitariaren lokalean. Egitarau osoa *Goiena.eus*-en dago.

Izen-ematea irekita dago Avesantesen bi ikastarotarako

Santa Teresa eta Doneztebe Portuko kaleetako bizilagunen elkarteak bi ikastaro antolatu ditu, elkartearen lokalean egingo dituztenak –Santa Teresa kalea, 12–: batetik, lehen sorospeneko ikastaroa Gurutze Gorriaren eskutik egingo dute, eta taldea osatzeko hamabi pertsona gura dituzte, gutxienez. Izen-ematea 16 euro da eta 644 74 50 18 zenbakira deitu beharko da –data, zehazteke–. Kakorratz ikastaroa, aldiz, eguaztenetan egingo dute, 17:00etan. Bazkideentzat doakoa izango da eta bazkide ez direnek hilean bost euro ordaindu beharko dituzte. Izena emateko, 644 74 50 18 edo 646 36 96 25 zenbakietara deitu.

OHARRAK

Nora Salbotxen saioa apirilaren 6an

Karkabatik herria zikloaren baitan, aste honetan ziren egitekoak, baina hilaren 6ra atzeratu dute. 19:00etan izango da, Irati Topalekuan, euskal hezkuntzagintzaren erronkei buruz.

1957an jaiotako kintada maiatzaren 7an

Bazkarian parte hartzeko, 75 euro sartu beharko dira Laboral Kutxako ES58 3035 0047 10 0471085571 kontuan. Azalpenean, izen eta abizenak jarri beharko dira.

Familian jolasean: azken saioa domekan

Urtarrilean abiatu zuten ekimena eta etzi egingo dute azken saioa, Okendoko ludotekan, 17:30ean hasita.

Ziorla Kenpo taldea gaztetzeko ahaleaginean

Kenpo izeneko arte martziala jorrazten duten taldekideek belaunaldi erreleboa emateko garaia iritsi dela ikusi dute. Alberto Narro hezitzailearen eskutik, gaztetzekoendako doako ikastaroak antolatuko dituzte apirilera eta maiatzerako

Hasier Larrea ARRASATE

2008an sortu zen Ziorla Kenpo taldea, Ziga-Gym gimnasioan. Iker eta Josu Letona anaiak arduratu ziren lehen ikastaroak emateaz, eta, entrenatzeko esparrua txiki geratu zitzaizenez, Musakolako kiroldegira lekualdatu ziren. Gaur egun, bertan jarraitzen du hamabi lagunek osatutako taldeak, baina haize berrien falta sumatzen dute kideek. "Hiru gaztetzeko dauden arren, gainontzeko bederatzioak 40 eta 50 urte arteko adina dugu; argi dago taldea zahartu egin dela", adierazi du Iker Letonak, taldeko zuzendariak. Aurretik ere konturatu dira hurrei begirako saioak egiteko beharra bazegoela, guraso batzuek galdetu izan dietelako, baina ez dute pauso hori emateko aukera handirik ikusi, "egitekotan, ganoraz" egin nahi zutelako.

Orain iritsi zaie ordua, Alberto Narro egoki ikusi baitute horretarako. Letonaren kenpo ikasle izandakoa, irakas-kuntzan trebatutakoa da Narro. "Saiatzen da arte martziala behar den bezala irakasten, haurrak jolas egitera bakarrik bideratu beharrean, beste kenpo irakasle batzuek egiten duten moduan", azaldu du Letonak. Hala, apirila eta maiatza artean



Ziorla Kenpoko kideak, Musakolako kiroldegian entrenatzen. IKER LETONA

ostegunero egingo dituzte saioak, 17:30etik 18:30era. Hasieran, doakoak izango dira, irailera begira oinarrizko taldea osatze aldera.

Norbere neurria

Judoa eta karatea bezala, borro-kara bideratutako arte martziala da kenpoa. Jatorriz zaharra izan arren, gaur egun praktikatzen den modalitatea 50eko hamarkadan garatu zen, Hawaiiin. "Bertan bizi ziren txinatar eta asiarrak jatorriko pertsonak estatubatuarrengandik defendatzeko

ikasten zuten kenpoa", dio Letonak. Berak "kasualitatez" deskubritu zuen duela hogeitau urte baino gehiago, lankide batek probatzeko gomendatu ostean.

Ordutik hona, etengabe praktikatu izan du, jakitun baita nolako onurak ekartzen dizkion: "Niretzat errutinatik irteteko eta estresa kentzeko modu bat izan da; oso efektiboa, gainera. Bestalde, gizartean gertatzen diren zenbait egoera kudeatzen jakiteko balio digu; istilutan sartu nahi ez arren, beste biderik ez dagoenean, nolabaiteko

"Gaztetzeko jarrerak zuzentzeko baliagarriak izan daitezke saioak"

ALBERTO NARRO HEZITZAILEA

8 eta 14 urte arteko gazteen artean lehen aldiz emango ditu kenpo ikastaroak, baina esperientzia handia du arte martzialetan eta gizarte-hezitzaile.

Aikido diziplina irakatsi duzu orain arte. Kenpoa baino lasaiagoa da.

Aikidoa arerioaren eraso baliatuz defendatzen datza, ez da kenpoa bezain bortitza. Kenpoan modalitate ugari daude: kata, defentsa teknikak eta borroka. Hiruretan lehiatu daiteke, eta hori pizgarria da.

Ondo dakizu zuk hori.

Txapelketa ugari irabazi dituzte Espainiakoa, Euskadikoa, Gipuzkoakoa, unibertsitate-mailakoak...

Eta nerabazarora iristen dabilzanekin jarduten duzu orain.



ALBERTO NARRO

Irakaskuntza ikasi nuen eta gizarte-hezitzailea naiz. Pedagogia ikasten nabil UNEDen. Gazte-justizia zentro batean lan egiten dut, delituak egin dituzten gazteekin.

Arte martzialek nola eragiten dute jarreran?

Autoritatea, arauak eta kideak errespetatzen ikasteko egokia da. Eskolan jarrera onik ez zuten ikasleek gurasoek esan didate arte martzialekin hobetu egin dutela. Oldarkorrek dira, eta jarraipena egiten diet, ez bakarrik nire ikastaroetan. Funtsezkoa iruditzen zait.

erremintak edukitzeko, alegia". Diziplina hori praktikatzeko dutenek ez dute helburu berarekin egiten, ordea: "Batzuk arazoak ahaztera datoz, beste batzuek defentsa pertsonal bezala hartzen dute eta badago txapelketetan izena ematera apuntatzen denik".

Funtsean, baina, filosofia bakarra dauka Ziorla Kenpo taldeak, "nork bere burua hobeto ezagutzeko". Izan ere, ez dago kolpe zailak egiten ikasi beharrik, nahikoa izan baitaiteke oinarrizko mugimenduak egiten ikastea; musika talde batean

gertatzen dena jarri du Letonak adibide modura: "Bi gitarra-jole desberdin egon daitezke, bata punteatzen eta bestea erritmoa jarraitzen. Hau berdina da, bakoitzak hartzen dio bere neurria eta ahal duen tokiraino heltzen da".

8 ETA 14 URTE ARTEKOEI BEGIRAKO SAIOTAN IZENA EMATEKO, DEITU 636 29 95 90 TELEFONORA

Mugarri-Ingouko seniorrak Gipuzkoako ligara jaitsiko dira

Euskadiko senior ligako jaitsiera-fasea amaitzeko bi partiduren faltan, matematikoki galdu dute kategoria

H.L. ARRASATE

Arrasate Eskubaloitza Taldeko gizonen talde nagusiak joan den asteburuan galdu zuen Euskadiko Ligan jarraitzeko esperantza. Etxean 23-30 galdu zuen Escolapiosen aurka; era berean,

aurkari zuzena zen Usurbilek irabazi egin zion Urdaibairi. Hortaz, maila mantentzeko aukerarik gabe gelditu dira, baina, Josu Herrero kirol zuzendariaren esanetan, "ez da drama bat izango". Asteburu honetan atse-

den hartu ostean egingo diete aurre jokatzeko geratzen zaizkien bi hitzorduei, eta denboraldia bukatu aurretik zaportsa kentzeko lehiaren bat ere jokatu dute.

Hortaz, ustekabekorik ezean, irailetik aurrera Gipuzkoako 1. Lurraldeko Txapelketan arituko dira. "Liga zaila izango da hori ere; beraz, egungo jokalariek eta gazte taldeak lehen taldera jauzi egiten dutenek lan egin beharko dute kategoria berrira moldatzeko", dio Herrerok.



Klima aldaketan aurrean, neandertalak zutik

700.000 urte atzera egin du Marijose Iriarte arkeologoak Kulturaten, neandertalen gaiaren harira antolatutako azken hitzaldiaren baitan. Geroxeago, giza espeziea sortu zenean, aldaketa klimatiko bortitzei aurre egiteko gai izan zirela mahaigaineratu du

Hasier Larrea ARRASATE

Lezetxiki, neandertalden lurraldea hitzaldi-zikloko hirugarren eta azken saioa egin dute asteon Kulturaten. EHUko doktore, Iker Basqueko kide eta klaustroko erakusketako komisario Marijose Iriarte arkeologoak neandertalden garaiko klima aldaketak izan ditu hizpide, eta nola orduko gizakiak gai izan ziren "oso egoera klimatiko desberdinetan" bizi izateko.

Izan ere, Pleistozeno Erdiaren garaian, duela 700.000 urtetik aurrera, izozte eta desiozote fase ugari gertatu ziren Lur planetan. "Neandertalek aurre egin zieten muturreko tenperaturei, dokumentatuta baitaude espezie horren Iberiar penintsulatik Asiako ekialderaino aztarnak", azaldu du Iriartek.

Lezetxikiko animaliak

Hemen inguruan gertatutako glaziazio garaiak bereizten lagundu dute Lezetxiki kobazuloko amildegietan topatutako animalia desberdinen aztarnak: "Garai hotzetan bizi zirela esaten digute leizeetako lehoien, bisonteen eta otsoen hezurrek; aro epelagoetakoak dira hegaztien hezurak, mika, eper, galeper eta beleenak, kasu". Animalia bitxiak, ezbaierik gabe, makakoa dela dio Iriartek: "Klima beroetako espezie hau Lezetxikin bizi izan zen duela 200.000 urte, ezki, haritz, arte eta pinu artean".

Baso irekien garrantzia

Animalientzat ez ezik, orduko giza espezieentzat gakoak izan zen baso irekien agerkundea. Horiek gabe, "nekez" biziraungo zukeen Afrikako baso itxietan *Homo heidelbergensis* espezieak: "Baina sabana antzeko baso irekiak sortzea ahalbidetu zuen klimaren dinamikak, eta gizaki haiek erraztasun handiagoa izan zuten inguru haietara molda-



Iriarte, ikus-entzuleen aurrean azalpenak ematen, eguaztenean Kulturaten. H.L.

"GUTXI DAKIGU NEANDERTALEZ; DENBORAN ZENBAT ETA ATZERAGO EGIN, GUTXIAGO"

Bukaerara bidean

Apirilaren 9an amaituko da *Lezetxiki, Neandertalden lurraldea* egitarau-sorta. Bien bitartean, erakusketara bisita gidatuak egingo dituzte datozen bi eguetan. Bihar goizean, berriz, Historiarruko tekniken erakustaldia eta tailerra emango ditu Jose Julian Marquezek Zaldibarren, 11:30ean.

Ekintza horietan parte hartzeko izen-emateak bete egin dira. Argi geratu da, beraz, zer-nolako harrera jaso duten azalpen osagarriak.

tzeko, ez zutelako hotz handirik pasatzen".

Gaur egun planetako edozein tokitan bizi izateko gai bagara hori "kulturari esker" dela nabarmendu du Iriartek: "Giza gorputza berez ez da gai muturreko tenperaturei aurre egiteko, baina, aire girotua edota berokiak ditugunez, munduko bazter guztietan bizi gara".

Altxorrek kobazuloetan

Lezetxiki eta halako eremu estaliengatik ez balitz iragan urruna ezagutzea askoz ere zailagoa izango litzakeela gaineratu du arkeologoak, aztarnak ez liratekeelako modu egokian mantenduko. Koba barruko estalagimitak ere garrantzitsuak dira gizakiaren eboluzioari buruzko galderak erantzuteko garaian, "iraganean gizakiek biziak gogotzen berri" ematen baitute.

Konklusio modura, "datorren urtean metodoak aldatuko balira agian dakiguna ere aldatuko dela" adierazi du, oro har, oraindik ezagutza gutxi dagoelako neandertalei buruz: "Zenbat eta atzerago egin, orduan eta zailagoa da datuak aurkitzea".

"Inprobisatzen dugunez, saio bakoitza desberdina izaten da"

AMAIA ELIZARAN 'ARIMA' PIEZAKO DANTZARIA

Liam Ó Maonlaí musikariak izango da domekan Amaian

H.L. ARRASATE

Tolosarra 3 urterekin dantzatzen hasi, eta dantza garaikidean trebatu da. Sei urte daramatza pieza propioak sortzen. Azkena, *Arima* izenekoa, hilaren 27an aurkeztuko du, Amaia antzokian, 19:30ean.

Zergatik merezi du domekan antzokira joatea?


Publikoa emozionatzeko moduko pieza aurkeztuko dugulako. Ez dugu istorio narratibo bat kontatzen, aztarna bat, energia bat, arima bat transmititu baizik. Egiten ari garena ez da ulertu behar, publikoak bere emozioak askatzea gustatuko litzaidake.

Musikariaren eta dantzariaren arteko elkarrizketa proposatzen duzue.

Pianoa, harpa zelta eta flauta berezi bat joko ditu Liam O Maonlaí musikariak. Irlandan, bere jaioterrian, izarra da, eta hemen bere musika entzun ahal izatea ederra da benetan. Tarte batzuetan abestu egiten du, baina gure obrak ez dauka hitzik. Nire papera mugimenduetan eta arnasketan oinarritzen da, eta oso kontzentratuta egoten naiz Liamek jotzen duen doinuak; azken batean, musikak eramaten nauelako.

Inprobisatu egiten baituzue.

Egiten duguna aurrez ez dago guztiz zehaztuta, baina badauka egitura bat. Hau da, atmosfera berbera proposatzen dugu eta puntu berera iristen gara. Baina, bien bitartean, aurreko emaldian jo ez zituen notak jo ditzaite Liamek, eta beste ho-



Amaia Elizaran. WIKIMEDIA COMMONS

rrenbeste egin dezaket nik gorputz mugimenduekin.

Hori ona edo txarra al da?

Bietatik dauka. Dena lotuta eta idatzita baldin baduzu, alde batetik, lasai zoaz; baina, bestetik, esaten duzu: eta gaizki egiten badut? Izan ere, ez duzu askatasun punturik. Inprobisatzean ez dakizu zer gertatuko den ehuneko ehuneko, eta horrek adrenalina ematen digu. Azken finean, asko disfrutatzen dugu.

Euskal Herriko dantza garaikidea nola dago gaur egun?

Azken urteetan, nire belaunaldiko dantzari ugari kanpoan egon gara, dantza garaikidea ikasteko kontserbatorioetan, hemen ez genuelako aukerarik. Orain, horietako asko etxera bueltatu gara; beraz, hemendik sortzen dugu eta mugimendu aberatsa garatzen ari gara. Aprobetxatu egin behar dugu une hau.

Erromintxelak taldearen kontzertua gaur Aterpe tabernan

Swing musika, gypsy-jazz estiloa, zehatzago esanda, da goi-mailako musikariz osatutako boskoteak egiten duena, "musika arina, entzuteko erraza eta dantzagarria". 1929ko krakaren ostean jaiotako musikak erakarritza elkartu ziren, eta gaur Amaia antzoki alboko Aterpe tabernan joko dute, 23:30ean -gehiago jakiteko, ikus *Puntua* aldizkaria-.

Martxoko Kooltur agurtzeko, musika beltz freskoa

Hileko azken egunean, Mississippi Queen & The Wet Dogs Bilboko taldeak joko du Kooltur Ostegunean, gaztetxean, 22:00etan hasita. Arrasate Blues jaialdian parte hartutakoak, autoekoiztutako *Try me* diskoa kaleratu zuten 2019an. Funk rocka eta soula darie oharkabean pasa ez diren kantuei, zenbait sari jaso baitzituzten 2020an.



Peru Abarrategi eta Aitor Ugarte bertsolariak. IMANOL SORIANO

Zazpi aramaioar Arabako txapela lortzeko lehian

XV. Arabako Bertsolari Txapelketa aurkeztu berri dute Laudion. 30 bertsolarik parte hartuko dute eta bost final-zortziren, hiru final-laurden, bi finalerdi eta finala jokatu dituzte. Final-laurdenetako saio bat Aramaion izango da; sarrerak online daude salgai

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Zapatuan aurkeztu zuten 2022ko Arabako Bertsolari Txapelketa, Laudion. XV. edizioa izango den honetan, 30 bertsolarik parte hartuko dute; horietatik zazpi aramaioarrak izango dira: Aitor Ugarte, Andere Arriolabengoa, Manex Agirre, Paula Amilburu, Peru Abarrategi, Xabi Igoa eta Danel Herrarte. Apirilaren 1ean hasiko da txapelketa eta ekainaren 11n amaituko da.

30 bertsolari

Txapelketaren egitura izango da: bost final-zortziren, hiru-final laurden, bi finalerdi eta finala jokatu dituzte. Final-zortzirenak Amurrio, Biasteri, Trebiñu, Legutio eta Langraizen izango dira; final-laurdenak, Dulantzi, Zigoitia eta Aramaion; finalerdiak, Araia eta Izarran; eta finala, Gasteizen.

Txapelketa apirilaren 1ean hasiko da, Amurrioko kultura etxean, 20:00etan; han izango da Paula Amilburu aramaioarra.

Taula gainera igoko diren beste bertsolariak izango dira: Aitor Najera, Eukene de los Aires, Iñaki Viñaspre, Unai Anda eta Xabier Antia. Nieves del Alamo Gil izango da aurkezlea.

Txapela jantzen badakite

Manex Agirre 2011n eta 2015ean txapeldun izandakoa da; txapel horiek "lekutan geratu dira", dio Agirrek. Gainera, 2021eko txapelketa berezian, binakakoan, txapela jantzi zuen bikotea Manex Agirrek eta Martin Abarrategik osatutakoa izan zen. "Binakakoa beste pelikula bat izan zen, banakakoak tentsioa handiagoa izango du", dio Agirrek. Aramaioke parte-hartzaile asko egoteak "taldean entrenatzeko

TXAPELKETAKO SAIOETARAKO SARRERAK, 'BERTSOSARRERAK. EUS'-EN SALGAI

beste giro bat" dakarrela dio. Abarrategik, aldiz, ez du txapelketan parte hartuko, ikasturte honetan zehar Aramaiotik kanpo dabilelako.

Sarrerak

Sarrerak bertsosarrerak.eus atarian eros daitezke, 3 euroren truke, eta bazkideek, berriz, 2 euroren truke.

Gaur, bertso saioa Sastiñan

Arabako txapelketarako entrenatzeko asmoz, hiru bertso saio antolatuta dituzte, eta Korrika Kulturalaren barruan sartu dituzte. Gaur, Paula Amilburuk, Xabi Igoak, Asier Galarza *Muxi*-k eta Aitor Estebanek kantatuko dute, 19:00etan, Sastiñan.

Abestuz hartuko dute Korrika eskolako umeeek eta nagusiek

Apirilaren 1ean, 'Herria kantuz' saioa eta Korrika Txikia egingo dituzte; bihar, mahai jolasak nerabeendako

A.E.G. GARAMAIO

Korrika Txikia apirilaren 1ean egingo dute. Eskolako umeeek Alaiak erretiratuen elkarteko abesbatzarekin batera *Herria kantuz* saioa egingo dute herriko kaleetan. Eguraldi ona bada, plazan hasiko dute saioa, eta goiko aldean abestuko dute ondoren. Alaiak erretiratuen elkarteko zuzendari Larraitz Arriolabengoa esan du Korrikako abestia, *Bagare* eta *Kanbon Palangak* kanona abestuko dituztela. 11:00etan hasiko dute saioa, eta, bazkalondoren,

14:30ean, Korrika Txikia egingo dute herriko kaleetan.

Horrez gain, Potx magoak ikuskizuna egingo du kultura etxean, 17:00etan; eta, Bat2tan taldeak erromeria egingo du plazan, 19:00etan.

Herriko gazteei zuzenduta, bihar, zapatua, mahai jolasak egingo dituzte Sastiñan, 17:00etan. 12 urtetik gorako nerabeendako saioa izango da. Tximista elkarteak gidatuta egingo dituzte mahai jolasak. Euskarazko mahai jolasekin trebatzeko aukera izango dute nerabeek.

Sagardotegira irteera antolatu du Orixol mendizale elkarteak

Mendi ibilaldia eta sagardotegian bazkaria antolatu du Orixolek apirilaren 2rako, zapatua. Asmoa da Pasaiatik Donostiara oinez joatea eta ondoren Hernaniko Otsua-enea sagardotegian bazkaltzea. Ibilbideak 8,35 kilometro izango ditu, eta 325 metroko desnibela. Edukiera mugatua egongo denez, ezinbestekoa izango da lekua erreserbatzea. Horretarako, transferentzia egin 3035 0161 28 161100 5178 kontu korrontera, eta ondoren mezua idatzi orixolme@hotmail.com helbidera izen-abizenekin eta transferentziaren ordainagiria-ekin. Prezioa da -sagardotegia eta autobusa-: bazkideek 55 euro eta ez-bazkideek 60 euro.

Apirilaren 7ra arte eska daitezke kultur eta kirol laguntzak

Publikatu dute kultura, kirol eta gizarte arloetako dirulaguntzen deialdia. Eskaerak egin nahi dituztenek apirilaren 7ra arte izango dute horretarako. Oinarriak osorik ikus daitezke Aramaioke Udalaren webgunean.

Horrez gain, auzoetako jaiak antolatu eta egiteko dirulaguntzak ere onartu dituzte dagokieneko. Jaien kasuan, bi epe zehaztu dituzte eskaerak egiteko: ekainaren 1era arte eta irailaren 1era arte. Eskatzaile bakoitzak erabakiko du noiz egin nahi duen eskaera. 13.500 euro dituzte laguntzetan emateko, eta helburua auzoetako jaiak eta erromeriak antolatuzko laguntzak ematea da.

Bandalismoa kiroldegian

Joan den igande arratsaldean, kiroldegira sartu ziren ezezagun batzuk eta han zeuden su-itxalgailuak hustu zituzten. Ondorioz, kiroldegia itxi behar izan zuten. Azkenaldiko apurketen harira, Udalak erabaki du 2007ko, 2008ko eta 2009ko mutikoen gurasoekin bilera bat egitea, horien jokabideak aztertzeke; eta, badagokio, neurriak zorrotzeko.



ARAMAIOKE UDALA



Spotean parte hartu duten nerabeak: Caballero, Astola, Urrutia, Urkia eta Hernandez. BERDINTASUN SAILA

Nerabeek ezetz esan diote indarkeria matxistari

Spota egin du Udaleko Berdintasun Sailak herriko bost gaztearekin, hainbat egoera agerian uzteko eta laguntza non eskatu zabalteko; nerabeen eta gazteen artean gertatzen den indarkeria matxistaren aurkako protokoloaren baitako ekintza da

Mirari Altube ARETXABALETA

Nerabeen eta gazteen artean gertatzen den indarkeria matxistaren aurkako protokoloa argitaratu zuen iaz Udalak, herriko hainbat eragilerekin lanketa egin ostean. Horren bueltan, spota atera du orain herriko hainbat gaztearekin parte-hartzearekin.

Eragileak trebatzen

2021eko urrian aurkeztu zuen Berdintasun Sailak protokoloa, Atsegin Odriozola Iribar teknikariak azaldutako legez: "Hainbat egoera ikusita eta herriko zenbait eragilek horren beharra atzemanda egin zen. Gaiaren gaineko trebakuntza jaso zuten eragileek, lehenengo, eta ondo-

ren, protokoloa adostu zen". Orain, bideoa egin dute: "Herrian zabalteko egin da; halako egoerarik bizi izanez gero nora jo dezaketen adierazteko".

Berdintasun hainbat arlotan lantzen dela gaur egun uste du Odriozolak, baina oraindik badagoela zeregina: "Indarkeria mota batzuk sutilagoak dira eta

horrek lanketa baten beharra dakar. Horregatik trebatu dira herriko hainbat eragile, egoera horiek identifikatu ahal izateko eta ahal den ondoen laguntzeko". Hezkuntza ez-formalean diharduten eragileak dira; UDAko begiraleak eta gaztelekukoak, besteak beste.

Berdintasun Sailatik nerabeei baliabideak eman gura dizkiete indarkeria matxista saihestu ahal izateko, baina onartu du abiapuntuan daudela. "Hurrengo pausoak zeintzuk izango diren aztertzen ari gara, non jarri gure indarrak erabakitzeko. Eragileekin abiatutako lanketari jarraipena egitea da asmoa".

Gaztearen parte-hartzea

Ion Ander Urrutiak, Maddi Urkiak, Izaro Hernandezek, Aine Caballerok eta Uxue Astolak hartu dute parte Berdintasun Sailatik bideratutako spotean, eta Odriozolak balioa eman dio horien parte-hartzeari: "Gazteak dira, askotan, indarkeria jasaten dutenak, eta identifikatuta senti daitezke horrela". Gaztelekuko begiraleek animatu zituzten, eta zalantzarik gabe eman zutela baiezkota adierazi dute DBHko lagarren mailako gaztearekin: "Herritarren parte-hartzea aproposa iruditu zaigu, gaiari garrantzi handiagoa ematen zaiolako horrela eta mezuaren zabalkundea errazten duelako". Era berean, indarkeria matxistaren aurkako protokoloa

eskolatik kanpo lantzea garrantzitsua iruditu zaie; aisialdiari eskainitako espazioetan, esaterako. "Eraso matxistak ugariak direla gazteen artean uste dugu, gaur egun saltzen diguten maitasun erromantikoaren eraginez oso normalizatuta daudelako. Eta normalizazio hori oso arriskutsua izan daiteke. Horregatik, spotean adierazten diren egoerak detektatzea garrantzitsua da, baita gazteok jakitea ere halakoak jasanez gero laguntzeko prest dauden hainbat erakunde daudela; horien artean daude gaztelekua eta UDA".

Laguntza eskatzeko bideak

Spotean adierazitako egoeraren baten aurrean egonez gero edo inguruan halakoren bat ikusiz gero laguntza eskatzea gomendatu du gazte kuadrilla horrek: "Jakín ez zaudetela bakarrik eta beldurra alde batera utzi behar dugula. Guztion artean halako kasuak bukatzea lortuko dugu". Laguntza eskatzeko bideak ere adierazi dituzte spotean; hona hemen hainbat telefono zenbaki: 116 111 -adingabeendako- eta 900 84 01 11 -tratu txarren biktimen diren emakumeendako-.

"EZ ZAUDETE BAKARRIK; GUZTION ARTEAN HALAKO KASUAK BUKATZEA LORTUKO DUGU"

Udaberriko jolas parkearen nondik norakoak zehaztu dituzte

Apirilaren 11n eta 12an egingo dute, Ibarra kiroldegian, eta 3 eta 12 urte arteko bideratuta egongo da

M.A. ARETXABALETA

Urte hasieran neska-mutikokodako antolatutako Gabonetako parkerik ez da egin aurten, COVID-19aren eraginagatik. Orduan bertan behera utzi zena orain dator: apirilaren 11n eta 12an, hain zuzen ere, Aste Santuko oporren atarian; ekintza mordoia izango dituzte Ibarra kiroldegian.

Goizez eta arratsaldez

Jolas parkea 3 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei bideratu diete, eta, besteak beste, honako



Hainbat ume jolaserako zain. M.A.

hauek izango dituzte: puzgarriak, ohe elastikoak, jolasak, tailerrak eta Xbox jolas digitalak. Parkearen ateak goizez -11:00-13:00- eta arratsaldez -17:00-20:00- zabalduko dituzte.

Prezioei dagokienez, eguneko sarrerak sei eurotan eskainiko dituzte; bi eguneko bonuek, ostera, hamar euroko prezioa izango dute. Hirugarren seme-alabek debalde sartu ahal izango dute, betiere, familia ugariaren txartela aurkeztuta.

Begirale bila

Jolas parkean zaintza lanak egiteko hamahiru begirale behar dituzte, eta izena emateko epea gaur, martxoaren 25a, bukatuko da. Curriculumak udaletxean utzi behar dira, edo helbide honetara bidali: gazteria@aretxabaleta.eus.

OHARRAK

Ezohiko ordutegia kiroldegian bihar

Fun Dantz jaialdia dela eta, bihar, zapatua, honako ordutegi hau izango du Ibarra kiroldegia: 08:30-18:00. Ez dute eguerdiko geldiuenerik egingo eta 18:00etan bertan behera geratuko dira jarduerak guztiak.

Errigoraren udaberriko kanpaina, bukatzean

Loramendi elkartetik jakinarazi dute martxoaren 30ean bukatuko dela Errigorako otarrak eskatzeko epea: errigora.eus. Gainera, hainbat produktu agortzen hasi dira.

Aldundiaren udalekuetarako izen-ematea

7 eta 13 urte bitarteko udalekuak antolatu dituzte aldundiek eta 14 eta 17 artekoendako Gazte Oporraldiak. Izena emateko epea martxoaren 29an bukatuko da: gipuzkoangazte.eus-en edo udaletxean -astelehen eta eguaztenetan-.

'Keinu bidezko komunikazioa' hitzaldia

Umeen keinu hizkuntzaren gainean argibideak emango ditu Nahia Alkorta adituak, Kuku Mikuk gonbidatuta. Apirilaren 6an izango da, 17:30ean, elkartean egoitza. Aurretik eman behar da izena: kukumikuelkarte@gmail.com.

'Flow'-z betetako koreografiak Ibarra

Hemeretzi dantza-talde arituko dira zapatuan Ibarra kiroldegian egingo den Fun Dantz dantza urbanoen jaialdian. 18:30ean hasiko da ikuskizuna, eta irabazleek Barakaldon egingo den BreakOnStage jaialdian parte hartzeko aukera izango dute

Imanol Beloki ARETXABALETA

2021eko etenaldiaren ondoren, Fun Dantz dantza urbanoen jaialdia Aretxabaletara itzuliko da. Martxoaren 26an, zapatu honetan, ospatuko da, Ibarra kiroldegian, eta kantxan muntatuko duten eszenatokian dantzari apartak batuko dira, beraien ezagutzak eta erritmo, pauso eta koreografia landuak eskaintzeko. Lehiaketa formatuan, bi kategoriatan banatuko da: absolutua, 16 urtetik gorakoentzat; eta juniorra, 15 urtetik beherakoentzat. Talde bakoitzak gehienez hiru minutuko koreografia bat aurkeztuko du, eta irabazleek BreakOnStage jaialdian parte hartzeko aukera izango dute.



2019an egindako Fun Dantz jaialdian, talde bat dantzan. GOIENA

Hemeretzi talde, guztira

Hemeretzi talde izango dira, guztira, lehiaketan parte hartzen. Bamboo (Donostia), Breathless (Iruñea), The Factory (Bilbo), Muses (Gasteiz), D 'Flow (Atarrabia) eta Bergarako Camden Town akademiako hiru ordezkari kiroldegian bilduko diren talde aipagarrien artean daude. Horietatik hamalau maila absolutuan eta gainerako bostak, juniorretan.

Hori horrela, publikoak dantza urbanoen estilo ezberdinez gozatu ahal izango du, gehienez

hiru minutuko iraupena izango duten koreografiaren bitartez. Irabazleek, dirua eramateaz gain, maiatzaren 21ean Barakaldoko hainbat agertokitan egingo den BreakOnStage jaialdian parte hartzeko aukera izango dute.

Erakusleihu aparta

Fun Dantz ekimenaren lehen edizioa 2014an izan zen, BreakOnStage Hiri Kulturen Nazioarteko Jaialdiaren eta Aretxabaletako Udalaren arteko lankidetzaren ondorioz. Beraz, Euskal Herriko dantza urbanoen

talde onenen erakusleihu bihurtuko da Ibarra kiroldegia zapatuan. Edizio honetan, gainera, epaimahaia dantza urbano eta garaikideko hiru adituk osatuko dute: Alberto Pardok (Allstyle), Sarak (Vogue, *dance hall*-a) eta Carminak (hip-hop), eta jaialdiari irekiera emateko hiru dantzatuko dute.

Ikuskizuna 18:30ean hasiko da eta 70 minutu iraungo du. Sarrerak bost eurotan salgai daude, eta Arkupen eta *Aretxabaleta.eus* webgunean erosi daitezke.

Solasaldia izango da herriko hainbat txirrindularirekin

Martxoaren 31n, Dagda tabernan batuko dira gonbidatuak, Lekaixokakoen galderei erantzungo diete

I.B. ARETXABALETA

UDaren 75. urteurrenaren bueltan antolatutako hitzaldi-solasaldiei ekingo diete. Lekaixoka bertso eskolakoak gai-jartzaile lanetan jardungo dute eta haien galderei erantzungo diete herriko hainbat txirrindularik; hain zuzen ere, Ainhize Barrainkuak, Xubane Garaik, Garazi Estebezek eta Markel Uriartek. Hitzordua martxoaren 31n izango da, 19:00etan, Dagda tabernan.



Ainhize Barrainkua mahai-inguruan. I.B.

Galderak, bertsotan

Lekaixoka bertso eskolako Mikel Mendiartz eta Ramon Iturricastillo izango dira solasaldia gidatuko dutenak, eta hitzordu berezia izango dela adierazi dute. Izan ere, bertsotan egingo dizkiete galderak gonbidatuei. "Saioa hasteko, gonbidatuak aurkeztuko ditugu Iturricastillok eta biok, puntuka. Ondoren, txirrin-

dulari bakoitzari galdera pertsonal bat egingo diogu, eta gero, kirolaren gaieko beste hainbat galdera botako ditugu airera. Amaitzeko, esaten dituztenak oinarri, ondorioak aterako ditugu, eta bertsotan agurtu", adierazi du Mikel Mendiartzek.

Hogei esku-aldaketa izango ditu Korrikaren lekukoak

Korrikaren hasiera gero eta gertuago dago eta lekukoaren etorrera gertatzeko lanak ere aurrera doaz. Aretxabaletara apirilaren lehen iritsiko da; Arrasateko biribilgunetik sartuko da, hain zuzen ere, 13:36 bueltan, eta 13:49an irten Ederlan lantegi parean. Bi kilometro egingo ditu herrian, 249 eta 250. kilometroak, eta hogei elkartek,

ikastetxek, enpresak eta erakundeak hartuko dute lekuko hori. Horietako batzuek edizio guztietan hartu izan dute, hala nola Udalak eta ikastetxeek. Beste batzuk, ostera, estreinatuko dira; herriko gastronomia elkarteek, esaterako, kilometro bat eskuratu dute guztien artean.

Egun horren aurretik, bihar, mendi irteera egingo dute Murugainera; 09:30ean abiatuko dira, Herriko Plazatik. Korrika Kulturalako ekintza guztien berri 25. orrian dago.



RPS: 83/19



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

Euskara ahotik ahora transmititzeko lanean

Auzoko eta Barriketan egitasmoak indartzeko taldekide bila dabilta; euskaratik hurbil zein urrun bizi diren herrikideak animatu gura dituzte, hizkuntzaren ezagutza edozein izanda ere, helburua elkar ezagutzea eta euskaraz jardutea da eta

Mirari Altube ARETXABALETA

Ibilbide luzea dute Loramendi elkarteak –Udalaren babesarekin– sustatutako Auzoko eta Barriketan egitasmoek, eta orain, taldeak indartzea da asmoa. Miren Igartua Eskibelek hartu berri du horiek dinamizatzeko ardura eta aretxabaletarrei egitasmo horien berri eman gura die, izena ematera animatzeko.

la 25 lagun Auzokon

"Bi egitasmoen helburua da euskaratik urrun bizi direnek eta hurbil bizi diren lagunek espazio bat elkarbanatzea, elkarren berri izateko eta euskaraz jarduteko", azaldu du Igartuak. Auzokoren bueltan bi talde daude martxan, eta, guztira, 24 bat kide elkartzen dira. Talde "malgua" da eta beti ditu atek zabalik, norberak gura eta ahal duenean gerturatzen. "Aretxabaletan bertan hizkuntza asko daude eta Auzokok egiten duena da, horien aberastasuna aitortuta, euskara ardatz jarri komunikaziorako eta kohesiorako hizkuntza izan dadin", dio dinamizatzaileak. Hala, eguneroan gehien erabiliko dituzten berbak jasotzen dituzte modu dinamikoan eta jolasak erabiliz.

Barriketani dagokionez, bost talde daude abian, bakoitza hiru edo lau lagunekin osatuta: "Asko euskaltegitik pasatutakoak izaten dira eta badute euskararen ezagutza, baina ez dutelako no-rekin hitz egin datoz. Kasu honetan, gainera, herritarrek gidatzen dute egitasmoa".

Apirilean, sukaldaritzan

Euskara ardatz izanik elkar ezagutza sustatzea ere badu helburuen artean Auzokok. Horregatik, herriko eragileekin eta herritarrekin batera lantzen diren ekintzak antolatuko dituzte. Apirilean, esaterako, sukaldaritzaren bueltan jardungo dute karapaixoaren eta rama-



Auzoko talde bateko kideak lanean. MIREN IGARTUA

danaren ohiturak mahai gainera ekarrita. Maiatzean dantza izango dute langai eta ekainean kirola hartuko dute ardatz: "Hiztegia landuko dugu lehenengo, eta gero, horren bueltako ekintzaren bat antolatzea da asmoa".

Taldeak indartzeko, euskaratik urrun daudenak zein hurbil bizi direnak gura dituzte. Horretarako, Loramendira jo daiteke; hona hemen: 943 77 09 70 edo 645 70 88 63 eta auzoko@loramendielkartea.eus.

"Harritu egin nau ikasteko bizkortasunak"


MIREN IGARTUA ESKIBEL
DINAMIZATZAILEA

Otsaila ezkerer dihardu Miren Igartuak Auzoko eta Barriketan egitasmoak –azken hori, herritarrekin batera– dinamizatzen.

Zure lehen pausoak zelakoak izan dira?

Oso erakargarriak eta politik. Izan ere, interes handia ikusi dut egitasmo batean zein bestean euskara ikasteko eta komunikatzeko.

Euskara zaila dela entzun izan da sarritan.



MIREN IGARTUA

Bada, nik esango dizut benetan harriruta nagoela ikusita zein azkartasunarekin eskuratzen duten. Ez pentsa, gainera, adin kontua denik, askotariko adinetakoak daudelako taldeetan.

Taldekideak askotarikoak dira, gainera.

Bai; iruditzen zait norberaren herriatik irten barik bidaiatzeko aukera dudala. Izan ere, bizipenak kontatzen dira, pasarte eta anekdota bitxiak...

"Nik sortu ditut kantak, eta oso pertsonalak dira, oso neureak"

MIKEL ZAMORA ABESLARIA

Herrikideen aurrean emango du lehen kontzertua gaur

M.A. ARETXABALETA

Musikari aretxabaletarrak *Mikel Zamora PR* disko laburra aurkeztuko du gaur, egubakoitza, Arkupen (20:30). Atzo, oraindik bazeuden sarrera batzuk; horiek Arkupeko leihatilan eskura daitezke, edo online, aretxabaleta.eus webgunean.

Gogotsu edo urduri kontzerturako?

Gogo handiarekin, baina urduri ere bai, nire lehenengo kontzertua delako neure kantak aurkezteko. Eta gainera, herrian bertan; hortaz, erantzukizun handia dut.

Eskarmentu handiko musikariek egingo dizute lagun.

Bai; Raul Vera diskoaren ekoizlea etorriko da, batetik, eta, bestetik, Gasteizko ikastetxeke neure irakasleak batu dira proiektura. Niretzako luxua da halako eskarmentua duten bost musikarirekin jardutea ohotzian.

Orain arte egindako ibilbidearekin gustura zaude?

Bai; pozik jendearengandik jasotako erantzunarekin. Bi bideo klip atera ditut, eta orain, zuzenekoak ematen hastea da nire nahia, publikoaren erantzuna bertatik bertara ezagutzeko; hortaz, ea aukera dudan abiatuko dudan bide honetatik jarraitzeko.

Disko laburra da argitaratu duzuna.

Bai; bost abesti ditu. Hortaz, horiek abestuko ditut kontzertuan, eta gainerakoak bertsioak izango dira.

Diskoak abesti guztiak zeuk sortutakoak dira?



Mikel Zamora. MIKEL ZAMORA

Bai, musika zein letrak sortu ditut neuk. Eta gero, instrumentuendako moldaketak Raul Verak egin ditu, aberastu egin ditu. **Hortaz, disko oso pertsonala da, eta emanaldia ere hala izango da.** Bai, kanta oso neureak dira, neure bizipenak, fantasiak eta desioak jaso ditut horietan.

Zelan animatuko zenituzke herrikideak kontzertura joan daitezen?

Musikariak oso onak dira; hortaz, horregatik bakarrik merezi du. Pop eta rock doinuak izango dira nagusi, eta neure kantuekin batera euskal kanta batzuk eta beste hainbat oso ezagunak eskainiko ditut; Zarama eta Los Piratas taldeenak, esaterako. Neure gustuko musika da, noski, baina nik uste dut entzuteko oso atsegina dela, edozein adinetarako egokia. Aretoa ia beteta egongo da, eta hori jakinda bakarrik pozik nago.

Hitzaldia eta zaindariaren eguna Basotxoren eskutik

Osasun egoeraren eraginez geldi egon ostean, Basotxo erretiratuaren elkarteak ekin dio ohiko jardunari, eta lehenengo hitzaldia antolatuta du datorren egunerako, martxoak 31. *Automedikazioa eta paziente bizia* izenburupean, hainbat gairen gainean egingo die berba Clemente Domingo erizainak, Basotxon bertan (17:00).

Bestetik, martxoaren 1ean atzeratu beharrean izan ziren Aingeru Guardakoa zaindariaren eguna ospatzeko data jarri dute: apirilaren 6an izango da, eguaztena.

Eguerdi partean salda eskainiko dute elkarteko tabernan, eta bazkaltzera Taberna Berri jatetxera joango dira. Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago –preziosa, 37 euro–; horretarako, Basotxotik pasatu behar da astelehenetik egubakoitzera bitartean (11:00-12:00).



Martitzenean martxoko ohiko osoko bilkuran batu ziren Eskoriatzako udalbatzako kideak. IMANOL BELOKI

Bide berdeak sustatzeko atxikimendua, onartuta

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolamendu Departamentutik bidalitako bide berdeen garapen turistiko eta tokikoa sustatzeko babes-eskaera aho batez onartu zuten Eskoriatzako udalbatzako kideek martxoko ohiko osoko bilkuran

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Martitzenean egindako martxoko ohiko osoko bilkuran, Gipuzkoako bide berdeen garapen turistiko eta tokikoa sustatzeko eta garatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektua izan zuten berbaei Eskoriatzako udalbatzako kideek.

Ibilbidea berreskuratuz

Leitzarán-Plazaola bide berdean, Urola bide berdean eta Vasco-Navarro bide berdean egin nahi dituzte ekintzak, eta azken horretan, proiektuaren helburua da Eskoriatza eta Arabako muga arteko Euskadi-Nafarroa zaharraren ibilbidea berreskuratzea. Hala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolamendu Departamentutik proiektuaren atxikimendua eskatu diote Eskoriatzako Udalerriari, beste hainbat udalerriri moduan. Aho batez onartu zen proiektua babestea, nahiz eta EH Bilduko ordezkariak txos-

tena gazteleraz aurkeztu izanagatik desadostasuna agertu zuten.

Proposamenarekin adostasuna

Gai zerrendaren nondik norakoak azaltzeko, Eskoriatzako alkateak hartu zuen hitza, eta honako hau azaldu zuen. "Aldundiak ikuspegi turistikotik garatu nahi du Vasco-Navarro bidea, beste bi bideekin batera, eta Europatik datozen dirulaguntzez baliatuta garatu nahi dute. Hala, bide horiek zeharkatzen dituzten herriko udal guztiei babesa agertzeko eskatu digute; gure atxikimendurekin eskaera sendotzeko. Onartzen bada, hiru urteko epea egongo litzateke proiektua garatzeko", adierazi

HELBURUA DA ESKORIATZA ETA ARABA ARTEKO IBILBIDEA BERRESKURATZEA

zuen Joserra Zubizarretak, Eskoriatzako alkateak.

Txostena, gazteleraz

EH Bilduk begi onez ikusi zuen Aldundiaren eskaera, baina kexa ere izan zuten. "Batzordean, proiektuarekiko gure adostasuna agertu genuen, eta atxikimendua emango diogu. Hala ere, atxikimendua euskaraz eta gazteleraz aurkeztu dute, baina txostena gazteleraz soilik dago, eta horrekin ez gaude ados. Kontuan hartuta Gipuzkoako Diputatitaziotik bidalita dagoela eta zenbait udaletara bidali dutela. Hemen bi hizkuntza ofizial ditugu, eta ez dugu egoki ikusten erdaraz bakarrik bidaltzea. Ez dugu uste Espainiako Ministeriorako edo Europako dirulaguntza bat eskatzeko txostena izan daitekeenik. Hala ere, oso interesgarria iruditzen zaigu proiektua, baina hizkuntzarena azpimarratu nahiko genuke", adierazi zuen Eluska Irazuk, EH Bilduko bozeramaileak.

NIRE USTEZ

ITSASO ERRARTE

Kale-zulotik

Botatzen dut faltan kale-zuloetako ke ilun beroa, musika gordina, zakarra, zikina, kiratsua, ustel usain lainoa... Kaleko emakume behartsu eta zapaltzaileen soinua: *pank, pank*. Sorgin irrintzi eta katu marrumak. Amaraunak astindu, hautsak harrotu. Gogoak ematen diguna egin, nahi dugun hori izan. Nigatik, zugatik, higatik, gugatik... Txirula baten antzinako doinutik arratoi, mamorro, har, arkakuso... oro, trikitixa dantzan. Ja, ja. Mariren kobazulotik entzungo diren burrunbak. Amorru, haserre eta gose aieneak. Gure amen zuloetatik mundu berri honetako zulo guztietaraino, izarrak piztu eta eguzki-ilargi kosmosa kantuan: urdin, beltz, txuri, hori, laranja, arrosa... *Taup-taup*, taupada urduriak gure bihotzetan. Listua dariela, txikle-bonba leherketen ezlandak, ezpain lizun gorri-goxo leun azukreztatuetan. Gorroto beroaren eta maitasun eztiaren zapore likatsua. Sorgin erratzak dantzan, begiak bor-bor, sasi-zulo guztien gainetik, laino zuri guztien azpitik guztiok airean hegan. Hegan, beti beti... hegan.



ESKORIATZAKO UDALTZAINGOA

Bolibarko errepidea oztopatzen

Martitzenean izandako haizeteen ondorioz, bi pinu erori ziren Bolibar elizatera doan bideko errepidean, GI-3344ko bigarren kilometroan. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiari abisua pasa, eta errepidea oztopatzen zuten zuhaitzak kendu zituzten. Bide alternatiboak ere badaude elizatera igotzeko, eta, beraz, zuhaitzek ez zuten arazo handirik eragin.

Landa-auzoetako auzo-elkarteentzako dirulaguntzak

Eskoriatzako landa-auzoetako jarduera soziokulturala eta ekonomikoa dinamizatzeko laguntzak arautzen eta deitzen dituzte asteon Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Oinarri hauen helburua da Eskoriatzako landa-auzoetako auzo-elkarteei Eskoriatzako landa-bizitza garatzen edota mantentzen lagunduko

duten jarduera soziokulturalak eta ekonomikoak antolatzen dirulaguntzak banakako ebaluazioan emateko prozedura arautzea.

Aurrekontu-esleipena zazpi mila eta bostehun eurokoa da, eta elizateetako eta landa auzoetako biztanleek osatutako irabazi asmorik gabeko elkarrekin egin ahal dute eskaera, betiere, egoitza eta jarduera esparrua Eskoriatzako landa-gunean baldin badute eta eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

"Espazioaren arabera jolastea gustatzen zait"

MAIALEN GALLASTEGI ARTISTA

Askotariko teknikak uztartu arren, akuarela, tinta eta marrazkia lantzen ditu, batez ere, eskoriatzarrak. Gorputzak marrazten ditu, gehienbat, elkarren arteko tentsioak sortuz

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA
Maialen Gallastegi 23 urteko Eskoriatzako artista gaztea *Maialange* ezizenez ezaguna da, eta hainbat teknika uztartzen ditu bere lanetan. Arte Ederrak ikasi zituen Bilbon, eta, pinturaren masterra ere eginda, zenbait proiektutan aritu da, bere ibilbide artistikoari hasiera emanez; egindako lanen erakusketak jarri izan ditu, eta urrats berriak egiteko gertu dago.

Zein teknika erabiltzen dituzu zure lanak gauzatzeko?

Akuarela, tinta eta marrazkia lantzen ditut, batez ere. Hala ere, espazioaren arabera jolastea gustatzen zait. Leku handi batean horma zuri handi bat badut margotzeko, lasaiago aritzen naiz, eta hainbat teknika landu ditzaket. Eskulturak ere egiten ditut... Espazioaren arabera lan egiteko modua asko aldatzen da.

Beraz, ezinbestekoa da lanleku gisa espazio bat izatea?



Maialen Gallastegi artista eskoriatzarra. ALAN NICKEL

Estudio batean egon naiz denbora batez, eta orain, etxean egiten dut lan. Etxean atsedena eta lana nahasten dituzu, eta banatu beharra dagoela uste dut. Hala ere, asko disfrutatzen dut, etxea leku intimoa delako, baina estudioan beste artista batzuekin zaude, eta beharrezkoa da egiten duzuna erakustea eta zuk besteen lana ezagutzea. **Zure lanak detaile askorekin osatuta daude, ezta?**

Pinturatik marrazkira eta hortik letrara egin dut bidea. Letra batek paisaia bat irudikatu dezake; esan daiteke marraztuz idazten dudala. Hau da, batez ere, gorputzak marrazten ditut, gorputzen arteko tentsioak eta horien arteko istorioak sortuz edo irudikatuz. Horrekin batera, letrekin ere jolasten naiz. Alfabetoko letrekiko interesa piztu zitzaidan, eta bide horri jarraituz aritu naiz. Esaterako, konturatu nintzen m letraren mugimendua dutela abiapuntu nire lanek, eta m letraren mugimendua olatu bat izan daitekeela...

Zein proiektu egin dituzu orain arte?

Bernarda Beñat G. Garcia artista donostiarra eta biok beka bat eskuratu genuen iaz, eta BilboArten proiektu bat gauzatu genuen urtarriletik ekainera bitartean. Horrekin batera, pinturako masterra egiten ari ginen bitartean erakusketak ere egin ditugu... Elkar ezagu-

tu genuenetik, elkarrekin ari gara lan egiten.

Aurrera begira, zer egingo duzu?
Getxoko eskola batean hasiko naiz proiektu bat lantzen. Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako hurrei saio batzuk emango dizkiet, eta argitalpen bat aterako dut. Gero, deialdietara ere aurkeztuko naiz, erakusketaren bat ere egingo dut, eta orain arte egindako lan guztia batzen duen argitalpena ere egin nahiko nuke. Proiektu asko ditut esku artean, baina dena airean dago.

Bilbon izan dira zure lanak ikusgai. Eskoriatzan, berriz, noiz izango da zure lanak ikusteko aukera?

Gustatuko litzaidake Eskoriatzan erakusketa bat egitea. Hala ere, arraroa izan daiteke, eta beldur pixka bat ere ematen dit. Hirietan, Bilbon, esaterako, arte eremua nahiko piztuta dago, eta herrietan gertatzen da ez dagoela hainbesteko interesik edo ez dela artea ulertzen. Herrietarrek dituzten erreakzioak ikusteko, gustatu litzaidake erakusketa egitea, baina Eskoriatzan eta gure inguruan arte espazioak falta direla esango nuke, era berean.

"BEHARREZKOA DA EGITEN DUZUNA ERAKUSTEA ETA ZUK BESTEEN LANA EZAGUTZEA"

Antzerki inprobisatuaren zutabe nagusiak deskubritzen

DAP antzerki plataformak antolatuta, Egoitz Aizpuru oñatiarrak eskainiko du saioa, zapatuan, kultura etxean

I.B. ESKORIATZA

Debagoieneko Antzerki Plataformak antolatuta, antzerki inprobisatuaren gaineko formakuntza saioa izango da zapatuan, kultura etxean. Antzerki ariketen eta jolasen bidez, bat-bateko antzerkigintzako oinarriak jasotzea du tailerrak helburu, eta 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Saioa gidatzen Egoitz Aizpuru oñatiarra arituko da eta sei orduko hastapeneko ikastaroa izango da.

10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara bitartean

izango da ikastaroa, eta egingo dituztenak aurreratu ditu Aizpuru: "Osatu da taldetxoa, baina azken unera arte aukera dago izena emateko. Antzerki inprobisatua gidoia falta zaion antzerkia da. Hala, jolasen bidez, ikasleari prestakuntza bat ematen zaio, amaieran eszena batzuk egin ahal izateko. Horretarako beharrezkoak direla pentsatzen dudana ezaugarri batzuk lantzen dira: taldearekiko konfiantza, proposamenen onarpena, entzuketara aktiboa, norbere proposamenen konfiantza... Inpro-



Egoitz Aizpuru, oholtza gainean, saio batean. EGOITZ AIZPURU

bisatua denez, ez dago denborarik ezer zuzentzeko; beraz, datorrenarekin eraiki behar da. Gainera, antzerki inprobisatuko erremintak testuko antzerkirako baliagarriak dira, eta alderantziz".


Izena emateko aukera dago oraindik, eta horretarako dantzerkiplat@gmail.com helbidera idatzi daiteke edo 634 45 03 55 zenbakira deitu. Informazio gehiago nahi duenak dap.eus helbidean bilatu dezake.

Jaiak antolatzeko lehenengo batzar irekia antolatu dute

Eskoriatzako Udalak zenbait bilera ireki antolatu ditu herriko jaiak, sanpedroak, antolatzeko. Atzo, kultura etxean batu ziren herriko hainbat elkarte, eragile, udal ordezkari eta norbanako jaiak buruz hitz egiteko eta programaziorako proposamenak mahai gainean jartzeko. Horrekin batera, gaur, egubakoitza, 17:00etan, haurren bilera egingo dute Tortolis ludotekan, LH-3 eta LH-6 adin tartekoei zuzenduta.

Domekarako, berriz, *Bada gaziok herrixa berpizteko garaixa ala?* lelopean, batzar irekia deitu du Eskoitzako Txosna Batzordeak. 18:00etan izango da batzarra, kultura etxean.

KORRIKA 22



Lekukoz lekuko, 32 kilometro korrika

Apirilaren 1ean zeharkatuko du eskualdea Korrikak. Bezperan hasiko da, Amurrion. 32 kilometroko ibilbidea, errekan gora; Oñati, Antzuola, Elgeta eta Aramaio ere batuko dira, haietako kaleetatik ez pasa arren

HITZEGON

Indartsu dator aurten Korrika

Osasun egoeraren ondorioz urtebete atzeratuta, euskararen alde lan egiten duten eragileek eta herritarrek ohi baino ilusio handiagoz jasoko dute 22. aldiz egingo den Korrika. Ekitaldia hasi eta hurrengo egunean bertan iritsiko da testigua bailarara



Hasier Larrea DEBAGOIENA

Sei egun baino ez dira geratzen 22. Korrika hasteko. Aurten, Araban, Amurrión, abiatuko da euskararen aldeko ekitaldi erraldoia, eta, Euskal Herriko zazpi probintziak zeharkatu ostean, Donostian emango diote amaiera, apirilaren 10ean. Hamaika egun, 2.000 kilometro baino gehiago, milaka parte hartzaile eta ilusio bakarra, euskarari hauspoa ematen jarraitzea. Bokazio horrekin sortu zuen Korrika AEK euskaltegiak, 1981ean, eta, 41 urte pasa diren arren, euskaldunengan irria pizten segitzen du ekitaldiak.

Bailarako herriak lehenengotakoak izango dira testigua jasotzen, Korrika hasi eta hurrengo eguerdian, 11:30 aldera, iritsiko baita hona; Osintxura, zehatz esanda.

Parte hartze handia

Guztira, 32 kilometroko ibilbidea egingo du Korrikak Debagoienan, lau orduan, gutxi gorabehera. Ohi baino bizkorrago igaroko da, beraz, Deba ibaiko urek egiten duten kontrako bidea jarraituko baitu itzulinguru handirik eman gabe. Ondorioz, ez da herri batzuetatik pasako, baina nabarmentzekoa da bailarako udalerrri guztiek hartuko dutela parte Korrikan, modu batera edo bestera (Ikus 26 eta 27. orriak).

Korrikaren Debagoieneko koordinatzaileak, Ikuska Lizarralde, adierazi du "eragile mordoak" eman dutela izena, eta, ondorioz, lanak izango dituztela kilometroak banatzeko orduan. Gehitu du aurtengoa berezia izango dela, "pasatakoak pasa eta gero" (Ikus 32. orria).

Bailarako ordutegia

Soraluzetik sartuko da apirilaren 1ean Korrika, Legutiora bidean.

EGUERDIAN ZEHAR

- **Bergara** izango da testigua jasoko duen lehen herria, 11:59an.
- **Arrasatera** iritsiko da ondoren, 12:57an.
- **Aretxabaletari** 13:43an egokituko zaio lekukoa eramatea.
- **Eskoriatzarrek** 13:56rako prest egon beharko dute.
- **Leintz Gatzagatik** Arabara joango da, azkenik.

Zuzeneko jarraipena

Goiena telebistak Korrikarekin lotutako lau saio ekoiztuko ditu. Lehenengoa, martxoaren 31n, 15:45ean, Amurriotik zuzenean; bigarrena, zuzenean baita ere, apirilaren 1ean, 11:15ean hasita, bailaran sartzen den unetik aurrera; egun berean, 22:00etan, eragileek lekukoa kilometro kilometro nola eraman duten ikusi ahalko da; eta azken saioa, Korrikaren azken egunean, Donostiatik zuzenean, apirilaren 10ean, 11:30ean hasita.

Goizper Group
Elkarlanean garatzen

**Goizper-en ere euskaraz!
Gora Korrika!**

22.korrika
HITZKIN
Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

Korrika Kulturalaren egitaraua

MARTXOAK 25

BERGARA

Euskal dantzak Moises Azpiazu dantza taldearen eskutik. *San Martin plazan, 18:30etan.*

ARAMAIO

Bertso saioa *Sastiñan, 19:00etan.*

ESKORIATZA

Arropa salmenta. *Fernando Eskoriatza plazan, 17:00etan.*

LEINTZ GATZAGA

Korrika txikia Bukaeran, txokolate-jana. *Gatz Museotik plazara, 18:00etan.*

MARTXOAK 26

ARRASATE, ARETXABALETA ETA ARAMAIO

Mendi irteera Murugainera. *Talde-argazkia tontorrean, 11:30etan.*

ARAMAIO

Mahai-jolasak 12 urtetik gorakoendako. *Sastiñan, 17:00etan.*

LEINTZ GATZAGA

Ipuin kontaketa Ixabel Agirresarobek. *Kultura etxea, 17:00etan.*
Kontzertua Arragoa eta Arrasate Musika folk taldeak. *Herriko Plazan, 18:30etan.*

MARTXOAK 27

ARAMAIO

Gorbeialdeko topaketa Bertsoa eta pilota. *Kiroldegian, 10:00etan hasita.*

OÑATI

Kontzertua Afrika Bibang. *Gaztelekuan, 12:30etan.*

ARETXABALETA

Haur antzerkia *Tomaxen abenturak. Arkupen, 17:00etan.*

MARTXOAK 29

ARETXABALETA

Hitzaldia Garabideko Hibil ikastarora etorritako kideena. *Arkupen, 18:30etan.*

MARTXOAK 30

BERGARA

Solasaldia *Ongi etorri gazte euskararen lurraldera. Arrano tabernan, 18:30etan.*

MARTXOAK 31

ESKORIATZA

Iñigo Beitiaren hitzaldia *Kulturaren eragina hizkuntzaren biziberritzean. Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

ARRASATE

Kalejira Herriko kultur eragileak: dantza taldeak, alboka, trikitia, txalaparta eta abar. *Erdigunean, 19:00etan.*



2019ko Herri Korrika Elgetan. GOIENA

BERGARA

Bergara Oinez Udalak eta Jardunek antolatuta. *10:00etan.*

Korrika Txikia Lehen Hezkuntzako ikasleak. *San Martin ikastetxetik San Martin plazara, 15:00etan.*
Erraldoien eta trikitilarien kalejira *18:30etan.*

APIRILAK 1

Korrika Txikia herri guztietan; Bergaran, Elgetan eta Leintz Gatzagan izan ezik.

ARRASATE

KORRIKArakea *Gaztetxean, 22:00etan.*

ARETXABALETA

Umeendako tailerrak, 17:00etan, Oihu taldearen kontzertua 18:00etan, eta Upeiderekin kalejira.

ARAMAIO

Herria Kantuz Eskolako umeak eta Alaiak erretiratuen abesbatza. *11:00etan.* **Potx magia ikuskizuna** *Kultura etxean, 17:00etan.* **Bat2tan** erromeria. *Plazan, 19:00etan.*

OÑATI

Gauargi erromeria *Foruen plazan, 16:30etan.*
Nerabeendako jolasak *Gaztelekuan, arratsaldean.*

ESKORIATZA

Buruhandiak *17:00etan.*
Trial erakustaldia *Gorosarri plazan, 18:00etan.*
Kontzertuak Talainak eta Ainhoaetalrene. Mokadu eta pintxoekin. *Plazan, 19:00etan.*
Seiurte taldea, *Inkernun, 22:30etan.*

ELGETA

Herri korrika Herrian zehar, *18:30etan.*

APIRILAK 2

OÑATI

Korrika bazkaria *gaztetxean, 14:30etan. 20:30etan, toki berean,* Broken Legacy, Letagin eta Calachea taldeen musika-emanaldiak.



LEINTZ GATZAGA

Bertso afaria Oihana Iguaran eta Maialen Akizu. *Toki Eder elkartearen, 21:00etan.*

APIRILAK 3

ESKORIATZA

Mendi irteera Atxorrotxera, gatzagarrekin batera, *10:00etan.*
Poesia errezitaldia Mikel Etxabururekin. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

OÑATI

Eresia antzezlanaren Santa Anan, *19:00etan.*

ARAMAIO

Laburbira, *kultura etxean, 19:00etan.*

APIRILAK 7

ARETXABALETA

Uhinak dokumentala, *Arkupen, 18:00etan.*

BERGARA

Kontzertua Lemak eta Errietan. *Seminarioko karpan, 20:30etan.*

APIRILAK 8

BERGARA

Bertso jaialdia *Seminarixoan, 22:00etan.*

OÑATI

Kontzertua Idoia Asurmendi, *gaztelekuan, 12:30etan.* Barra zabalik egongo da.



Sartu egingo dira Korrikan

Antzuolatik, Elgetatik, Oñatitik eta Aramaiotik ez da pasatuko aurtengo Korrika, baina lau herriak sartuko dira bertan: Bergaran, Elorregin eta Arabako mugan



Bergarako San Antonio kalean sartuko dira antzuolarrak. O.E.

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Amurriion martxoaren 31n hasi eta Donostian apirilaren 10ean bukatuko den aurtengo Korrika apirilaren 1etik pasako da Debagoienetik. Soralezetik helduko da Bergarara eta GI-627 errepideari jarraituz sartuko da Araban. Ibilbide horrek Korrika ofizialetik kanpo uzten ditu balarako lau herri: Oñati, Aramaio, Antzuola eta Elgeta. Korrika ez da herri horietatik pasako, baina herri horiek sartuko dira Korrikan.

Oñatin, Korrika propioa

Oñatin, esaterako, bertako Korrika egingo dute, ibilbide propioa izango du eta hori bukatzearekin batera sartuko dira gero Korrika ofizialean. Egunean bertan izango da hori, apirilaren 1ean. Korrika Txikia egingo dute lehendabizi, herri barruan, 10:30ean. Lehen Hezkuntzako herriko ikasleek hartuko dute parte hor, mailaka, ohiko ibilbidea eginez: Plazatik Etxaluzeraino Txantxiku Ikastolako ikasleek eramango dute, handik

Santa Marina plazaraino Elkar Hezikoeak eta handik plazarainoko tartean, Urgainekoeak. Horren segidan, 11:30ean, Elorregirako bidea hartuko du Oñatiko Korrikak, bidegorritik.

Lehendabiziko metroak hiru ikastetxeetako ikasleek eta irakasleek egingo dituzte, gainerako ikasleek ere Korrikan parte hartzeko, eta gero, eskuz esku pasako dute lekukoa Korrika diruz lagundu duten herriko eragileen artean. 12:30erako Elorregin izango dira eragile



Gipuzkoako azken kilometroa eta Arabako lehena, aramaioarrek. GOOGLE

| | | |
|---|--|--|
| <p>UGARTE ARROZTEGIA - ALTZARIAK</p> <p>Proiektuak · Koltxoiak Horma-Armairuak Altzariak neurria Ateak · Eskailerak · Leihoak · Tarimak · Egur lanak</p> | <p>ALTZARI DENDA Ikerleku zeharbidea Tel.: 943 03 46 30</p> <p>ARROZTEGIA San Juan 1a Tel.: 943 76 54 91</p> <p>BERGARA aroztegia@ugartearoztegia.com</p> | <p>22.korrika</p> <p>HITZ EKIN</p> <p>Amurriotik Donostiara 2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era</p> |
|---|--|--|

HITZ EKIN

ERREKA

ERREKAN euskara, eta EUSKARATik erreka!



Amillagako biribilgunera, gasolindegi ondora, jaitsiko dira elgetarrak. O.E.



Elorregin hartuko dute lekukoa Oñatiko ordezkariak. O.E.

horietako guztietako ordezkariak eta han sartuko dira Korrika ofizialaren barruan.

Oñatitik Elorregira bitartean dauden zazpi kilometroak bidegorritik egingo dituzte. Lekuko aldetak egiteko puntuak markatuta egongo dira alde aurretik, ondo adierazita, eta musikaz girotuta egingo dute ibilbide hori. Bidegorriak ez du zabaleira berbera distantzia horretan guztian, eta ezingo dute automobilerik erabili lekukoaren aurrean joateko. Baina, horren ordez, bi lagun bizikleta gainean joango dira, mikrofonoekin eta megafoniako karroa eramanez, Oñatiko Korrika propioa girotzeke, musikaz zein hitzez.

Ekiloreraino

Elorregiraino Korrika Txikian erabiltzen duten lekukoa eramango dute oñatiarrek, eta bailarako hiru herri handienak lotzen dituen biribilgune horretan hartuko dute Remigio Mendiburu eskultoreak egindako jatorrizko lekukoari Juan Gorriti artista nafarrak 1988ko Korrikarako egindako berria, haren moldaketa.

Lekukoa hartu eta Ekilore pareraino eramango dute oñatiarrek. Horretarako prest nortzuk dauden galdetu dute Oñatiko Korrika batzordean, eta proposamena da prest dauden eragile bakoitzeko ordezkari bana joatea kilometro horretan pankartaren aurretik Oñati ordezkatzeko, eta euren artean pasatzea lekukoa tarte horretan. Oraindik, baina, erabaki barik dute nortzuk eta zenbat izango diren lagun horiek. Izan ere, oraindik epea zabalik dago Korrika diruz lagundu gura duten eragileendako, ahalik eta gehien lortu gura dituzte eta.

Bergaran eta mugan

2015ean pasa zen azkenengoz Korrika Elgetatik. Kilometro bat erosi du Udalak, eta herritar guztiak gonbidatu ditu tarte horretan parte hartzera; gasolindegi ondoko biribilgunean hartuko dute lekukoa elgetarrek. Korrika Txikia egingo dute, bestalde, baina hurrengo astean izango da hori, apirilaren 8an.

Antzuolan ere Bergaran sartuko da. Aurreko edizioan ere

ez zen herritik pasatu, eta Aiherarra joan ziren orduan hainbat herritar autobusez zein autoz. Handik ere ez da pasako aurten, eta Bergarara joango dira, beraz, Korrikan parte hartzera; San Antonion hartuko dute lekukoa. 3.000 euro zituen Udalak gordeta euskararen aldeko ekimen honi laguntzeko, eta kopuru hori eman dio AEKri, herrian ez dute eta ezer antolatuko, ikastetxeek egingo duten Korrika Txikia salbu.

Antzerako egoeran daude Aramaion ere. Bi kilometro hartu dituzte aramaioarrek, eta Gipuzkoako azkena eta Arabako lehena egingo dituzte, 14:30a inguruan. Ordu berean egingo dute herrian Korrika Txikia.

Hurrengo, Gipuzkoatik

Bukatzen diren lurralde berean hasi ohi dira Korrikaren hurrengo edizioak. Irizpide berbera jarraituz gero, beraz, hurrengo, 2024koa, Gipuzkoatik hasiko da, Donostian bukatuko da eta oraingoa. Aurten pasako ez den Debagoieneko herri batetik, agian.



Mondragon Unibertsitatea Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Dorleta auzoa z.g. (Eskoriatza)

Otalora 31 (Aretxabaleta)

Tel. 943 71 41 57

harrera.huhezi@mondragon.edu

www.mondragon.edu

**Hezkuntzarekin,
komunikazioarekin,
kooperatibismoarekin,
euskararekin, HITZAREN
Korrikarekin!**

Norberaren herritik kanpora, Korrika

Bakoitzaren herrian korri egiteko aukera izan edo ez –lasterketa ez baita guztietatik pasatzen–, badira kuadrillak Euskal Herriko beste txoko batzuetara ere joan ohi direnak, Korrikaren aitzakian. Munduko hainbat hiritan ere antolatzen dira Korrikak

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE Bergarako Iosu Agirreren kuadrillak Nafarroa aldean egingo du asteburu-pasa, Korrika dela eta. Hurrengo zapatutik domekarako gauean hartuko dute lekukoa: "Korrika batzordean ari naiz, eta kuadrillan proposatu nuen ea hartuko ote genuen kilometro bat denon artean. Beste batek gehitu zuen ea zergatik ez genuen Iparraldean edo Nafarroako Erriberan-edo hartzen, haietan arazo handiagoak izaten direlako kilometro guztiak betetzeko, eta begi onez ikusi genuen. Asteburuan Korrika ze ingurutan ibiliko den begiratu, arduradunekin harremanetan

jarri, eta Lerindik sei kilometrorara eman digute kilometroa".

25 bat bergarar, beraz, landetxe bat hartu eta Tafalla aldera joango dira asteburu-pasa, handik Lodosara bidean korrika egiteko: "Rotten XIII taldearen kontzertua ere badago, gainera, eta aprobetxatuko dugu hura ere ikusteko".

Bartzelonan ere hurrengo zapatuan ospatuko dute Korrika, *Korricursa*. 30 lagun inguru ari dira antolaketan, Euskal Etxearen bueltan, eta, zortzi kilometroko ibilbidearekin batera, bazkaria, bingo musikatua eta kontzertuak antolatu dituzte. Amaia Anduaga oñatiarra ari

da saltsan: "Bazkarirako salgai jarri genituen 300 txartelak 30 minutuan saldu ziren, eta beste 50 ateratzeko aukera eman digute. Euskal komunitate oso handia dago Bartzelonan, eta denok batuko gara Korrikarako".


Anton Peña aramaioarra Londresen bizi da, eta han astebete geroago egingo dute Korrika. Petoak saldu eta Korrika Txiki bat egingo dute parke baten bueltan, eta pintxo-potea egingo dute ondoren; amaitzeko, parrandatxoa, hala nahi duenak: "Halako aukeren bila ibiltzen gara Euskal Etxetik, jendea elkartu ahal izateko; oso aitzakia polita da".



Korrika, Londresen. LONDRESKO EUSKAL ETXEA



Korrika, Bartzelonan. BARTZELONAKO EUSKAL ETXEA



aretxarte
MERKATARI ELKARTEA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKADERITZA ETA KONSUMO-SALA DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO


Aretxabaletako merkatariak

euskaraz,

gu ere Korrikaren alde!

æk

22.korrika





cenarro
cold forming specialists



Euskararen eta Korrikaren alde!

æk

22.korrika



Ibabe, Irazabal eta Garcia, aurrenekoaren bizitokian, Aretxabaletan. J.I.

Goienaren lekukoa, Goienakideen esku

Aretxabaletan izango du Goienak bere kilometroa, eta Goienakideek edukiko dute lekukoa eramateko ardura eta ohorea; kide gazteena eta zaharrena gonbidatu nahi izan ditu komunikazio taldeak, eta zozketa bidez erabakitakoa izango da hirugarrena

J.I. ARETXABALETA

"Gogotsu" daude Maria Jesus Ibabe, Ane Irazabal eta David Garcia, eguna noiz iritsi eta 22. Korrikaren lekukoa ondo goian eramateko zain. Goienakideak dira hirurak, eta eurei egokitu zaie Goienaren kilometroan – aurtengo edizioako 250.a– lekukoa eramatea.

"Oso pozik" jaso du gonbidapena Maria Jesus Ibabek. Gustura beteko du Goienak proposatu dion zeregina, euskaltzale orontzat hain seinalatua den ekimenean: "Euskaldunak garenez... Erdararik ez dakigu eta!".

Dio ekimen "oso polita" dela Korrika: "Gaztetxoagoa bantintz..."; takarraran egiteko batek jakin, baina irakurtzeko-eta zaletasuna badu Ibabek, eta hala heltzen die Goienaren argitalpenei ere: "Irakurtzea asko gustatzen zait, hemengo gauzez enteratzea; oso gustuko dut Goiena". Eta saritxoren bat ere egokitzen da tarteka: "Bai, zu, egia, adin honetan; baina sekula ez da berandu, ezta?". Ez horixe, Korrikaren lekukoa eramateak eragiten duen zirrara dastatzeko, ez.

David Garcari zozketa bidez egokitu zaio Korrikaren lekukoa eramateko aukera: "Ilusioz hartu nuen. Gogoz nago eguna ailegatu eta lekukoa eramateko".

Lanari tartetxoa ere kenduko dio, Goienaren izenean lekukoa eramatearren: "Aurten ez nintzen korrika egitekoa, lanean arratsaldez nabilelako, baina aukera hau ezin da galdu". Etxean Goiena "beti" izan duen eskoriatzarrarentzat ere, saritxoa.

Ane Irazabal oñatiarra da Korrikaren lekukoa eramango duen hirugarren Goienakidea; lehen aldia izango da beretzat: "Ilusioa egiten du. Ez dago jakiterik beste inoiz aukerarik izango ote den, eta gogoz nago".

Oñatitik ez da pasako aurtengo Korrika, baina Irazabalentzat izango du kutsu berezia: "Egun garrantzitsua izaten da, nahikoa emozio nahasten dira, zirrara... Oraingoa Oñatitik pasatzen ez denez, aukera hau sortu izana pozez hartu dut". Goienakide izateaz, argi dio: "Bertako komunikabide bat izanda, gure hizkuntzan, ez zait esfortzu handia iruditzen norbanako moduan".

22. korrika

HITZ EKIN

Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 3tik apirilaren 10era

ULMA ere Korrikaren alde!

ULMA

arteman
KOMUNIKAZIOAREN ARTISAUAK

GUK ERE
HITZ EKIN



Pikupe txarangako Zipri Agirre lekukoarekin eta ondoan Gotzon Osinaga. ARGAZKIAK: JESUS MARI ARZUAGA FUNTSA - OÑATIKO UDAL ARTXIBOA



Jesus Dorado lekukoarekin. Atzean, Pedro Iñurrategi eta Jabi Balzategi.

Lehen Korrika Oñatin hasi zen

1980ko azaroaren 29an abiatu zen lehen Korrika Oñatiko Santic Spiritus unibertsitatetik. Une ezin hunkigarriagoa izan zen parte hartu zuten guztiendako

L. Zeberio / O. Elorza OÑATI

AEKtik jaso zuten proposamena Oñatiko Udalean lehendabiziko Korrika hura Oñatin hasiko zutela, unibertsitatea zuen lehen euskal herrian. Migel Anjel Kortabarria lehen Korrika hartako Oñatiko batzordeko kide zen, eta gogoan du ia dena antolatuta iritsi zela herrira: "Guk gure laguntza eskaini genien, baina ia dena lotuta zegoen kanpotik". Lehendabizikoa izanda, gauza guztiak ez zeuden egun egoten diren besteko ondo lotuta, baina Kortabarriak gogoan du oso

harrera ona izan zuela: "Herriko talde askok hartu zuten parte, kuadrilla askok".

Lehendabiziko Korrika zen, eta inork ez zuen imajinatzen nola egingo zen, zer zen hura, eta ikusmin handiarekin abiatu zen. Antolatzaileek horrela erabakita, eta orduko egoeratik, ibilbideko lehen metroetan erakunde kulturalak eta politikoak ordezkaturiko zituen zero kilometro bat egitea pentsatu zuten. Horrela, Jose Mari Satrustegi apaiz eta euskaltzain nafarrak hartu zuten lekukoa Sancti Spi-

Bihotzarekin zein buruarekin,
baina batez ere..

22.^o korrika
HITZ EKIN

Euskarak
egiten gaitu
herri!

ehbildu
ARRASATE

EROSKI
ARRASATE



Gu ere Korrikarekin
eta euskerarekin alde

HITZ EKIN



Bertsolariak Korrikaren alde egindako jaialdian.



Urtsa Errazti, Jose Mari Satrustegi eta Eli Galdos udaletxean, Korrikari hasiera eman aurretik.

ritus unibertsitatearen parean, eta Oñatiko alkate Eli Galdosek eman zion erreleboa metro gutxira, udalbatza osoa atzetik zuela. Ondoren etorri ziren herriko gainerako eragileak. Udal zinegotzia zen orduan Mikel Etxaburu.

"Otu zitzaigun ondo egongo zela Korrika abiatzearekin bat herriko kanpaia jotzea. Gotzainari deitu behar izan nion baimena eskatzeko. Erantzun zidan euskararen alde bazen baietz, aurrera egiteko!". Eta horrela izan zen, Korrika abiatzearekin

bat jo zuten kanpaiek, eta... hasi zuten elurra.

Itziar Jauregi antolatzaileen artean zen. Autoan egin zuen Korrikaren ibilbidearen zati handi bat: "Bizi izan dudak ekin-tzarik hunkigarriena izan da. Emozioz beteta ibili ginen korrika".

Oroitzapen ederrak

Emozio handia aipatzen du, baita ere, Zipri Agirrek. Lehen kilometroko lekuko eramailea izan zen. "Pikupe txarangako bonbo-jolea nintzen, eta zuzen-

dariak hartu behar zuen lekukoa, baina gaixotu egin zen eta niri egokitu zitzaidan. Oso harro sentitu nintzen une hartan. Beste garai batzuk ziren, eta Korrika zen modu bat euskararen eta Euskal Herriaren alde zerbait egiteko". Oroitzapen politikatu, baita ere, Pikupeko kide zen Mikel Zabaletak: "Gogoan dut Kale Zaharrean behera joan ginela txaranga, jotzen eta Korrikan parte hartzen". Herri osoa kalean zegoela du gogoan Etxaburuk. "Sekulako eguraldi txarra zegoen; euria, hotza eta

elurra, baina kale osoa bete-beteta egon zen".

Zipri Agirrerren aldamenean joan zen, tarte batez, Gotzon Osinaga. "Jendeak ez zion antzik ematen luzera Korrikak izango zuen indarrari. Gauza oso berria zen, trantsizio urteak ziren...". Gogoan du ez zegoela petorik. Lekuko eramaileei bakarrik jarri zitzaion dortsala. "Lekukoak, esaterako, ez zuen ikurriñik. Gerora jarri zitzaion. Eta jendeak galdetzen zuen zer zen lekuko bat, eta azaldu egin behar izaten zen". Errezeloak ere bazeuden,

"beldurra", zer ote zen ekimen hori, benetan euskararen aldekoa ote zen...

Amaiera, Bilbon

Abenduaren 7an amaitu zen lehen Korrika. Bidean otu zitzairen antolatzaileei mezu bat beharko zukeela lekukoak barruan. Rikardo Arregiren testu bat aukeratu zuten, baina bidean galdu egin zen, eta ez zen Bilbora heldu. Inprobisazioaren Korrika izan zen. Inor gutxik espero zuen gerora izango zuen bilakaera.

Bergararrok ere HITZEKIN

DEN GARRA BERGARA

CITROËN C5 AIRCROSS HYBRID
HIBRIDO ENTXUFAGARRIA
55 KM-ko AUTONOMIA
1100 MODU ELEKTRIKOAN
KARGA AZELERATUA
2 ORDU BAINO GUTXIAGOTAN

CITROËN C4 BERRIA
%100 ELEKTRIKOAK
350 KM-ralerako AUTONOMIA
GASOLINA EDO DIESELA

CITROËN È-BERLINGO BERRIA
%100 ELEKTRIKOAK
280 KM-ralerako AUTONOMIA

22. ^{ak} korrika
HITZEKIN
Ekin Korrikari!

CHAPIME TAILERRAK
SAN ANDRES AUZOA 5, ARRASATE

"Parte-hartzea oso handia da eskualdean"

IKUSKA LIZARRALDE KORRIKAREN DEBAGOIENAKO KOORDINATZAILEA lazko hutsunearen ondoren 22. Korrika hunkigarria izango dela dio bailarako koordinatzaileak; gainera, herrietako batzordeetan egindako lana baloratu du

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Korrikaren antolakuntza lanetan buru-belarri dabil Ikuska Lizarralde azken aste honetan. Izan ere, bailarako 32 kilometroak eragile guztien arten banatu behar dituzte.

Azken astean sartuta, dena prest dagoela esan daiteke?

Momentu honetan, kilometroen antolakuntza erabakitzen gabiltza; nork hartuko duen lekukoa non. Bestalde, batzordeetako kideak badabilta Korrika Lagun gutunak banatzen, taberneak eta komertzioek ere ekarpena egiteko aukera izan dezaten.

Zenbat kilometro egingo ditu Korrikak Debagoienera?

32 kilometro izango dira. Gertatzen dena da eragile pila bat ditugula. Parte-hartzea oso handia da eskualdean, eta hori pozgarria da. Moldatu egin behar ditugu kilometro horiek, eragile guztiek korrika egin ahal izateko. Hori da orain esku artean daukagun lan gogorrena. **Bailarako lau herritatik ez da pasatuko. Zer egingo da Korrikako giroa pizteko?**

Herri bakoitzak bere egitarau kulturala egin du. Horrez gain, Oñatin ibilbide alternatibo bat egin da, herrian hasi eta bidegorritik Elorregiraino joango dena. Ibilbide ofizialean egiten den moduan, lekukoa pasatuko

dute eragileen artean. Elgetan apirilaren 1ean herri lasterketa egingo dute. Antzuolaren kasuan, ibilbide ofizialean hartuko dute lekukoa, Bergara amaieran. Aramaion ere Korrika ofizialera batuko dira: Debagoieneko azkeneko kilometroa eta Arabako lehenengo kilometroa hartuko dute, hain zuzen.

Koordinatzaile lan honetan, zer izan da zailena?

Orain momentuan galdetzen didazunez, esango dizut orain dugun antolakuntza ez dela erraza. Egia esan, batzordeetan oso erantzun ona egon da, eta, alde horretatik, oso pozik gaude. Orain arteko lanak kontuan hartuta,



Ikuska Lizarralde, Korrikako kartelarekin. ENEKO AZKARATE

hau da zailena egiten ari zaidana: eragile bakoitzak non hartu lekukoa, kilometroa zelatu eragileen artean... Antolakuntza hori guztia.

Korrika pasatzen ikustea hunkigarria izaten da. Zer esango zenieke datorren egubakoitzean errepide bazterrean egongo diren herritarrei? Berez, hunkigarria da Korrika pasatzen den momentua; baina aurten berezia izango dela uste dut. Iaz ezin izan genuen sentazio hori eduki, eta aurten

uste dut emozio horiek gehiago azaleratuko direla, pil-pilean egongo dira. Jakinda zelako egoera pasa dugun eta egoera hori gainditu ostean berriro ere Korrika hemen dugula ikustea polita izango da. Errepide bazterrean egongo direnak animatu nahi ditut animatzera, indarra eman diezaioten korrika dabilenari, eta bakoitzak bere moduan eta ahal duen neurrian ematea indarra eta gogoia Korrikari.



ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

HITZEMIN HITZEKIN

Euskararen eta
Korrikaren alde!



Energiarekin egiten dugun gauza
bera egiten dugu euskararekin:

AHALIK ETA MODURIK ONENEAN BANATZEN LAGUNTZEA.

æk

HITZEMIN HITZEKIN

Euskara ahoan, baita ikasgelatik kanpo ere

AEK-k Arrasaten du egoitza, Iturriotz kalean. 2021-2022 ikasturtean 25 talde dituzte: euskaltegian, enpresetan, Aramaion, Antzuolan eta Elgetan. Horrez gain, euskaltegien arteko elkarlana dute erabilerari begira. Hilean behin irteerak egiten dituzte

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Euskalduntzean eta alfabetatzean egiten dute lan AEK-ko euskaltegien. Bailaran, Arrasaten dute egoitza; baina euren lana beste herri batzuetara ere zabaltzen da. Aramaion, Elgetan eta Antzuolan dituzte taldeak, eta baita hainbat enpresatan ere.

Orain dela hiru ikasturte, egoitza berrira lekualdatu ziren, Arrasateko Iturriotz kalera, hain zuzen. 2021-2022 ikasturte honetan, 25 euskara talde dituzte. "Euskaltegian hamar talde ditugu; gainontzekoak, enpresetan, Aramaion, Elgetan eta Antzuolan. Horrez gain, autoikaskun-



AEK-ko ikasleak, Zahar Berri egitasmoaren barruan egindako ikastaroan. A.E.G.

tzako ikasleak ere baditugu", azaldu du Arrasateko AEK-ko zuzendari Oskar Elizburuk.

Zortzi irakasle ditu AEK-k aurtengo ikasturtean.

Denetariko arrazoiak

Nolako ikasleak dituzten galde-tuta, profil askotarikoak dituztela nabarmendu du Elizburuk: "Euskaldun zaharrak direnak, baina erdi alfabetatuak, mintza praktika egin nahi dutenak, etorkinak, 60 urtetik gorako asko ditugu, gazteak, C1 edo C2 agiriak lortu nahi dituztenak...". Gainera, autoikaskuntzako ikasleak ere badituzte: "Gainerako taldeetan ezin direnak uztartu dira: horiei etxerako lanak bidaltzen zaizkie eta hamabostean behin tutoretzak izaten dituzte zalantzak argitzeko. Gainera, mintza saioak egiten dituzte asteen behin".

Ikasle kopurua azken sei urteetan 200 eta 250 artekoa izan dela dio Elizburuk. Hala ere, azkeneko bi urteetan, pandemiaren ondorioz, kopurua zerbait jaitsi dela dio: "Talde txikiagoak egin behar izan ditugu, leku fisikoagatik".

Ikasgelatik kanpoko ekintzak

AEKn, euskara ez da ikasgelatar mugatzen. Euskaltegien arteko elkarlana dago erabilerari begira; hala, AEDk antolatzen duen Zahar Berri egitasmoan parte hartzen dute AEK-ko ikasleak; eta irteerak, hitzaldiak, ikastaroak... jasotzen dituzte. Irteera horiek hilean behin egiten dituzte.

Korrikaren marka

Korrikak eta halako ekimenek ilusioa ekartzen dutela azaldu du Elizburuk: "Euskararen aldeko normalizazioan parte garelako". Ilusio horren atzean lan handia dagoela ere nabarmendu du: "Euskaltegiko lanarekin uztartu behar dugu Korrikaren antolakuntza. Ordu militante dezente sartu behar izaten ditugu; hala ere, eskerrak herri-tarrek pila bat laguntzen duten".

Euskararen normalizazioari begira egiten den ekimena dela dio, eta,aldi berean, normalizazio horretan AEKren marka dela dio Elizburuk. Gainera, Korrikak uzten duen diru-sarrera oso garrantzitsua izaten da erakundearendako.

Arrasaten ere
HITZEI EGIN!

22. korrika
HITZEI EGIN

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arrasate Berria ere
Korrikan
eta euskararen alde!

ARRASATE BERRIA
HILETA ZERBITZUAK

Hileta Zerbitzuak
Servicios Funerarios

BEILATOKI BERRIA, Araba 3, SAN ANDRES Auzoa ARRASATE
www.funeriaarrasate.com | Tel.: 943 79 22 19 | tanatorioa@gmail.com

22. korrika
HITZEI EGIN

æk
22.korrika
**JARRAIPEN
ZABALA
GOIENA
TELEBISTAN**

HASIERA AMURRIOTIK ZUZENEAN

MARTXOAK 31, EGUENA, 15:45

KORRIKA DEBAGOIENEAN

ZUZENeko SAIOA

APIRILAK 1, EGUBAKOITZA, 11:15

LEKUKOA KILOMETROZ KILOMETRO

APIRILAK 1, EGUBAKOITZA, 22:00

AMAIERA DONOSTIATIK ZUZENEAN

APIRILAK 10, DOMEKA, 11:30

goiena

Zu hemen zaude.

'Aresko non stop' leloari eutsiz, campusa gertu

Aste Santuan bi txanda izango dira Manuel Muñoz kiroldegian egingo den Aresko saskibaloia campusean: lehenengo txanda apirilaren 11tik 13ra izango da eta bigarrena, berriz, apirilaren 19tik 22ta. Dagoeneko zabaldu dute izen-ematea

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Eskoriatza Kirol Elkarteak saskibaloia campusa antolatzeke gogoia soberan izan arren, gorabehera asko izan zituzten iaz antolatzeke. Hala, Gabonetan egin behar zena Aste Santura atzeratu eta orduan ere egin gabe geratu zenez, udan egin zuten. Aurten, berriz, zalantza izan dituzte, baina Aste Santuko Aresko Campusa antolatu du Eskoriatza Kirol Elkarteak, eta bi txandatan banatuta izango da.

Adinaren arabera ikasgaiak

2006 eta 2013 bitartean –biak barne– jaiotako haurrei zuzenduta dago saskibaloia campusa. Dagoeneko 30 gaztetxok eman dute izena, eta, adinaren arabera banatuta, saskibaloia gainera gaineko kontzeptu eta teknika ugari ikasiko dituzte, Zuhaitz Gonzalez koordinatzailearen gidaritzapean. "Ni arduratuko naiz campusa gidatzeaz beste bi jokalariren laguntzarekin. Batez ere, ohiko ariketak egingo ditugu, baina, labur-labur esanda, adinaren arabera egokitutako ariketak izango dira. Gaztetxoek botea, tiroak, paseak, mugimenduak... ondo egiten erakutsiko diegu, besteak beste. Txikieneztat dibertigarria izatea



Aresko saskibaloia taldeko haurrak entrenamendu saio batean. IMANOL BELOKI

nahi dugu, 9 urte dituzte eta ezin da entrenamendu gogorrik egin. Ondo pasatzea da helburua. Nagusitxoagoek, berriz, psikomotrizitate jolasak eta teknika indibiduala lantzeko ariketak izango dituzte, besteak beste. Eta nagusienekin teknika lantzeko jolasak izango dira, jokaldiak nola egin eta abar", adierazi du Gonzalezek.

'Non stop' leloa ardatz

Saskibaloira gerturatzea, kirola eginez gozatzea eta txikienezkat ondo pasatzeko helburu izanda,

haurrentzat campusa gustukoa izango delakoan dago Gonzalez: "Pandemiaren ondorioz geratuta izan gara denbora luzez, eta, *Aresko non stop* leloari segika, Aresko ez dela gelditzen adierazi nahi dugu, eta bide horretan jarraituko dugu".

Izen-ematea zabalik dago

Dagoeneko eman dute izena zenbait gaztetxok, baina oraindik badago campusean apuntatzeko aukera. Horretarako, aresko.saskibaloia@gmail.com helbidera idatzi behar da.



Iaz, Makilakorta Fest jaialdian, Azken Sustraiak taldearen emanaldia. GATZA CITY KREW

Makilakorta Fest jaialdiko ekintzak, herrian zentratuta

Pilota txapelketarako eman daiteke izena, eta herri bazkarirako txartelak ere erosi daitezke

Imanol Beloki Unamuno **GATZAGA** Makilakorta Fest jaiaren bigarren edizioa antolatu du Gatzaga City Krew gazte taldeak maiatzaren 7rako. Joan den astean argitaratu zuten egitaraua, izango diren pilota partiduetan izen-emateak lehenbailehen egiteko eta herri bazkarirako txartelen salmentarekin hasteko.

"Iaz izan genuen lehenengo edizioa eta oso gustura geratu ginen. Jaiegun puntual bat izan barik, abiapuntu bat izatea nahi genuen. Izan ere, Gatzagako Udalaren babesa izan arren, herriko gazteek antolatutako jai bat da, eta beraien beharrik asetzeko programa osatu da aurten ere. Iazko egitarauarekin alderatuz, aurten ez dira Makila Korta mendira igoko. Ikusiko dugu datozen edizioetan... Hori horrela, ekintza guztiak herrigunean izango dira: pilota partiduak, herri

bazkaria eta kontzertuak", adierazi du Beñat Agirreurretak, Gatzagako Udaleko Kultura zinegotziak.

Kontralde eta Unidad Alavesa

10:00etan, pilota goxoarekin txapelketa jokatu da frontoian. Hala ere, aurrez izena eman beharko da, apirilaren 24a baino lehen. Horretarako, [@gatzacitykrew](https://www.instagram.com/gatzacitykrew) Instagram kontura idatzi edo Gatzagan Labidean, Aretxabaletan Arlutz tabernan edo Eskoriatzan Inkernu tabernan eman daiteke izena.

Pilota partiduen ostean, 14:30ean, herri bazkaria egingo dute, eta txartelak apirilaren 24a aurretik erosi beharko dira, Labidean, 11 eurotan. Bazkalostean, berriz, pilota partiduetako finalak jokatu dira, eta amaitzeko, Kontralde eta Unidad Alavesa taldeen kontzertuak izango dira.

Lore-sorta eraman diote

Martxoko lehenengo astebururako, Dorletako amari lore-sorta eskaintza egiteko eguna antolatu zuten Dorletako Ama Txirrindulari elkarte ordezkariek, baina Eskoriatza Txirrindulari Elkarte kideek huts egin zuten. Gaizki ulertu bat izan arren, urteroko ohiturari jarraituz joan den domekan batu ziren lore-sorta Dorletako amari eramateko.



JUAN LUIS MARKAIDE

Korrikaren ostean, bertso afaria eta mendi martxa

Korrika apirilaren 1ean, egubakoitza, Leintz Gatzagatik pasatu ostean, zenbait ekintza izango dira hurrengo egunetan. Batetik, apirilaren 2an, bertso-afaria izango da Toki-eder elkartearen, eta apirilaren 3an, berriz, Eskoriatzako Korrika batzordeko kideekin batera antolatutako mendi-martxa egingo da Atxorrotzera.

Apirilaren 3an, 21:00etan hasita, Oihana Iguaran eta Maialen Akizu bertsolariak izango dira Toki Eder elkartearen egingo den bertso afarian. Labidean eman beharko da aurrez izena eta 25 euroko sarrera ere bertan erosi beharko da. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, martxoaren 27ra bitartean gatzagarrek izango dute lehentasuna sarrerak erosteko eta egun horretatik aurrera gainontzekoek izango dute erosteko aukera, edukiera mugatua delako.

Erradiazioaren kaltetik, gerraren "amesgaiztora"

Txernobil eta Txernobil Lagunak elkarteetako Bergarako boluntarioen arabera, udan Bergarara etorri ohi diren umeak egoera oso-oso larria ari dira bizitzen; etorri nahi duten familientzat giza korridore seguru bat irekitzea eskatu dute, lehenbailehen

Jokin Bereziartua BERGARA

1996an sortutako Txernobil elkartearen eta 20 urte baino gehiagoko ibilbidea duen Txernobil Lagunak elkartearen helburuak erabat aldatu dira otsailaren 24tik, Errusia Ukraina inbaditzen hasi zenetik. Hilabete zehatz bete zuten gerrak atzo, eta ume ukrainarrekin lan egiten esperientzia luzea duten elkarrekin diote egoera oso-oso larria dela. "Gure

umeak Ukrainako iparraldean bizi dira, eta handik sartu dira tropa errusiarrek. Zona hura errusiarrez guztiz okupatuta dago eta ia etengabe ari dira bombardaketak jasaten. Herriak erabat kiskali dituzte... Heltzen zaizkigun mezuen arabera, so-toetan ezkutatuta daude, eta, momentuz, salbu daude, baina hilketa zibilak egon dira eta egoera oso-oso larria da; hiru

aste pasatu dira eurekin komunikatu gabe, baina, dakigunez, hainbat lekutan ez dute argindarrik. Ura, elikagaiak eta botikak ere falta zaizkie", adierazi du Txernobil elkarteetako boluntario Esther Linazisorok.

Lizarraldeko gaineratu du Euskal Herrian "errotze handia" duten ia 200 adingabe Ukrainatik irten ezinean daudela eta haiekin batera etor daitezke-

nekin gutxi gorabehera kalkulatzen dutela 400 bat ukrainar Euskal Herrira ekartzeko moduan egongo lirakeela. Horretarako, baina, eskaera zehatz bat egin dute: "Giza korridore bat zabaltzea, han ditugun neska-mutikoak eta euren familiak atera ditzagun; betiere, bueltatu nahi badute".

"Amesgaizto bat" bizi izaten

Txernobil Lagunak elkarteak 20 urte baino gehiago daroatza Kiev iparraldeko Ivankiv herritik umeak ekartzen, uda bertan igaro dezaten. Gerrarik gabe haien egoera zaila bazen, gerra hasi zenetik amesgaizto bat bizi dutela dio Amaiur Sainz boluntarioak: "Gure mutikoa Bergarara ekartzeko aukera izan dugu, baina hori ez da orokorra, gehienek han jarraitzen dute eta. Mutikoaren bitartez lehen esku informazioa heltzen zaigu eta amesgaizto bat ari dira bizi izaten; mutikoaren amak esan digu ez zuela sekula esperoko halako egoera bat biziko zuenik". Ukrainatik ihes egitea lortu du, baina bihotza jaioterrian duela dio Sainzek: "Bistakoa da triste

dagoela, ez dela udan etorri ohi zen pertsona bera; udan pozik etorri ohi zen, Bergaraz disfrutatzen, baina orain, triste dago. Oso bizipen gogorak izan dira eta pixkanaka ari gara egoerari buelta emateko saiakeran". Bi elkarteetako kideek diote herritarren babesa eta laguntza igartzen ari direla, eta esker ona adierazi nahi izan dute jendearen inplikazioagatik.

Udalak, "gertuko jarraipena"

Udala "gertuko jarraipena" egiten ari zaio, jarduneko alkate Ainhoa Leteren arabera: "Bergarara etorri diren pertsona guztiak artatu ditugu, eta harreman zuzena dugu haiekin. Jaurlaritzaren zerbitzuetara ere bideratu ditugu; gerra baten aurrean gaude eta egoera oso aldakorra denez, gertuko jarraipena ari gara egiten".

EUSKAL HERRIAN "ERROTZE HANDIA" DUTEN 200 ADINGABE UKRAINATIK IRTEN EZINEAN DAUDE



Ainhoa Lete, Esther Linazisoro, Amaiur Sainz eta Aitor Arantzabal, udaletxe atarian, eguazten arratsaldean. JOKIN BEREZIARTUA

'Bergara oinez' ekimenaren barruan, hamahiru irteera aurten

Martxoaren 31n abiatuko da, eta aurten hamabi eragile batu dira; izena emateko, Agorrosinen eta San Joxepen

J.B. BERGARA

"Osasuna zaintzea eta harremanak sustatzea" helburu, martxoaren 31n itzuliko da *Bergara oinez*. Hamahiru egunetan hamahiru ibilaldi antolatu dituzte ekimenera batu diren hamabi eragileek.

Aurten, gainera "taldeari egokitutako" ariketa fisiko saioak egingo dira eguraldi txarragatik ibilaldia ez egitea erabakitzen den egunetan. Jardunek, Pol-Polek, Aranzadi Ikastolak, Mariaren Lagundiak, Osasun Publikoak,

Duintasunak, San Joxepe, BPX-portek, ASPACEK, Bergarako ambulatorioak, Goyeneche fundazioak eta Udalak elkarlanean antolatu dute. "Sozializazioa indartzea" ere badu helburu. Martxoaren 31n, apirilaren 28an, maiatzaren 12 eta 26an, ekainaren 9 eta 13an, uztailaren 14an, irailaren 22an, urriaren 6 eta 10ean, azaroaren 3 eta 17an eta abenduaren 1ean izango dira irteerak; hiru egun aurretik Agorrosinen edo San Joxepen izena ematea komeni da.

Herri galdeketa egingo dute domekan Angiozarren

Angiozarko bizilagunendako antolatu duten bilera informatiboen erronda amaituta, domeka onetan, hilak 27, herri galdeketa egingo dute, Angiozar Bailarako Batzarrak deituta. Batetik, tokiko udal entitate izateko "herriaren borondatea" neurtzea da helburu bat; foru araua egokitzeak "etorkizunerako baliabideak eta antolaketa

eskuratzeko" aukera emango lioke Angiozarri: *Angiozar Bailarako Batzarrak hasi duen Bergarako udalarekiko deszentralizazio prozesuarekin jarraitzeko asmoarekin bat egiten duzu?*

Bestetik, Zapataurikoa Etxea angiozartarrentzat dohaintza onartzeko galdera egingo dute: *Zapatarikua etxea, Garitano familiak dohaintza eman nahi duen etxea, Angiozar Jorrazten Garapen Elkartearen bidez angiozartarrok jabetzan hartzea ondo ikusten duzu?*

Dirua biltzeko kanpaina abiatu dute

Ukrainako gerrak bi elkarten helburuak zeharo aldatu ditu eta dirua biltzeko kanpaina berezia abiatu dute propio sortutako kontu korrante zenbakiekin: ES62 2100 6491 1222 0003 6970 (Txernobil elkarte) eta ES36 2095 5029 1410 6222 9843 (Txernobil Lagunak elkarte). Edozein zalantza argitzeko telefono zenbakiak ere eman dituzte: 670 41 90 78 (Txernobil elkarte) eta 689 58 62 77 (Txernobil Lagunak elkarte). Gainera, Txernobil Lagunak elkarteak higie-ne-produktuak, osasun materiala, elikagaiak eta denetarik sorgailu elektrikoak biltzeko kanpaina ere abiatu du; gaur eta bihar Oñatiko Martzelino Zelaia kalean batuko ditu (Ikus 42. orria), kamioi bat modu seguruan igarotzeko aukera izango dute eta.



Maria Luisa Altuna, Roberto Kareaga, Mari Tere Muruamendiaraz, Ramon Amasorrain, Karmen Zelaia eta Jose Ramon Lozano. J.B.

San Joxepe korua, ahots berrien behar gorriarekin

Duela 30 urte sortu zen abesbatzak une zailak bizi ditu kide kopuruari dagokionez, eta dei egin diete abestea gustuko duten erretiratuei San Joxepera joan eta koruan parte hartzea probatzeko: "Sekulako giroa dugu; kantatzea gustatzen zaiona animatu dadila!"

Jokin Bereziartua BERGARA

San Joxepe erretiratu elkarteko abesbatza une zailak ari da bizitzen. Duela 30 urte sortu zen korua, 1992ko azaroaren 8an, eta hiru hamarkadotako egoerarik zailena bizi dute. Abestea gustuko duten Bergarako erretiratuen bila dabilta. "Adinagatik batzuk eta beste batzuk hil egin direlako abeslari beharrean gaude koruak betidanik izan duen mailari eusteko. COVID-19ak bi urtez erabat geldi egotea ere eragin digu; etenaldia zenbat eta gehiago luzatu orduan eta zailagoa izango da itzulera... Badakigu Bergaran badagoela kantuan egitea gustatzen zaion jendea, eta horiei dei egiten diegu etortzeko. Bereziki, tenoreen eta sopranoen beharra dugu", dio abesbatzako zuzendari Ramon Amasorrainek.

COVID-19ak eragin du San Joxepe abesbatzaren etenaldirik luzeena, azken kontzertua 2019ko urrian eman zuten-eta, Seminarioan, Oñatiko Aloña abesbatzarekin batera. Nabarmenezkoa da Gipuzkoa mailan izan duen ospe ona, urtero hainbat herritan, beste zentro batzuetako partai-

deekin batera egiten diren lehiaketek barruan. Baina zergatik izan du abesbatza honek halako maila ona? Honako hau dio Amasorrainek: "Kide gehienak orfeoitik pasatutakoak dira, gaztetatik abestera ohituta daudenak".

Etenagatik "pena handia"

Hainbat auzotan kantatu izan dute: Labegaraietan, San Antonio, San Martzialen, San Juanen, Elosuan, Angiozarren... Eta herri barruan, Santa Ageda eskean, Santa Zezilia egunean eta Gabonetan ere ohikoak izan dira kantaldiak. Mizpirualde egoitzara ere bisita asko egin dituzte. Eta azken urteotan hutsik egin ez dutenen artean daude Maria Luisa Altuna eta Mari Tere Muruamendiaraz; euren pena handia izango litzateke abesbatzak ez jarraitzea: "Batera hasi ginen abesten, 15 urterekin orfeoiaren geunden. Ezkondu ginen urte batzuez laga genuen eta gero itzuli ginen. Pandemiagatik geldi egon behar izatea pena handia izan da; sekulako giroa dago koruan, familia baten antzera. Kantatzea gustatzen zaiona animatu dadila!"

URBIETA | Barne diseinua



Etxeari aldaketa eman nahian?

Zatoz gurera!

Etxeko gela bat zein etxe osoa eraberritzea, gremioen koordinazio eta guzti!

Utzi dena gure esku!



Erakusleiho zabala, sukaldeak, komunak, egongelak, logelak, sarrerak... Etxea janzteko osagarri guztiekin! Aholkularitza eta aurrekontuak neurria, 3D irudiekin.

IBARGARAI 11 - 13, BEHEA • BERGARA • TEL.: 943 76 14 50 • URBIETAINTERIORISMO@HOTMAIL.COM • @ f

Berotegi-efektuko gasak %40 jaisteko, zortzi urte

Herritik bertatik ere klima larrialdiari aurre egiten saiatzeko, Udal Gobernuaren 'Bergara 2030 Bizi Energia' planaren helburuen artean dago herriko berotegi-efektuko gasak %40 murriztea; hamar hilabeteko ekintza plan bat iragarri dute asteon horretarako

Jokin Bereziartua BERGARA

Udal Gobernuak ekintza plan bat iragarri du, asteon, klima larrialdiari aurre egiten saiatzeko. Agintaldirako helburuen artean, 2023rako Bergaran CO2 isurketak %10 eta %20 artean murriztea eta energia kontsumoa %10 murriztea zehaztu zuen: "Mundu mailako larrialdi klimatikoari erantzuteko beharrezkoa da herrietan ere neurriak hartzea".

Beste helburu zehatz baten berri ere eman dute asteon: 2030erako, berotegi efektuko gasen isurketak %40 jaistea. Horretarako, *Bergara 2030 Bizi Energia* plana idazteari ekin diote. Bi ildo nagusi ditu planak, Ingurumen zinegotzi Nagore Iñurrategik azaldu duenez: "Batetik, aldaketa klimatikoa geldiarazten lagundu nahi dugu; eta, bestetik, aldaketa klimatiko horretara egokitzeko estrategiak garatu nahi ditugu".

Hamar hilabetean

Helburu horretarako, energiari lotutako honako sektore hauek hartu dira kontuan: Udala, etxebizitzak, zerbitzuak, mugikortasuna, garraioa, hondakinak eta industria. Era berean, klima aldaketara egokitzeko lurraldearen erresilientzia eta arriskuen kudeaketarekin lotuta, natura eta hiri-ingurunea, azpiegiturak, jarduerak, osasuna eta babes zibila dituzte begiz jota. Hamar hilabete iraungo duten lau fasetan egingo dute. "Hasita gaude diagnosi fasearekin; horren ondoren, ildo estrategikoak definituko ditugu; gero, plana bera idatziko dugu; eta laugarren fasea izango da ebaluazioa eta proposamenena. Etengabeko hobekuntza behar duen prozesu moduan ulertzen dugu", dio Iñurrategik.

Diagnostiko fase horretan honako lan hauek ari dira gauzatzeko: herriko sektoreen eta



Auto bi San Martin plazan, martitzenean. TXOMIN MADINA

KLIMAREN ETA ENERGIAREN HAMABOSTALDIA ANTOLATU DUTE EKAINERAKO

Udalaren balantze energetikoa eta berotegi-efektuko gasen inbentarioa, udal instalazioen azterketa energetikoa, joera historikoen eta klima proiektzioen azterketa, klima aldaketaren aurreko zaugarritasuna eta arriskuaren ebaluazioa.

Hamabostaldia ekainean

Plan hau ere herritarrekin gauzatu nahi dute. "Gobernatzeko eredu horizontalago batean sinisten dugu eta ekintza plan honetarako ere eragileekin eta herritarrekin kontaktatzen dugu. Udaletik dinamizatuko dugu, baina ahalik eta herritar gehien nahi ditugu prozesuan", adierazi du Iñurrategik. Horrez gain, larrialdi klimatikoaren sentsibilizazioan ahalik eta gehien eragiteko, Bergarako Klimaren eta Energiaren Hamabostaldia antolatu dute ekainerako.

"Konpromiso sendoak"

Bestalde, Ekaitz Aranberri zinegotziaren arabera, plana egindakoan, haren jarraipena eta ebaluazioa egiteko partaidetzazko egitura bat eratuko dute: klimaren aldeko mahai eragilea. "Plan honekin Udalak 2030erako konpromiso sendoak hartuko ditu klima aldaketaren eta energiaren alorrean; konpromiso horiek gobernantza klimatikorako eredu berri batekin uztartuz, plana osatzeko prozesuaren ondoren ere iraungo duen partaidetzarako egitura bat sortzea erabaki du: klimaren aldeko mahai eragilea. Planaren jarraipena eta emaitzen ebaluazioa egingo du; klima aldaketan eragina duten udal politiken, programa eta proiektuen inguruan informazioa emango zaio eta ekarpenak eskatuko zaizkio; udalerrian klima aldaketaren eta energiaren alorrean hobetzeko proposamenak ere egingo ditu".

Proiektuaren aurrekontua ia 31.000 eurokoa da, eta Izadi 21 enpresari esleitu zaio prozesua gidatzea, betiere, Hispavista Labs eta ENT Environment & Management enprekin elkarlanean.



Iñaki Aizpuru, Ainhoa Agirrebeña eta Idoia Bollar, martitzenean. KUKUBASO

Bertako basoa berreskuratzeko, harremana sendotu beharra

Baso eskolen ereduaz eta alfabetizazio berdeaz aritu ziren, besteak beste, 'Non dago gure basoa?' izeneko hitzaldian

J.B. BERGARA

Basoen Astearen barruan Kukubaso elkarteak antolatutako *Non dago gure basoa?* izeneko hitzaldian, Iñaki Aizpuru biologoa EAEko basoen egoeraz eta kudeaketaz aritu zen Seminari-xoan; azaldu zuen, besteak beste, Gipuzkoan eta Bizkaian bertako basorik ez dagoela: "Azalera txikiko eremu batzuk bakarrik ditugu, elkarrengandik bereizita. Gure azalerak konterbatu eta baso-eremua berreskuratzeko premia bizian gaude, biodibertsitatea mantendu nahi badugu. Lurraldea herritarrek etorkizunerako dugun kapital estrategiko bat da eta ez zaigu komeni etekin azkar batzuen bila suntsitzea; apustu garbia egin behar dugu lurraldea herri-ondasun bihurtzeko eta bere ahalmen guztiak adierazten laguntzeko, gure ondorengoentz bizi-asegurua delako".

"Basoaz gozatu egin behar da"

Bestalde, Oñatiko Natur Eskolako hezitzaile Idoia Bollar bergararrak alfabetizazio berdearen beharra azpimarratu zuen, ikasleei naturaren ezagutzaren eta zaintzaren gainean kontzientziaztea. Esan zuen azken bi belaunaldietan galdu egin dela gizartean, oro har, naturarekin zegoen harremana, eta Europar gero eta hedatuago dagoen baso eskolen aukeraz ere aritu zen; horren harira, aipatu zuen Mariaren Lagundiak baso eskola ereduia ezarrita duela haur eskolan. "Basora joan egin behar da, bertan egon eta disfrutatu, hortik etorriko direlako gero kuriositatea, interesa, ezagutza eta zaintza". Era berean, Bollarrek balioa eman zion Mendia Bizirik taldeak eta Laboratoriumeko Iñaki Irizarrek bertako basoaren ezagutzaren eta ulermenaren alde egindako lanari.

OHARRAK

Larramendiko Arnasa: Sara Ibañezen saioa

Martxoaren 29an, hitzaldia egingo du Irizar jauregian (19:00): *Larramendiko erraustegiaren ondorioak osasunean.*

Azoka: bigarren eskuko kirol materiala

Pol-Polek eta Lokatzak antolatu dute biharko, hilak 26, Udalarekin batera. Fraisko zurin egingo dute; euria egiten badu, frontoian. Materiala saltzeko aukera egongo da 09:30etik 10:30era; materiala erosteko ordutegia 11:00etatik 14:00etara da.

Ehunduren saioa: zaintzaren prekarizazioa

Enarak kooperatiba gonbidatu dute hilaren 31n UNEDen (18:30) egingo den saiorako: *Prekarización de los cuidados y alternativas.*

Hilabete osoko egitaraua prest, musikaz gozatzeko

Martxoaren 27an hasi eta apirilaren 27ra arte antolatu dute. "Musikarekin gozatzeko eta herritarrei gerturatzeko" helbururekin, 28 ekintza izango dira, guztira: ikastaroak, askotariko instrumentu-jotzaileen emanaldiak, elkartrukeak, musika kalean....

Jone Olabarria BERGARA

Dagoeneko 38 urte daramatza Bergarako Musika Eskolak herritarrei hezkuntza musikala gerturatzeko, eta eginkizun horretan "ezinbestekoa" izan da Apirilean Musika ekimena. XVIII. aldia izango da aurtengoa, eta, musika eta kultura herritarrekin partekatze asmoz, 28 ekintza antolatu dituzte, Udalaren laguntzarekin. Eskolak egun dituen ia 600 ikasleak soilik ez, herritarrek ere protagonista izango direla azaldu du Marije Ugalde zuzendariak, "parte-hartze zuzena" bultzatzeko.

Musikarien erakusleihoa

Bergarako Udaleko Kultura teknikari Maider Osak adierazi du halako ekimenak "erakusleihoz itzela" direla: "Ikasleek plazak behar dituzte, bai motibatuzko, bai lana jendaurrean erakusteko. Ekimen hau plaza oso ona da musikari gazte guztientzat, eta Udalaren eginbeharra da ekimen hau babestea".

Musika erakargarri egiteko asmoz, Bandak eskaintzen dituen emanaldietan musikaren barneko kontuak azaltzen saiatzen direla aitortu du Enrike Txurrukak, bandako zuzendariak: "Obren atzean dauden istorioak, instrumentuei buruzko azalpe-



Enrike Txurruka, Marije Ugalde, Leire Ugarte eta Maider Osa. J.O.

nak ematen saiatzen gara. Aurtent, 46 ikasle daude eskolan instrumentua aukeratzeko momentuan, eta polita izaten da beraiek bandan sartu, instrumentu jakin bat jotzen duenaren ondoan jarri eta nola egiten duen ikustea".

Ikastetxeekin elkarlana

Herriko hiru eskolekin elkarlanean ere proiektua garatuko dutela azaldu du proposamen pedagogikoen arduradun Leire Ugartek: "Kontzertu pedagogikoaren baitan, 600 gonbidapen-

baino gehiago banatu ditugu LH-1, 2, 3 eta 4. mailetako herriko eskoletako ikasleen artean. Urtero egin ohi den kontzertua da, baina aurtent *Etorkizuneko entzuleak* izeneko programaren barnean kokatu dute emanaldia. Kezkatuta gaude etorkizuneko entzule horiekin. Ikusten dugu gaztetxoek gerturatzeko direla musikara, baina ez dela zifra oso altua". Horretarako, kontzertuaren aurretik, Musika Eskolatik material didaktikoa prestatu eta ikastetxeetan landuko dute haurrekin.

'Harri minak' lana zapatuan ikusgai Seminarixoan

Geuretik Sortuak ekimenaren baitan sortua, *Harri minak* lanak galderak eta itzalak dakartza bere baitan. "Euskal Herriaz, gu geu zer garen, non diren gure zuloak, erabakitze beharra, zer erabakitzen den eta zer ez, kode sozialak zeintzuk diren eta nola moldatzen garen ere horiekin... Alde guztietatik tiratzen du antzezlanak".

"Bizitzak bi zuloren artean dirau: zulo batetik gatoz, zuloa goaz. Zuloak harriari min ematen al dio?". Halaxe hausnarraraziko die ikusleei Amancay Gaztañagak zuzendutako eta Geuretik Sortuak ekimenaren baitan sortutako *Harri minak* antzezlanak. Berritza eta Bonbon Beltz konpainiaren eskutik martxoaren 26an izango da antzezlan ikusgai Seminarixoan, 20:00etan. Sarrerak eskuragarri daude Seminarixoko webgunean, 8 eurotan.

Emakume artisten erakusketak ikusteko azken egunak

Domekara arte, martxoaren 27ra arte, ikusgai dago Bergarako Aroztegi aretoan herriko hainbat emakume artistaren lanak jasotzen dituen *Bertatik bertara, emakume baserriarren bizitza*. Belaunaldi eta diziplina askotariko sortzaileek egindako artelanak batzen ditu erakusketak: margolanak, zeramika, ikus-entzunezkoak eta abar.

Egitaraua, egunez egun

Martxoak 27, domeka:

- 12:30 Bergarako Bandaren kontzertu didaktikoa. Pilotalekuan.

Apirilak 1, egubakoitza:

- 18:30 Orkestra Sinfonikoa eta Cello Ensemble. Seminarixoan.
- 19:30 Dantza gidatua. Seminarixoko karpan.

Apirilak 2, zapatua:

- 11:30 Arrasate Musikaleko eta Donostiako Eskudero Ganbara abesbatzako taldea. Seminarixoan.
- 17:30 Puciniren *Madame Butterfly* opera. Seminarixoan.

Apirilak 3, domeka:

- 17:30 eta 18:30 *Ahotsen soina*. Seminarixoan.

Apirilak 4, astelehena:

- 18:30 Piano ikasleen emanaldia. Seminarixoan.
- 17:30 Koloretako munstroa, entsegu berezia. Musika Eskolan
- 19:30 Helduen kontzertua. Seminarixoan.
- 19:00 Debagoieneko musika eskolen kontzertua. Eskoriatzan.
- 19:30 Bulego taldearekin solasaldia. Musika Eskolan.

Apirilak 5, martitzena:

- 12:30 *Entzun eta asmatu!* Musika Eskolan.
- 18:30 Piano eta gitarra ikasleen kontzertua. Seminarixoan.
- 18:00 Peñaparda ikastaroa. Musika Eskolan.
- 17:00 eta 18:00 Flauta hobeto ezagutuz. Musika Eskolan.
- 12:30 Biolontxeloarekin jolastu. Musika Eskolan.

Apirilak 6, eguaztena:

- 15:00 eta 16:30 *Musika elkarrekin*, Antzuolan.
- 18:30 Dantza Perkusio eta trikiti ikasleen emanaldia.
- 18:00 *Entzun eta asmatu!* Antzuolan.
- 19:00 Klarinete eta saxofoi ikasleen emanaldia. Mariaren Lagundiko elizan.

Apirilak 7, eguena:

- 18:00 *Musika kalera!* San Martin plazan.
- 19:00 Martxa kalera-konboak! Seminarixoko karpan.

Apirilak 8, egubakoitza:

- 12:30 Garazi tronpa ezagutzen. Seminarixoan.
- 14:00 eta 17:45 *Entzun eta asmatu!* Musika eskolan.
- 18:30 Kantu ikasleen emanaldia. Seminarixoan.

Apirilak 9, zapatua:

- 12:00 Erramu Zapatua. Musika Eskolako dantzariak, trikiti eta perkusio ikasleak kaleetan zehar.

Apirilak 27, eguaztena:

- 19:00 *Ezagutu instrumentuak*. Gurasoentzat. Musika Eskolan.

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurrira
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
 Ikerleku zeharbidea
 Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
 San Juan 1a
 Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Enpresa Registrada N°90/025



Osasun egoerak hobera egin ostean, bazkideendako antolatutako merienda. LANDATXOPE

Erreleboa, elkartearen biziraupena bermatzeko

Landatxope erretiratuen elkarteak zuzendaritza batzordea berritzeko dei berezia egin die bazkideei; hala, boluntarioen beharra dagoela adierazi du. Elkarte biziberritzeko asmoz, bazkide ez diren erretiratuak ere animatu nahi dituela jakinarazi du

Maidar Arregi ANTZUOLA

Landatxope erretiratuen elkarteak zuzendaritza batzordea berritzeko kide berriak behar dituela jakinarazi du. Errelebo falta dagoela kontatu dio Joxe Angel Arbulu Landatxopeko presidentek GOIENARI.

Era berean, elkarteko presidentek gaineratu du parte hartzeke gertu dagoenak askotariko lanak egingo lituzkeela, betiere, bakoitzak duen borondate eta trebetasunaren arabera. "Errelebo faltaren arazoa orokorra da, eta hainbat elkartetan gertatzen ari dela esango nuke. Geroz eta gehiago kostatzen da konpromisoa hartzea. Horregatik, Landatxopetik bi eskaera egin nahi ditugu: batetik, elkarteko bazkide ez diren herritarrak animatu nahi ditugu izena eman dezaten; eta bestetik, bazkideei dei berezia egin nahi diegu zuzendaritza batzordean parte hartzeri anima daitezen".

Pandemiak biziki eragin duela erretiratuen elkartean ere

aitortu du Joxe Angel Arbuluk. Bi urte hauetan, gainera, erretiratuen lokala itxita egon da, eta ez da ekintzarik antolatu. "Bazkide guztiei Landatxoperen egoitzara lasai etorri daitezkeela esan nahi diet; lagunekin urtebetetzeak ospatzera, kartetan jokatzera, solasalditxoak izatera... Berritortu martxa hartuta gabiltza. Elkarte zutik mantendu ahal izateko denon borondatearen beharra dago. Erretiratu berrien ideia eta animoak beharrezkoak ditugu eta", nabarmendu du elkarteko presidentek.

Elkarlana

Landatxoperen zuzendaritza batzordeak hainbat zeregin ditu:

LANDATXOPEKO BAZKIDE EZ DIREN ERRETIRATUAK IZENA EMATERA ANIMATU NAHI DITUZTE

ospakizunak prestatzea, bidaiak antolatzea, diru kontuez eta tabernaren gorabeherez arduratzea, podologia zerbitzua bideratzea, beste elkarte batzuekin koordinatzea... Presidenteak balioa eman dio batzordean egoten den giro onari: "Nork bere borondatearen eta trebetasunaren arabera hartuko luke parte. Gainera, batzordeko kideen artean lan giro ona dago eta elkarri laguntzeko ohitura eta gogoia ez da falta. Hiru urtean denboraren zati bat erretiratuen elkarteari eskaintzea eskatzen da, besterik ez. Batzordetik pasatzen direnen ahotan maiz entzun dugu, gainera, esperientzia aberasgarria dela. Animatu zaitezte, bada, eta jarri harremanetan juntako norbaitekin, ongietorriak izango zarete".

Elkarte, baina, bizi-bizi dator, eta udaberria ekintzaz gainezka dauka. Hala, apirilean Ekainberri joango dira erretiratuak, maiatzean Extremadurara eta ekainean, berriz, Balmasedara.

Garbiñe Larrea, *Sendabelarrek dakitena* liburua eskuetan duela. AITOR AGIRIANO

Bertako sendabelarren onurez jardun du Garbiñe Larreak

Sendabelarren erabilera, ukenduak eta dituzten onurak zeintzuk diren azaldu ditu naturopata urnietarrak

M.A. ANTZUOLA

Sendabelarrek dakitena liburua aurkeztu du Garbiñe Larrea naturopatak Torresoroan. Liburua azaroan argitaratu zen, eta izandako harrera onarekin "harrituta" dagoela aitortu du Larreak; jada liburuaren bigarren edizioa kaleratu dute. "Jendearen erantzuna ikusita, uste baino gehiago dakigu. Gutxien dakienak ere kamamila ezagutzen du, esaterako. Baina sekula baino gehiago dakigun honetan, galderak eta zalantzak ere asko dira; izan ere, oraindik

ere ez dakigu sendabelarrek dakiten guztia".

Bateragarriak

Sendabelarrek inolaz ere ez dira mediku tratamenduen ordezkariak. "Ematen du elkarten aurkakoak direla, eta ni integrazioaren aldekoa naiz. Hainbat gaitz daude sendabelarrekin ezin direnak sendatu, eta muga batzuk argi jarri behar dira". Larreak gaineratu du sendabelarren jakintzaren atzean urte luzez pilatutako pertsona askoren lana dagoela.



IMANOL SORIANO

Alardearen horma-irudia

Ione Larrañagak eta Oier Peñagarikanok abiatu duten muralgintzaren proiektuaren baitan, Mairuren Alardea oinarri duen murala margotu zuten auzolanean zapatuan. Bertan izan ziren Alardearen Elkarteko kideak eta herritarrak. "Alardea herriarena da, denona da; eta herri izaera hori horman presente geratzea nahi izan dugu", esan dute elkartekoek.

Udaberriarekin bat, urteko lehen irteera

Kantsatzeke Mendi Taldean ohiko martxara itzuli nahi dute, poliki-poliki, eta domekan egin zuten urteko lehen irteera. Hemeretzi lagun elkartu ziren Arantzazu eta Zerain arteko bidea egiteko, eta Oiharte sagardotegian borobildu zuten eguna

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Aurten bete dira hamar urte Kantsatzeke Mendi Taldea sortu zutela. Aurretik ere bazen mendi elkarte moduan funtzionatzen zuen taldetxo bat herrian, baina jarduerari elkarte egitura emateko lehen urratsak 2012. urte hasieran egin zituzten. Ordutik, mendi irteera ugari antolatu ditu taldeak. Beste jarduerara askotan moduan, pandemiak bat-bateko etenaldia ekarri zuen, baina atzera ere martxan da lantaldea. Otsailean eman zuten ezagutzera 2022ko mendi irteeren egutegia, eta domekan egin zuten lehen irteera. Hemeretzi lagun elkartu ziren, eta elkarrekin eman zioten ongietorria udaberriari.



Elgetar taldea domekan egindako mendi irteeran. KANTSATZEKE MENDI TALDEA

Mendi irteera eta sagardotegia

Bi txanpako *proba* izan zen domekakoa. Arantzazun eman zioten hasiera lehenengo zatiri eta ttipi-ttapa Biozkorniako lepora jo zuten. Hori izan zen eguneko aldapa gogorrena. Biozkorniarako bidean Arkaitzera (1.312 metro) igotzeko aukera izan zuten, eta handik aurrera Zerainerako bidea hartu zuten taldeak. "Eguna ondo joan zen", azaldu dute. "Eguraldia kaskar samarra, haize handia eta hotz goian egoteko", baina, esaera

BESTE ZORTZI IRTEERA IRAGARRI DITU KANTSATZEKE MENDI TALDEAK 2022RAKO

zaharrak dioen moduan, *gustuko lekuan, aldaparik ez*.

Mendiko lanak amaituta, eta behin Zerainera iritsita, Oiharte sagardotegian hartu zuten babesa taldeak. Zain zituzten Maite Retolaza eta familia.

Hurrengo irteera, Urregaraira

Gauzak ondo bidean, apirilaren 24an egingo du hurrengo mendi irteera Kantsatzeke Mendi Taldeak. Urregaraira izango da. Egutegian azken orduko aldatarik ez badago, gainerako txangoak dira maiatzaren 22an Kruzetara, ekainaren 19an Puttarrira, uztailaren 17an Pagoetara, irailaren 18an Maizara, urriaren 16an Arbarrainera, azaroaren 20an Irukurutzetara eta abenduaren 25ean Intxortara. Azaroko irteerarekin batera baba-jana ere iragarri dute.



Ipuin kontaketa tailerra, eguaztenean. ELGETAKO LIBURUTEGIA

Egitarau berezia Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko

Udal liburutegiak antolatuta, sormen tailerrak, lehiaketak eta ikuskizun bereziak hurrengo asteetarako

L.Z.L. ELGETA

Bertol Arrieta idazlea eta Amaia Elizagoien ipuin kontalaria Elgetan izan dira aurreko egunotan. Azken nobela aurkezten zarauztarra eta ipuin kontaketa ikastaroa egiten baztandarra.

Ekintza gehiago ere izango dira aurrerantzean liburutegian. Apirilaren 2an ospatuko da Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna eta apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna. Hori horrela, sormen tailerra hasi zuten atzo liburutegian, eta gaur izango dute jarraipena. Apirilean egitekoa den artista liburuen lehiaketarako motorrak bertzeko tailerrak dira. Atzo, HH-3, HH-4 eta HH-5eko geletako neska-mutikoen txanda izan zen eta gaur izango dute aukera gainerakoek. LH-1, LH-2 eta LH-3ko umek 16:30ean dute hitzordua eta LH-4, LH-5 eta LH-6koek, 18:30ean. Garrantzitsua da aurrez

izena ematea, eta gomendioa da heldu baten konpainian parte hartzea, egin beharreko eskularenarekin laguntzeko.

Liburuak plazara

Geaxi Ezpeleta udal liburuzainak apirilaren 29an aterako ditu liburuak kalera. 16:00etan ipiniko du mahaia, plazan, eta bertan, liburutegian aurki daitzekoen argitalpenen lagin txiki bat erakusteaz gainera, eskaintzen diren zerbitzuen berri emango du.

Egun berean, 17:30ean, kale ikuskizuna egingo dute Kontakabiko lagunek. Musikatua den *Ipuin katramilatua* eskainiko dute. Familian ikusteko saioa da. Aurretik, apirilaren 8an, Ipuinen Ordu berezia egingo dute liburutegian. Hiru taldetan banatuta, HH-3 eta LH-5 bitarteko neska-mutikoendako saioak izango dira.

Sagardotegian giro bikainean

Mendi buelta egin ostean, Zeraingo Oiharte sagardotegian hartu zuten babesa elgetarrek. Maite Retolaza herrikideak egin zien harrera, etxeko gainerako guztiekin batera, eta bapo bazkaltzeko eta edateko aukera izan zuten mendizaleek. Mahaiaren bueltan zein kupel artean goizean emandakoak berreskuratzeko aukera izan zuten guztiek.



Zeraingo Oiharte sagardotegian; tartean da Maite Retolaza elgetarra. K.M.T.



Iñigo Ansolaren hitzaldia

Elgetako EAJK antolatuta, eguaztenean, martxoak 30, hitzaldia egingo du Energiaren Euskal Erakundeko (EVE) zuzendari Iñigo Ansolak Elgetan. Energia berriztagarriak izango ditu hizpide Ansolak, eta, horrekin batera, Errusiak Ukraina inbaditzearen ondorioak. Hitzaldi irekia izango da, 19:00etan, udaletxeko areto nagusian.



Umeak plaza ondoko jolasgunean joan den urteko udaleku irekietan. O.E.

Udako eskaintza zabalik dute herriko gaztetxoek

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra egingo dira aurtengo udaleku irekiak, arte udalekuak eta uda kanpaina; lau astez. Izena emateko epeak zabalik daude dagoeneko eta online egin behar dira, udal webgunean edo Zubikoako kiroldegikoan sartuta

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Herriko haurrendako eta gazte-txoendako udako aisialdi eskaintza prest du dagoeneko Udalak. Ohikoa den moduan, hiru eskaintza egongo dira aurteten ere: udaleku irekiak, arte udalekuak eta kirol kanpaina. Baterako zein besterako izena emateko epea zabalik dago.

Ekainaren 27an hasita

Udaleku irekiak eta arte udalekuak ekainaren 27tik uztailaren 22ra izango dira, lau astez, 10:00etatik 13:00etara. Udaleku irekien kasuan, zaintza zerbitzua ere eskainiko dute, 08:15etik 10:00ak arte. Aurreko urteetan bezala, taldeka antolatuko dira udaleku irekietan, talde bakoitzak gune batean elkartuko da eta hezitzaileekin batera pasako dute goiza umeek, aurrez prestatutako jolasak edo ekintzak eginez eta umeei eurei ere galdetuz zer egin gura duten. Apirilaren 1a aurretik eman behar da izena. Arte udalekuetarako,

baina, gaur, martxoak 25, da horretarako azken eguna

Uda kanpaina

Udako kirol kanpaina HH-4 eta DBH-4 maila artekoie zuzenduta dago. Behin betiko inskripzioa egiteko plazen banaketarako izen-ematea da orain bete behar dena; beraz, ez dago matrikula ordaindu beharrik. Txanda bakoitzean gehienez hiru jardueratan eman daiteke izena eta kirol bakoitzerako gehienez hiru ordutegi hautatu daitezke. Plazak banatzeko, jarduera guztietan zozketa egingo dute. Aurtengo kirol eskaintza ere zabala da: ur jolasak, tenisa, zumba, yoga, crossfita, patinajea, golfa, xakea, mendiko bizikleta irtee-

ARTE UDALEKUETAN IZENA EMATEKO EPEA GAUR BUKATZEN DA; BESTEETAN, APIRILAREN 1EAN

rak, baso eskola eta eskalada, adibidez. Ekintza batzuk txanda bakarrean egingo dira eta beste batzuk, bi txandatan: ekainaren 27tik uztailaren 8ra edo uztailaren 11tik 22ra. Informazioa kiroldegiko webgunean edo Zubikoan bertan, 943 71 63 75 telefonoan eskatu daiteke.

Izen-ematea, online

Udalekuetan matrikula ezberdina da izena ematen duten seme-alaben kopuruaren arabera: lehenengo haurrak 72 euro, bigarrenak 62 euro, hirugarrenak 52 euro eta laugarrenetik aurrera, doan. Udaleku irekietan 2010etik 2018ra jaiotakoek eman dezakete izena. Izen ematea online egin behar da, udal webgunean sartuta, baina izena eman aurretik egin behar da ordainketa, inskripzioa egiterakoan ordainagiria atxikitu behar da eta, gaztetxoaren arduradun baten nortasun agiriaren kopia-rekin batera. Arte udalekuetakoa ere online egin behar da.

Udal Gobernuak dio 1,4 milioi euro ez direla "apartekoak"

EAJk adierazi du oharrean esan zuela Ur Jauziak enpresak fakturatutako kopuru hori "itzela" dela

O.E. OÑATI

EAJk joan den astean adierazi zuen Ur Jauziak enpresak onurak ekartzen dizkiola oraindik Udalarari, eta hau gaineratu: "Ur Jauziak enpresaren ekitaldia azken urteetakoaren antzekoa izan zen, baina merkatuko KW-h prezio altuari esker, 1,4 milioi euro inguruko aparteko diru-sarrerara izan zuen". Udal Gobernuak, baina, gezurtatu egin du hori, "faltsua" dela esan du. EH Bilduk dio ez dela apartekoa edo gehigarria. "2020a ez zen izan ohikoa, normalean baino gutxiago fakturatu zen: 395.000 euro. 2021ean, berriz, 1,4 milioi euro fakturatu da. Biak konparatuz, kopuru aparta da, handia, baina ez gehigarri bat, eta, bestalde, bien arteko konparazioa egitea ere ez da egokia, egoerak ezberdinak direlako"; Xabier Igartuaren hitzak dira horiek.

EAJk, baina, "aparteko" hitza ez duela gehigarri moduan erabili adierazi du, "handia" edo "itzela" adierazteko baizik, eta eutsi egiten dio esandakoari. "1399.236,73 euro fakturatu ziren 2021. urtean, eta 2020.ean 394.693,08 euro. Diferentzia nabarmena da, biak alderatuz. Ez dugu gezurrik esan".

Irabaziak

Ur Jauziak enpresan, %81 da Udalarena, %10 Goienerrena eta %9 Euskadiko Energia Erakundearena, eta fakturazioa hiruren artean banatuko dute. Udalak izango duen irabazia zenbaterainokoa izango den jakiteko dago oraindik, baina EAJren proposamena da bazterketa egoeran dauden oñatiarrei hobaritan ematea diru hori, argindarraren eta gasaren fakturak ordaintzen laguntzeko.

Urteko batzarra du gaur Pake Lekuk, eta bisita astelehenean

Urteko ohiko batzar nagusia egingo dute gaur, martxoak 25, Pake Leku erretiratuen elkar-teko bazkideek. Santa Ana antzokian izango da, 17:00etan. Datorren astelehenean, berriz, Oñatiko udaletxea barrutik nolakoa den ikustera joateko irteera egingo dute. 10:30ean elkartuko dira, plazan, bisita gidatua egiteko.

200 txirrindulari lehiatuko dira biharko eskolartekoan

Eskolarte mailakoen denboraldiko lehen lasterketa jokatu da bihar, zapatua, Oñatin. 200 bat txirrindularik hartuko dute parte; tartean, BiziPoz-Aloña Mendi maillotarekin arituko diren 27. Enpresagintza, Unibertsitatea eta Autlan lantegiaren arteko zirkuituan izango da, eta eragina izan dezake zirkulazioan. 16:30ean hasiko da.

Txernobylera bidaltzeko materiala jasoko dute

Txernobyl inguruko herrietara bidaltzeko produktuak jasoko dituzte gaur, egubakoitza, eta bihar Oñatin. Chernobilen Lagunak elkartearena da ekimena eta Oñatin ere egingo dute materiala jasotzeko saiakera, hango umeak ekartzen dituzten herriko familien eskaerarekin bat eginda. Hilaren 30ean, eguaztenean, kamioi bat bidaliko dute

Kiev iparraldean dagoen Ivankiv herrira, eta hor bidaliko dituzte batutako produktuak.

Higienerako eta osasunerako produktuak, kontserbak, leka-leak, pasta, arroza, galletak, olioak, txokolata eta halako elikagaiak eta pilak, linternak eta 3 kilowatteko sorgailu elektrikoak jasoko dituzte, besteak beste, Martzelino Zelaia kaleko lokalean, gaur 10:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 20:00etara eta bihar, zapatua, goizeko ordutegi horretan.



Aitor Otxoa eta Lander Alvarez probaren amaieran. ARANTZAZU EZKIBEL

Urteko gozatua hartu du Aitor Otxoa eskiatzaileak

Lander Alvarezekin batera bosgarren aldiz hartu du parte Altitoy eski lasterketan Aitor Otxoak asteburuan. Aurrekoan, Pierra Mentan izan zen, Joan Maria Vendrell kataluniarrarekin bikotea osatuta; 21. aldian zuen hark eta 17.a oñatiarrak

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Pierra Menta lasterketa egitea izaten da Aitor Otxoa eskiatzaile oñatiarraren urteko helburu nagusia. Aurten ere bete du, eta Pierra Menta ez ezik, Altitoy lasterketan ere parte hartu du. Hirugarren sailkatu zen horren baitan egindako Euskal Herriko Taldekako Mendi Eskiko Txapelketan, Lander Alvarez bikotekeki de zuela.

Altitoy

Elkarrekin egin dute Altitoy proba azken bost urteetan, eta pozik dago Otxoa, oraindik sasoi onean ikusi duelako bere burua: "Oso teknikoa izan da aurtengoa, eta zenbat eta teknikoagoa orduan eta hobia da hain gazteak ez garenondako", dio, barrez. Dagoeneko ez da lehen beste joaten Pirinioetara, elurretara, eta Oñatin egiten duenean aprobetxatzen du eskiekin entrenatzeko. Aurtengo neguan apenas egin du elurrik horretarako, eta mendiko bizikleta gainean ibili da batera

eta bestera. "Alvarez, aldiz, Dornostiakoa da, eta errepedekoan ibiltzen da gehiago. Eta Oñatin elurra bada, hona etortzen da elkarrekin entrenatzeko. Bestela, Altitoy egiten dugu topo eta batera egin lasterketa".

Pierra Menta ere bai

Altitoy Lander Alvarezekin eta astebehe lehenago Joan Maria Verdell kataluniarrarekin egin du Pierra Menta lasterketa entzutetsua Aitor Otxoak. "Bigarren urtez egin dugu bikote moduan. Verdellek ere esperientzia handia du lasterketa horretan eta uste dut hori gure aldeko izan genuela. 21. aldiz egin du Verdellek Pierra Menta, berak du errekorra, frantses batekin ber-

**PIERRA MENTA EGITEA
IZATEN DA OTXOAREN
URTEKO HELBURUA,
ETA AURTEN ALTILOY
ERE EGIN DU**

dinduta. Nirea 17.a izan da. Ea hurrengo urtean berriz egiterik dudana, lasterketa horretara joatea izaten da nire helburua".

Montblancera Uribarri

Aitor Otxoaz gain, adin askotarikoa beste hainbat oñatiarrek hartu dute parte Altitoy: Axier Alonso -Euskal Herriko txapeldun Aitor Ajuriarekin- eta Ainara Uribarri -txapelduna B mailan Ander Uriarterekin- tartean. Lehenengo aldia izan da Uribarrenendako: "Asko gustatu zait proba. Elur gaineko ibilaldietan hartu izan dut parte, baina hain lasterketa tekniko batean ez. Gustatu zait granpoiak jartzen ibili beharra". Apirilaren 10ean egingo den Arrasate-Udalatx mendi lasterketa du hurrengo erronka Uribarrik, eta ekainean egin gura duen Montblancoko maratoni erdia prestatzen hasiko da gero. Aurten ez du Aloñako Igoeran parte hartuko. Otxoarentzat, berriz, bukatu da eski denboraldia.

"Banekien Asentzion segundoak irabaztea aldeko izango nuela"

BEÑAT GURIDI TXIRRINDULARIA

Oñatiko duatloiko oñatiar azkarrena Bikuñarekin batera

O.E. OÑATI

Aurten hasi da duatloietan parte hartzen Beñat Guridi (Oñati, 2001) Aloña Mendi Triatloi Taldeko kidea, eta hirugarrena, eta aldi berean lehenbizikoa, zuen Oñatikoa.

Zer moduz ibili zinen?

Korrikako lehenengo zatian iruditzen zitzaidan ez nuela egun onik, ez nengoen hain gustura eta sufritu egin nuen korrika. Bizikleta gainekoan, berriz, taldetxo batean sartzea lortu eta oso eroso egin nuen. Asko aurreratzea lortu nuen, eta uste dut hortxe egon zela lasterketaren gakoa. Zati horretan aurreratu nituen postuei eustea lortu nuen gero, nahiz eta boxetan sartu eta korrikako azken itzulia eskas hasi. Baina buelta ematea lortu nuen, eta oso pozik nago emaitzarekin, bai.

Presiorik izan duzu, etxean izanda?


"Etxean da eta ea lasterketa ona egiten duzun"... Halako esaldiak entzun ditut, eta presio minimo hori, agian, bai, baina asko disfrutatu dudana duatloia izan da.

Animoak ere jasoko zenituen, ezta?

Asko, pila bat. Eta horrek izugarrik indarra eman dit. Orain arteko probetan ez dut hori bizi izan, baina Oñatiko duatloia honetan ibilbide osoan zehar entzun dut jendea nire izena esaten, animoak ematen, eta sekulakoa izan da. Eskerrik asko denoi.

Antolaketa lanetan ere ibili zinen?

Ibilbidea zehazten ez, baina ibili naiz bestelakoetan laguntzen,



Beñat Guridi oñatiarra. B.G.

bai. Hala ere, ezagutzen nuen ibilbidea eta banekien, adibidez, Asentzioko jaitsieran segundo batzuk irabaztea nire aldeko izango zela, eta horrela izan zen. Ze proba egingo dituzu datozen astetan?

Asteburu honetan, adibidez, domekan Durangon egingo den duatloian hartuko dut parte, eta hurrengo asteburuan, Zizurkilgoan. Nire lehen denboraldia da duatloietan. Bi horiekin bukatuko dut aurtengo sasoa.

Eta gero, zer?

Berriz bizikleta hartu eta pista lasterketak prestatzen hasiko naiz, apirila eta maiatza artean egingo direnetan lehiazteko; 800 eta 1.500 metrokoetan. Entrenamenduak ere ezberdinak izango dira: orain arte, erresistentzia landu dut, eta abiadura landu beharko dut lasterketa horietarako.

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Inguma taldeko lau musikariak. JONE MARKULETA

'Buruaz beste' diskoa aurkeztuko du Ingumak

Bederatzi kantuz osatutako estreinako lana kaleratu du Inguma taldeak: oñatiarrez idatzi dituzte, gainera, abestietako batzuk; abenduan egin zituzten grabaketak eta bihar, zapatua, emango dute aurkezpen kontzertua, Antixeneko gaztetxean

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI
Lau musikaririk osatzen dute Inguma taldea: Ibon Perezek – abeslaria –, Alex Markuletak – baxu-jolea –, Xabier Albistegik – bateria-jotzailea – eta Beñat Leturiagak – gitarra –. Gaur egungo laukote hori 2020ko udan sortu zuten.

Oi! estiloa lantzen dute euren abestietan eta inguruko musikazale ugari esan izan diete bardulia mugimenduko taldeen itxura ere badutela.

Kantuak, euskaraz

Gai historikoei eta politiko-sozialei abesten diete euren kantuetan eta Euskal Herriari buruz ere hitz egiten dute. Guztira, bederatzi kantu sortu dituzte, guztiak euskaraz, eta badute berezitasun bat ere: horietako batzuk oñatiarrez dira. Hauxe dio horri buruz Perez abeslariak: "Letrak idazterakoan ideia batzuk oñatiarrez etortzen bazitzaizkigun, kantu horiek oñatiarrez garatzea errazagoa egin zaigu, eta, beraz,

baditugu kantuak gure euskalkian. Baina kantu guzti-guztiak euskaraz dira, hori garbi geneukan hasieratik".

Buruaz beste diskoa Beasaingo Pottoko estudioan grabatu zuten, 2021eko abenduan, Fredi Pelaez teknikariarekin, eta oso gustura gelditu dira emaitzarekin: "Gure abestiak asko entseatuta eraman genituen grabazioetara, estrukturura oso zehatzekin", adierazi du Perezek. Eta gaineratu du diskoaren soinua "potentea baina garbia" dela. "Estilo horretan entzuten ditugun ohiko ahotsak, normalean, sendoak eta gogorrak izaten dira, nirearekin alderatuta. Nirea garbiagoa dela esango nuke". Bi kolaborazio ere izan dituzte: Ekaitz Oldarkorrena eta

GAI HISTORIKO ETA POLITIKO-SOZIALEI ABESTEN DIETE ETA ZUZENKOETARAKO GOGOTSU DAUDE

Larru Beltzak taldeko abeslari Naiara Urzelairena.

Dagoeneko salgai jarri dituzte diskoak, Oñatiko Boga eta Ikatz tabernetan, Bergarako Arranon, Legazpiko gaztetxean eta Arrasateko Irati tabernan. Mal Mai Records zigilupean argitaratu dutenez, euren webgunetik ere eskuratu ahalko da.

Disko aurkezpena, bihar

Jendaurrean egingo duten disko aurkezpena bihar, zapatua, izango da, Antixeneko gaztetxean, 21:00etan hasita. Joseba Arregi herriko 76 urteko presoaren aldeko jaialdia antolatu du Ernaik, eta horren baitan izango da Ingumaren kontzertua. Horrez gain, Arrasateko Garazi eta Unax bikoia eta Elorrioko Iheskide taldeak ere igoko dira Antixeneko oholtzara. Eta herrian emango duten kontzertuaren ostean, Ingumakoak Deban izango dira apirilaren 2an eta maiztean Beasainen. Data gehiago aurrerago iragarriko dituzte.

Herrian eta pantaila handian, Itsaso Polen 'Aita' film laburra

Publiko guztiarendako zabalik egongo den lehen proiektioa egingo da bihar; gonbidapenak behar dira

A.T. OÑATI

Lehen film labur profesionala grabatu zuen iazko Aste Santuan Itsaso Pol oñatiarrak. Tartean, Oñatiko eta Arrasateko hainbat txokotan egin zituzten grabazioak, eta orain, herrian eskainiko dute.

Lantaldean izan ditu Madrilgo eskolan berarekin batera ikasi zuten profesional batzuk, eta baita beste hainbat herrikide ere; protagonista, esaterako, bere ahizpa Amaia da, eta lantalde teknikoan oñatiar ugari hartu dute parte.

Bihar, zapatua, lehen aldiz eskainiko dute pantaila handian publiko guztiarendako, eta, ikus-entzunezkoaren zuzendaria bertan egongo ez den arren, Oñatikoa "proba handia" izango dela dio. "Ezin izango dut analizatu nola irteten den jendea, ea ondo ulertzen den, zer trans-

mititzen den ikus-entzunezkoan... Azken finean, ezin izango dut ikus-entzuleen erreakziorik jaso, baina ea gustura irteten diren. Ni oso pozik gelditu naiz emaitzarekin, eta ikusi duten inguruko harrera ere oso ona izan da", adierazi du.

Drama generoko film laburra da eta hainbat festibaletara aurkeztu du ikus-entzunezkoa. Bere ilusioa da horietako batean parte hartu ahal izatea. Dena den, beste lau gidoi ere idatzita ditu dagoeneko.

Gonbidapenak, Txokolateixan

Sarrerak doan izango dira, baina gonbidapenak eskuratu behar dira, Txokolateixan, edo, bestela, egunean bertan aurrez hartu ahal izango dira Santa Anako leihatilan bertan. 18:30ean izango da eta hoge minutu irauten du.

Jon Mestre piano-jole gazteak lehen saria lortu du Gasteizen

Aurreko asteburuan Gasteizen jokatu zen Euskadiko musikari gazteen lehiaketaren XV. aldia, eta tekla kategoriako B mailan irabazlea izan zen Jon Mestre 14 urteko piano-jole oñatiarra. Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioko ikaslea da gaur egun eta lehen aldiz hartu du parte lehiaketan. Oso pozik dago lortutako garaipenarekin.

Iñaki Jauregiartzoren artelanak Andrea Azkoagaren dendan

Bigarren aldiz jarri dituzte ikusgai Iñaki Jauregiartzoren hainbat artelan Andrea Azkoaga barne-diseinatzailearen dendan. Zeramika gainean esmaltez osatutako emakumeen hamar irudi daude oraingoan, gorriak eta moreak. Edozein sar daiteke dendara horiek ikustera, eta salgai ere badaude. Hilaren 31ra bitartean izango dira bertan.

'Kontukontzertua' liburutegian, 4 eta 5 urte bitartekoendako

Badator Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna, eta ospatzeko, apirilaren 1ean, Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtado joango dira liburutegira *Kontukontzertua* eskaintzera. 4 eta 5 urte bitartekoei zuzenduta egongo da eta izena eman behar da 943 71 61 11n edota liburutegia@onati.eus-en, edo [whatsapp-a](https://www.whatsapp.com/channel/00299a688732826ra) 688 73 28 26ra idatzita.

Xabier Rezabalen argazki erakusketa Eltzia tabernan

Bidaia bat beste ikuspegi batetik izenburupean, Xabier Rezabal argazkilariaren lanak daude ikusgai Eltzia tabernan. Erretratuetan, paisaiak eta itzalak lantzen ditu, tarteka, Rezabalek, eta bere argazkien lagin bat ikus daiteke bertan. Maiatzera bitartean izango dira, eta, aurrera begira, taberna Eltziaiko artisten lanen topaleku izatea gura dute.

Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez goienakide!

**goiena[“]
kide**



www.goiena.eus/kideak





Ezkerretik hasita, Eleder Lozano, Oihana Kortazar, Ibai Zabaleta eta Iratxe Alonso. XABIER URZELAI

Elgetak berea behar zuen

MENDI LASTERKETAK Domekan, Ahuntzen lasterketaren lehenengo edizioa jokatu dute (10:00, Elgetako plaza). 200 korrikalari batuko dira irteera puntuan, eta 10:30ean korrikalari gazteei zuzendutako Antxumeen lasterketa egingo dute

Xabier Urzelai ELGETA

Intxortako maldak borroka gogor baten testu izango dira osteraren ere. Baina domekakoak ez du 1936koarekin zerikusirik izango. Orduan, gudariek Francoren ejertzitoari eutsi zioten zazpi hilabetez, eta oraingoa kirol lehia izango da, eta herriak lagunduta antolatuko dute, gainera. "Eskerrak boluntarioei, bestela, taldekideon lanarekin bakarrik ezinezkoa izango litzateke halako zerbitu antolatzea", dio Intxortako Ahuntzak Trail taldeko kide Eleder Lozanok. *Ahuntzek*, hain zuzen, taldearen izena daraman gailurra aukeratu dute GOIENAKo azaleko argazkiak egiteko.

Oihana Kortazarren babesarekin Asentzión hitzordua eginda hartu dute Intxortarako bidea, eta Oihana Kortazar izan dute bi-

delagun, bai gaurko –eguzte-neko– argazki saioan, eta baita lasterketako antolaketa ere. "Bere irudia erabilia korrikalariak erakarri ditugu, eta eskertzekoa da", dio Lozanok. Kortazar, baina, berri txar batekin dator: "Min hartuta nabil eta amorru galanta ematen dit domekan lasterketan parte ez hartzeak". Mutrikun bizi den elgetarra, baina, Intxortan egongo da lasterkariak animatzen. "Pare bat entrenamendu saio falta zaizkit lasterketa egin ahal izateko, sikiera, oina ondo dudana ikusteko. Gustura egingo nuke,

AHUNTZEN LASTERKETAK 15 KILOMETRO IZANGO DITU, ETA 4 ANTXUMEENAK

geroago eta hobeto sentitzen naizelako, baina fisioterapeuta enteratzen bada lasterketan parte hartzen dudala...", dio, irribarre batekin.

15 kilometroko proba

Antolatzaileen ustez, Ahuntzen lasterketak 15 kilometro izateko gogortasun maila nahiko polita izango du: "900 metroko desnibela ez da gutxi, eta ahaleginu gara ibilbidean zehar mendiko pistak eta baserri bideak erabili beharrean ahalik eta bidezidor gehien sartzen. Hala, lasterketa hasi eta San Rokeetik eta Leposolotik Goikomendira abiatuko dira. Normalean, jaitziera luzeenak lasterketa amaieran egoten dira, baina hemen lasterketa hasi eta segituan izango dute jaitziera luzea. Handik zuzenean Aixolako presara jaitziko dira eta presaren albo

"Boluntarioei esker, lasterketak Elgetari egingo dio ekarpena"

ELEDER LOZANO INTXORTAKO AHUNTZAK TALDEKO KIDEA

Pandemiak Elgetako lasterketa patxada handiagoz antolatzeko tarte eman die Eleder Lozanori (Sestao, 1975) eta gainontzeko *ahuntzei*. Duela pare bat urte herriko taberna batean hasi zen dena, Whatsapp talde bat sortuta hasi ziren asmoak gauzatzen. Baina pandemiak tartean harrapatu zituen gero.

Elgetak bere lasterketa behar zuen...

Bai, ia herri guztiek daukate euren mendi lasterketa eta Elgetan gurea antolatu nahi genuen. Gehiago esango dizut, ederra izango litzateke bailarako mendi lasterketa guztiak batu eta Debagoieneko Kopa moduko bat antolatuko bagenu.

Domekan giro polita izango da herrian...

Seguru baietz... Izan ere, lasterketak herriari berari egingo dio ekarpen handiena; eskerrak boluntarioei, eurak gabe hau guztia ez litzateke posible izango.

Luxuzko lasterkaria izango da irteera puntuan.

Oihana Kortazarrek segituan eman zigan baiezkua, eta laguntzeko prest agertu da beti; asko eskertzen diogu, bereziki, gaur egun ez delako Elgetan bizi eta horrekin batera bidaiekin eta bestelako konpromisoekin topera ibiltzen delako.

Zu zeu noiztik mendi lasterketan?

Nik betidanik egin izan dut korrika, eta duela hamar urte inguru egingo nuen lehenengo mendi lasterketa.

Distantzia luzeak ala motzak dituzu nahiago?

Mendi lasterketan maratoi erdiak egin izan ditut, baina nahiago ditut lasterketa motzak. Kilometro bertikalak gustatzen zaizkit niri, eta Anbotoko lasterketa da nire kuttunetako bat.

Lasterketa leherkorak dira, baina, horiek.

Bai, baina esaten dutenez, lasterketa luzeak hankekin egiten dira eta behetik gorako lasterketa motzak, bihotzarekin. Eta nik nahiago dut belaunak zaindu; ja, ja, ja.

Ibilbideko ze leku aukeratuko zenuke proba ikusteko?

Goikomendira joango nintzateke. Lasterketa hasiera izango da, herritik 20 minutu dira oinez, eta han, nagusiekin batera gazteen proba ere ikus daiteke.

Ez da ohikoa gazteendako ere lasterketa antolatzea...

DBHkoak genituen buruan; gazteagoek kirola egiteko eskaintza mordera izaten dute, baina adin tarte horretan... Hogeiguneko eman dute izena, eta ibilbide laburragoa egingo dute.

batetik ibili eta gero Erdella puntara arte igoko dira –han, lehenengo gizonezkoak eta emakumezkoak Flotamet saria irabaziko dute–, eta Erdellatik jaitsi ondoren Intxortako maldak izango dituzte zain".

LEHEN EDIZIOA DA, ETA DORTSALAK AGORTU EGINDITUZTE: 200EK HASIKO DUTE PROBA

Kortazarrek bikain ezagutzen ditu paraje horiek, eta dio Elgetako inguruek askotariko aukerak ematen dituztela. "Distantzia luzeak probak ere egin daitezke hemen, baina neurri polita dauka domekakoak, denendako moduko antolatzea garrantzitsua da".

Helduendako lasterketarekin batera, gazteendako egindako Antxumeen lasterketak lau kilometro izango ditu, eta horiek 200 metroko desnibela gauditu beharko dute. Guztira, hogeiguneko batuko dira irteera puntuan.

Gorlako maldak oilarren joko-leku izango dira

TXIRRINDULARITZA Domekan egingo dute Gorlako Igoeraren 47. edizioa. Lasterketan izango dira Azkarate anaia arrasatearrak (Eulen), Oñatiko Unai Cueva (Eulen) eta Aimar Erostarbe (Cafes Baque), eta Bergarako Ibai Unamuno (Eibar)

Xabier Urtzelai BERGARA

Gorlako Igoerak amateur mailako ziklista onenak batuko ditu etzi (10:00, Labegaraieta). Beste urte batez, kategoriako oilarrak mokoka izango dira Bergaran, eta tartean izango dira Deba-goieneko bost ziklista. Eulen taldean izango dira ordezkari gehien: Asier eta Andoni Azkarate eta Unai Cueva oñatiarra talde horretan dabilta; beste oñatiar bat, Aimar Erostarbe, Cafes Baquoko maillota defendatzen dabil; eta izango da etxean korrituko duenik, Bergarako Ibai Unamuno (Eibar) ere lasterketan izango da eta.

Irteera Labegaraietan egingo dute, iaz moduan, eta ez San Martin plazan: "Lasterketa antolatzen eta ibilbidea prestatzen hasi ginenean, oraindik COVID pasaportearekin genbiltzan arriera eta atzera, ez genekien zein izango zen martxo amaieran izango genuen egoera, eta, badaezpada, iazko neurri hori errespetatzea erabaki genuen; alegia, irteera herrigunetik ateratzea. Pena da, irteera plazan izan denean oso giro polita egoten delako, jendea joaten da Seminarioko patiora autoak ikustera... Espero dezagun datorren urtekoa erabateko normaltasunarekin antolatuko



Iribar eta Etxeberria –irabazlea– taldekideak, iaz, batera helmugan. GOIENA

AURTEN ERE LABEGARAIETAN HASIKO DUTE 130 KILOMETRO IZANGO DITUEN LASTERKETA

dugula", dio Lokatzako presidente Ion Unamunok.

130 kilometro

Berritasunen artean dago lasterketak kilometro batzuk gehiago izango dituela, hasieran

egingo dituzten Osintxu eta Zubillaga arteko joan-etorrietan Osintxura beste itzuli bat gehiago egingo dute eta. Hala ere, horrek ez ditu lasterketako ezauzgarriak aldatuko: "Saihesbidean ibili eta gero, ziklistak Ibargaraitik sartuko dira Bergarara. Hala, Gorlako lehen igoera egin aurretik, Ibargarai kalea zeharkatuko dute, eta Deskargatik bueltan datozenean ere San Antonio kaletik sartuko dira eta herrigune osoa gurutzatuko dute. Aukera polita lasterketa herrian bertan ikusteko".

Uzarragako Igoera zapatuan

Uzarragako Igoerak gazte mailako ziklistak batuko du bihar Antzuolan (16:00). Iaz, Goizperreko aparkalekuan hasi zuten proba, baina bihar herriko plazan egingo dute irteera, ohi moduan. Ziklistek 70 kilometro egingo dituzte Zubillagara eta Bergarara hainbat joan-etorri eginda, eta azken bi kilometroetan Uzarragako maldak izango dituzte zain.



Ziklistak, iaz, lasterketa hasteko zain, Goizperreko aparkalekuan. GOIENA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

O.ERREGION. GIZ.

Hernani-Bergara

Zap. 11:30. Zubipe.

Real Union-Aretxabaleta

Zap. 16:00. Gal.

Aloña Mendi-Mondra

Dom. 16:30. Azkoagain.

O. ERREGION. EMAK.

Beti Gazte-Leintz Arizmendi

Zap. 16:30. Lesaka.

Bergara-Oiartzun

Dom. 17:30. Ipintza.

GOIRENGO M. IRAUPEN F.

Mondra-Billabona

Zap. 16:30. Mojategi.

Antzuola-Dunboa

Zap. 16:00. Eztala.

Aretxabaleta

(atsedena).

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Aretxabaleta-Ariznabarra

Zap. 16:00. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Mondrate-Antiguoko

Zap. 16:30. Musakola.

Kukuyaga-Eskoriatza

Zap. 17:30. Etxebarri.

EUSKADIKO TXAP. GIZ.

Aretxabaleta-Hegalariak

Zap. 17:00. Ibarra.

ESKUBALOIA

EUSK. TXAP. GIZON

Fagor Professional

(atsedena)

Mugarri Ingou

(atsedena)

EUSK. TXAP. EMAKUM.

Cons. Aloña Mendi

(atsedena)

GIP. SENIOR 1 MAILA

SoraluceBKE

(Atsedena).

SASKIBALOIA

EBA

Venta de Baños-MU

Zap. 20:15. Venta de Baños.

LEHEN NAZIONALA

Askatuak-MU

Zap. 16:00. Donostia.

GIZON. BIG. MAILA

Easo-Mekalki Aloña

Zap. 17:45. Donostia.

EMAK. BIG. MAILA

Maristas-MU

Dom. 11:00. Logroño.

GIPUZKOAKO TXAP.

Atletico SS-Bergara

Soraluce

Zap. 18:00. Donostia.

GIP. SENIOR. GIZ.

Bergara Sora.-Luberri

Dom. 16:00. Bergara.

PILOTA

Oñatin, gaur (18:30) bost partidu.

Aretxabaletan, gaur, (19:00) hiru partidu.

Antzuolan, gaur, (19:00) partidu bat.

Bergaran, gaur, (18:30) hiru partidu.

TXIRRINDULARITZA

Zapatuan. 16:00.

Uzarragako Igoera, Antzuolan.

Domekan. 10:00.

Gorlako Igoera, Bergaran.

MENDI LASTERKETA

Domekan. 10:00.

Ahuntzen lasterketa, Elgetan. (10:30ean

Antxumeen lasterketa).



GOIENA

Finalistak kamiseta berriarekin

PILOTA Joan den astean, Emakume Master Cupeko pilotarien elastiko berriak aurkeztu zituen Astorek, eta oraingoan, gizonezkoen txanda izan da. Hala, eguaztenean Arrasaten izan ziren datorren apirilaren 3an eskuz binakako finala jokatuko duten Laso, Imaz, Altuna eta Martija.

Ohiko formatuarekin, 15. Huhezinema prest dago

Martxoaren 30etik apirilaren 1era egingo dute MUko Ikus-entzunezkoen Fakultateko ikasleek eta irakasleek antolatzen duten Huhezinema film laburren jaialdia; film laburren proiektzioak, efektu bereziei buruzko tailerra eta ekitaldi gehiago izango dira

A. Aranburuzabala ARETXABALETAKO

Orain dela hiru urte egin zuten jaialdiaren itxura berreskuratu du datorren eguaztenean abiatuko duten Huhezinema film laburren jaialdiak; hori horrela, *streaming*-ez eta pantaila txikian beharrean, Arkupe kultura etxe-ko zinema aretoko pantaila handian emango dituzte aurtengo hiru lehiaketetan –Sail Ofiziala, MUko ikasleen saila eta Bideoklip saila– epaimahaiak aukeratu dituen filmak.

Iban Del Campo irakasleak gidatuta, hamasei ikasle osatzen duten lantaldea jaialdiari azken ukitua ematen ari da. "Hiru taldetan banatu gara –komunikazioa, programazioa eta produktzioa–, eta, aurreko aldietan moduan, asko ikasi dute eta emaitza oparoa izango delakoan gaude. Egitarau oparoa dugu, eta interesa duten guztientzako zabalik daude ekitaldi guztietarako atekak", dio Del Campok.

Uzta "oparoa"

Pozik daude jasotako lanen kopuruagatik eta kalitateagatik. "Sail Ofizialeko lanen kopurua jaitsi egin da, baina kalitatea mantendu egin da, eta, zoritxarrez, kanpoan geratu dira lan zoragarri batzuk. Genero aldetik danetarikoak daude: fikzioak,



Aurtengo film laburren jaialdia antolatu duen lantaldeko kideak. HUHEZINEMA

dokumentalak, animaziozkoak eta lan esperimentalagoak. Egileei begiratu ere profil askotarikoak dira, eskarmentua duten zinemagileek egindakoak eta hasiberriak ere bai. MUko ikasleek egindako gehienak fikzioak dira, askotariko lan txukunak horiek ere".

Musikari garrantzi berezia eman diote aurtengorik; hori horrela, bi sari berri eskaintzeaz gain, Bideoklipen saila "arrakastaz" estreinatu dute. "Aurkeztutako 26 lanetatik aukeratu ditugun hamabi lan horietan denetari-

koak daude formatuari eta estiloari dagokienez. Orokorrean, lan ederrak guztiak! Euskal musikagintzaren panoramaren erakusleho zabala da".

Ekitaldi guztiak, zabalik

Hamabosgarrena izanik, "ospakizun kutsua" eman gura izan diote. "Atzera begiratu dugu eta hainbat arlotan –grafismoan, ekoizpenean, gidoietan...– ibilbide oparoa egiten ari diren gure bost ikasle-ohi gonbidatu ditugu euren bizipenak partekatzeko. Maite Arroitauregi

Egitaraua

Martxoak 30

- 10:00 Ikasle ohien topaketa.
- 15:00 *Nor ari da grabatzen*, premierra.
- 15:30 Efektu berezien tailerra.
- 18:30 Triki-poteoa.

Martxoak 31

- 11:00 Arantzazu Calleja musikagilearen hitzaldia.
- 15:00 eta 16:30 MU saileko lanen proiektzioak.
- 17:45 eta 18:45 Bideoklip saileko lanen proiektzioak.

Apirilak 1

- 15:00 eta 17:00 Sail Ofizialeko proiektzioak.
- 19:00 Sari banaketa ekitaldia.
- 20:00 Luntxa.
- 21:30 Kontzertua.

Arkupe kultura etxean eta Herriko Plazan izango dira.

Antzerkigileen Topaketa etzi, domeka, DAPen eskutik

10:00etatik 14:00etara izango da, Eltzian; izena emateko, 'Dantzerkiplat@gmail'-era idatzi behar da

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Eskualdeko antzerki eragileen artean eraturako sarea da DAP, Debagoieneko Antzerki Plataforma, "euskarazko kultura eta antzerkiari gizartean dagokion tokia eta garrantzia emateko lan egiten duena".

Formakuntzatik harago

Antzerkigintza, eta kultura orokorrean, "gizartearen eraldaketarako giltza moduan" ulertzen dute, eta helburu horrekin abian dituzte hainbat lan lerro; horien artean, askotariko ikastaroak. Esaterako, bihar, zapatua, Egoitz Aizpururen eskutik Eskoriatzako kultura etxean eskainiko dutena (Ikus 22. orria).

Etziko, domekarako, Debagoieneko antzerkigileen izango den edo izan gura den arte eszenikoen etorkizunari buruz jarduteko eta hausnartzeko eta, bide batez, bide berriak aurkitzeko proposatu dute Antzerkigileen Topaketa ekitaldia. "Antzerkigile izan edo ez, arlo horretan interesa dutenak batu gura ditugu. 10:00etan hasi eta 14:00ak bitarteko saioa izango da, eta ondoren, elkarrekin bazkalduko dugu. Aldez aurretik izena eman behar da; Dantzerkiplat@gmail.com helbidera idatzi behar da.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

NAIARA URZELAI

LARRU BELTZAK TALDEKO ABESLARIA

MARTXOAREN 30EAN, EGUAZTENEAN
21:30EAN ETA 23:30EAN
'GALDEGAZTE' SAIOAN ELKAR HEZI
IKASTETXEKO IKASLEAK ELKARRIKETATZAILERAKO

goiena
Zu hemen zaude.



Domeka eguerdietako kontzertuen itzulera

Afrika Bibang Algortako eskarmentu handiko musikaria izango da etzi, domeka, 12:30ean, Oñatiko gaztelekuko agertokian, eta apirilaren 24rako gonbidatu dituzte Olatz Salvador eta haren taldekideak; 'Oñati.eus' atarian daude sarrerak eskuragarri

A. Aranburuzabala OÑATI

2020ko urtarrilaren 12an egin zuten, Oñatiko gaztelekuan, domeketan hilean behin egiten dituzten azken *matinée* emanaldia. Gernikako Dientes de Luna taldea gonbidatu zuten orduan eta pandemiak eraginda bertan behera utzi behar izan zituzten aurreragorako lotuta zituztenak. "Arrakastatsuak eta oso esker-tuak izaten dira kontzertu horiek, baina orain arte izan ditugun baldintzekin oso zaila izan da programazioa bere horretan mantentzea, eta, ohiko egoerara gerturatuta, berrabiarazteko apustua egin dugu. Urrian hasi eta maiatza bitartean, hau da, kaleetako zein auzoetako jaiak hasi bitartean, hileko bana antolatzen jarraituko dugu", dio Oñatiko Udaleko Gazteria Saileko teknikari Ion Lopezek.

Emakumeak protagonista

Udaleko Gazteria eta Kultura sailek elkarlanean jarduten dute herriko kultura eskaintza programatzen. "Aukera pila bat ditugu mahaiaren gainean, eta eguerdietan dela aintzat hartuta eta emakume musikariak fokuan jartzeko helburuarekin, Afrika Bibangen eta haren taldekideen soul eta R&B doinuak izango dira etzi entzungai. Ibil-

bide luzea du Bibangek: Ke No Falte reggae taldearekin hasi zen, Etsaiak taldearekin jardun zuen gero; 2004an argitaratu zuen *Entzun* (Metak) bere bakarkako lehen diskoa; *Begira* (Airaka) izenekoa 2019an; eta *Ispiluaren aurrean* (Huracan29 Records) argitaratu zuen iaz. Bitxikeria moduan, 2005eko Korrikaren kantuaren egilea ere bera da".

Korrika Kulturalaren egitarauaren baitan dago domekako kontzertua, eta baita Idoia Asurmendi aramaiorak apirilaren

8an agertoki berean eskainiko duen emanaldia ere. "Eguerdian beharrez 20:00etan izango da kontzertu hori, eta dagoeneko sarrerak eskuragarri daude *Oñati.eus* atarian. Taldearekin etorriko da Asurmendi ere".

Apirilean Olatz Salvador

